

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. *Iparragirre*. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018). 2018
4. MIQUEL GROS I LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz.
Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2018
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA. EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen herria. 2010
11. MIKEL ZALBIDE
Euskararen legeak bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. 2010
12. JUJE ETXEBARNE
Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz.
Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2015
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha.
El modelo Ikastola 1960-2010. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord. 2012
16. PAULA KASARES
Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta bizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. 2013
17. EUSKALTZAINDIAREN XXI. JAGON JARDUNALDIA
Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa. 2017
18. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Araba, euskaraz bidea egiten. 2018
19. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018. 2019
20. EUSKALTZAINDIA. EZKERRABERRI FUNDAZIOA
Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak. 2020
21. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Hizkuntzak gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi. 2021
22. EUSKALTZAINDIAREN XXIV. JAGON JARDUNALDIA
Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean
EUSKALTZAINDIAREN XXV. JAGON JARDUNALDIA
Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei? 2021
23. EUSKALTZAINDIAREN XXVI. JAGON JARDUNALDIA
Euskara Nafarroako hezkuntzan: egoera eta aukera berriak. 2022

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu Jagon Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itxaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko JAGON bildumak euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKALTZAINDIAREN XXVI.
JAGON JARDUNALDIA

Euskara Nafarroako hezkuntzan: egoera eta aukera berriak

2. edizioa,
berrikusia eta osatua



Liburu honetan jaso dira, 2021ean Iruñean antolatutako *Euskara Nafarroako hezkuntzan: egoera eta aukera berriak* izeneko XXVI. Jagon Jardunaldian aurkeztu ziren zenbait txosten. Horietaz landa, badira liburuan beste aditu batzuen iritziak ere, jardunaldiaren osagarri gisa bildu nahi izan ditugunak.

EUSKALTZAINDIAREN XXVI. JAGON JARDUNALDIA

EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZAN:
EGOERA ETA AUKERA BERRIAK

2. edizioa,
berrikusia eta osatua

JAGON SAILA
Sustapen batzordea

BURUA
Sagrario Aleman

IDAZKARIA
Erramun Osa

KIDEAK
Jon Aizpurua
Mattin Bacho
Irati Iciar
Patxi Juaristi
Santiago Larrazabal
Gotzon Lobera
Iñaki Martínez de Luna
Patxi Saez
Jon Sarasua
Castillo Suarez
Belen Uranga
Andres Urrutia
Ibon Usarralde

AHOLKULARIAK
Kike Amonarriz
Eneko Bidegain
Jean-Baptiste Coyos
Xabier Erize
Juan Karlos Etxegoien *Xamar*
Pantxo Etxegoien
Eba Gaminde
Andres Iñigo
Elixabete Piñol
Manuel Maria Ruiz Urrestarazu
Arabako ordezkaria
Gipuzkoako ordezkaria
Nafarroako ordezkaria
Iparraldeko ordezkaria

EUSKALTZAINDIAREN XXVI. JAGON JARDUNALDIA

**EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZAN:
EGOERA ETA AUKERA BERRIAK**

2. edizioa,
berrikusia eta osatua

Sagrario Aleman (arg.)



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO

2023

I. edizioa: 2022ko urria
2. edizioa, berrikusia eta osatua: 2023ko uztaila

2. edizio honek artikulua bat gehiago dakar: Rafael Blanco Arbek idatzitako
«A ereduá: nahiak, ezinak eta aukerak. Begirada bat Foru Erkidegotik»
izenburuko testua (93-98 or.).

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R. A. L. V. / A. L. B.

Barrualdearen diseinua: Ikeder SL
Gainazala: NB Servicios Gráficos
Inprimatzea: Gráficas Iratxe

ISBN: 978-84-127506-1-4
Lege-gordailua: NA 2053-2022

AURKIBIDEA

Sarrera	
<i>Sagrario Aleman</i>	9

EUSKALTZAINDIAREN XXVI. JAGON JARDUNALDIA

EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZAN: EGOERA ETA AUKERA BERRIAK

Eskola eta euskalkien auzia: Nafarroako eredua	
<i>Bittorio Lizarraga Lazkano</i>	II
D eredia: bilakera eta erronkak	
<i>Eduardo Aldasoro Lezea</i>	17
Nola kudeatu eleaniztasuna eskolan. Ikastetxearen hizkuntza proiektua	
<i>Maite Gorospe Lizaso eta Marisa Zubiri Argiñaritz</i>	31
Euskara Nafarroako hezkuntzan: traba egiten duena ezabatzea eta etorki- zunari begira ereitea	
<i>Juan Pedro Urabayen</i>	39
Ikasleen euskarazko ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko egitasmoa: ahozko hizkuntza irakastea	
<i>Yolanda Olasagarre Mendimeta</i>	43
Sormen digitala	
<i>Alberto Barandiaran Amillano</i>	59
Euskara sustatzeko berrikuntza proiektuak Iruñeko Patxi Larrainzar ikas- tetxean	
<i>Edurne Goñi Olite eta Oibana Iñigo Olondriz</i>	67

ERA.EUS, gurasoak aktibatzeke ataria <i>Alfredo Dufur Otegi</i>	73
Jolasteka egitasmoa <i>Marta Diaz Napal</i>	79
Nafarroako ikasleak bertsoan <i>Leire Barberena Rota</i>	81
Parkean Euskaraz egitasmoa <i>Esther Lakasta Perez-Ilzarbe</i>	85
Ondorioak <i>Sagrario Aleman</i>	91
Eranskina A ereduak: nahiak, ezinak eta aukerak. Begirada bat Foru Erkidegotik <i>Rafael Blanco Arbe</i>	93

EUSKALTZAINDIAREN
XXVI. JAGON JARDUNALDIA

*EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZAN:
EGOERA ETA AUKERA BERRIAK*

SARRERA

Jagon Saileko Sustapen batzordeak urtero jardunaldia prestatzen du, beste hainbat ekimenen artean, euskararen estatusari buruz gogoeta egiteko, euskalgintzan ari diren taldeekin eta herri erakundeekin batean.

Liburu honetan jaso dira, 2021ean, Iruñean antolatutako *Euskara Nafarroako hezkuntzan: egoera eta aukera berriak* izeneko XXVI. Jagon Jardunaldian aurkeztu ziren txostenak eta bertan azaldu ziren esperientziak, ez denak halere, gehientsuenak baizik. Horietaz landa, egun horretan hitz egiterik izan ez zuten, baina gaian zer esana duten aritu eta aditu zenbaiten iritziak ere bildu ditugu.

Zalantzarik gabe, hezkuntzak berebiziko garrantzia dauka euskararen biziberritze prozesuan. Hizkuntzaren iraupena ziurtatzeko ezinbestekoa den egitekoa bete izan du, mendeetan, familiak eta inguru hurbilak. Zoritxarrez, euskara hizkuntza gutxitua eta besten menpeko izateak transmisio mota horren ahultzea eta, maizegi, huts egitea ekarri du. Etxean eta gizartean, modu naturalean, ikasten zen euskarak beste bide batzuk ere behar ditu gaur, baldin eta gure hizkuntzaren bizia bermatu nahi badugu. Ukaezina da euskarak neurri handi batean eskolaren eta helduen euskalduntzearen bidez irabazten dituela hiztun berriak.

Eskolak euskaldundu ditu haur anitz azken hamarkadetan. Ez da aski, ordea, eskola, haur horiek euskaraz mintza daitezen edonon eta edonorekin, erdaraz funtzionatzen duen gizartean, hizkuntzen ezagutzari eta eleaniztasunari, itxuraz bederen, horrelako aitortza egiten zaion gizartean. Eskolaz gain, euskara non hobetu, barneratu, normalizatu eta erabili izateko beste hainbat arlo eta funtzio euskaldundu behar ditugu. Eskolan euskaraz murgiltze ereduan ari diren haur horiek behar dute non jostatu eta non hezi eta bizi euskaraz.

Estrategikoa da eskolan, hezkuntzan, egitasmo eraginkorrak bideratzea gero eta eleaniztunagoak diren ikasleen artean. Jardunaldietan jakin nahi izan dugu nola-ko egoera duen euskarak Nafarroako hezkuntzan. Nola kudeatzen den eleaniztasuna ikastetxeetan orain eta etorkizunean nola egin beharko litzatekeen, zein erronka eta aukera berri dituen euskarak gela barnean eta gelatik kanpo, eta zein egitasmo ari diren garatzen ikasgelan eta eskolaz kanpoko ekintzetan.

Azken finean, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen XXVI. Jagon Jardunaldiak hezkuntzan lanean ari diren adituen iritzi eta ikuspegiak biltzea izan du helburu, eta orain, liburu honetan dituzu jasoak hausnartzeko, eta esperientziak ezagutu eta trukatzeko balioko dutelakoan.

Sagrario Aleman
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

ESKOLA ETA EUSKALKIEN AUZIA: NAFARROAKO EREDUA

Bittorio Lizarraga Lazkano
Magisteritzan diplomaduna, eta Euskal Filologian
eta Hispaniar Filologian lizentziaduna

Testuingurua

Nafarroako euskararen auzian eskolaren zeregina aztertzen hasterako, herrialde honetan bizi ohi dugun egoera bihurriari begiratu beharrean gara nahitaez. Eskola ez baitugu uharte bakartua, aitzitik, gizartearen gorabehera guzien ispilua baizik. Hor-taz, askotan hezkuntzaz landako arazoek zama handiagoa izaten dute, eskolaren eginbehar hezitzaile eta akademikoei dagozkienek baino.

Eskola publikoa egitura konplexu baten gainean eraikia da. Egiturak berak asko-tan eragiten ditu egoera katramilatsuak, hezkuntzaren jarduera egokiari kalte egiten diotenak, besterik ez. Lehenaz gain, ezegonkortasun horren eraginak areagotu egiten du euskararen egoera anormala. Ikusi besterik ez da: alde batetik, irakasleen eraba-teko joan-etorriak ez dio mesede handirik egiten egoerari, hizkuntzaren inguruko luzaroko edozein egitasmo gorpuzteko orduan. Deus egiten hasiz geroz, abiadak nekez aurkitzen du taxuzko segidarik, tarrapataka ez bada, bederik. Bestalde, irakas-leen lan-egoera askotarikoa irakasle profil multzo heterogeneoa osatzerainokoa da: baditugu funtzionarioak, horien artean euskaldun zahar alfabetatuak eta euskaldun berriak; aldi berean, baditugu bitarteko irakasleak, gehienak gazteak, euskara estan-darrean ikasitakoak. Azken horiek lekualdaketan ibiltzen dira urtero, hala, hobere-nean ikasturte osorako lantokia izaten dute, eta okerreanean, berriz, hilabete edo aste batzuetarako, besterik ez.

Gainerakoan, irakasleari eskatzen zaion euskara maila, EGA izatearekin edo haren parekidea aurkeztearekin asetzen da. Eskolaren eskuetan edo norberarenetan dago maila hobetzea edota eguneratzea. Agerikoa da, halako ibilerekin zail samar gertatu behar duela euskararen inguruko egitasmo iraunkorrik taxutzeak.

Euskara eta eskola Nafarroako eremu euskaldunean

Nafarroako eremu honetako eskolen erakusgarri Leitzakoa ekarriko dugu hona. Leitza herri euskalduna da oro har, alabaina, euskalduntasun hori zehazte-rakoan badira eremu nabarrak, kezka sorrarazten dutenak, alegia. 2021eko Hiz-kuntzen Erabileraren Kale-Neurketan, euskararen erabilerak % 70 jo zuen.

Badirudi aurreneko kaleko neurketak egin zirenetik (90eko hamarkadan) ez dela aldaketa nabarmenik izan¹. Datu horiek 2021eko *Marmari* aldizkarian argitaratu ziren.

Hala ere, idazki berean aipatua da, gainbegirada batean datuak onak izanagatik ere, sakonago aztertuta, kale-neurketaz landako behaketetan antzeman daitekeela, badela euskaldun multzo bat elkarri erdaraz aritzeko joera duena, eta, areago, oraindaino euskara aise gailena izan den haur eta gazteengan ere, erdararen sartzea adierazgarria dela.

Ondorio bertsua atera dugu, Leitzako eskolako Hizkuntza Proiektua dela eta diagnostikoa taxutzeko egin ditugun galdeketetan. Galdeketa horien helburua eskolako egunerokotasunean euskararen erabilera neurtzea da. Eskolako partaide guziek, sailka-sailka, hartu dute parte: irakasleek, gurasoek eta bestelako langileek. Emaitzetan eskolaren euskalduntasunaren zalantzarik ez badago ere, irakasle askok nabarmendu dute badela euskaldun talde bat, gero eta kopurutsuagoa, gehiengan erdaraz aritzen dena. Horrez gain, gurasoen sailean, gehiago dira arruntean euskaraz mintzatzen ohi direnak. Euskaldunen erantzunetan agertu da, ordea, garrantzizko multzo bat, zeinak eskuarki euskara eta erdara txandakatzen baitu; are gehiago, horien artean erdara hutsean mintzatzen dira horietatik zenbait ia beti.

Nolanahi ere, bada kontu bat azterketa hauetan, behar bezainbestean, apika, aintzakotzat hartzen ez dena, hots, kaleko neurketa guzietan euskaraz mintzatzen den kopururik handiena haurrek eta gazteek osatzen dute ezbairik gabe. Bistan da 90eko neurketa haietan parte hartu zuten haur eta gazteak egungo helduak direla. Beraz, adinean gora joan ahala eta nork bere bizitzaren ardura hartzen duen heinean, «mundura atera» ahala, alegia, euskararen erabilera murriztuz doa, eta, aldi berean, zalantzak eta hizkuntza-txandaketak indartuz.

Eskoletan aspaldiko kezka da, erdara gero eta gehiago entzuten dela, batez ere, gelaz kanpo, jostaketa garaian eta lagunen arteko solasean. Euskarak eremu akademikoa bereganatu du, dudarik ez, baina mintzaera informala kolokan du gaur egun.

Euskalkiaren eta estandarraren arteko auzia

Bagenekien euskara estandarra finkatu ahala, hasiera batean adierazkortasun-galerak izanen zirela, zehaztasunean eta funtzionaltasunean ordura arte ezagutu gabeko gaietara iristeko. Alabaina, makina bat urte joan da horretan, eta badira behar bezain txukun egin ez diren lanak edo, hobeki egin litezkeenak, behinik behin.

Euskalkien eta estandarraren arteko auzia dugu honetan guzian oraino ere konpondu gabekoa. Uztartu ote litezke biak eskola jardueran? Edota, estandarrarentzat baino ez ote da tokia eremu horretan...?

Egun dena gainbeheran paratzeko joera indartsua oldartu da: batetik, eskolara eraman ditugun hizkera-modu asko lekuko euskaratik urruti dauden lekuko azaldu zaizkigu, antza; bestetik, eskolaz kanpoko eremuetan, euskara batuaren aurreko egoerara itzuli nahi dugula dirudi. Biak ala biak estu lotuak daude eskolak euskararen aferan erakutsi behar lukeen itxurarekin.

¹ 2021eko *Marmari*, Leitzako Euskara Zerbitzuak urtean behin argitaratzen duen aldizkaria da. Euskara Zerbitzuak berak egindako azterketatik ateratako datu eta ondorioak dira.

Nahasmen horretan bada gaizki-ulertua euskara batuaren eta estandarraren inguruan. Euskara batuaren helburua euskara komuna ezartzea da, euskalkiz haragoa, euskaldun guziek elkar ulertzeko modukoa dena, alegia. Tresna horrek Leitza, Baigorri edo Igorren balio behar luke, arau berek mugatuta idazteko, euskalkia edozein dela ere. Eta, era berean, ahozko erregistro jasoa, akademikoaren eta zientifikoaren taxukera bat bera izateko jendaurreko jardueretan. Alabaina, adierazpide horiek denboran zehar iraunen duten formak eskatzen dituzte. Beraz, usadioa sortu behar da, erabileraren poderioz finkatzen direlako eta nola-baiteko arau bihurtzen direlako askotariko testu, genero eta hizkuntza-erregistroetan.

Hori horrela izanik, bada besterik: nahasi ditugu, euskara batua, hots, estandar komuna eta euskalki baten joera nagusitik eratorritako estandar tankerakoa. Esan nahi baita, euskara batuak uste baino aukera naroagoa erakusten duela ontzat hartutako forma desberdinak erabiltzeko, eremu zabaleko euskalkietakoak baldin badira, bederik. Esate baterako, morfologiaren atalean, deklinabidean hain zuzen ere, euskalki batzuetan destinatiboaren kasu-marka *-tzat* da, beste batzuetan, berriz, *-tako/-dako*; sintaxian, denborazko perpausetan, kasurako, *-enean* forma orokorraz gainera, euskalki batzuek badute *-ela* eta beste batzuek, ostera, *-elarik* forma funtzio bera egiteko. Eta bestelako ataletan ere berdintsu.

Honetan guzian gure asmoa ez da, hortaz, tokian tokiko estandar berezi moduko bat egitea, baizik eta eskualde edo herrialde bakoitzeko hiztunentzat hurbileneko formak hobestea; alegia, Leitza batean «*gaur, ordea, ateri da*» esatea eta ez «*gaur, ostera, ateri da*», adibidez. Beti zail egin zaigu, konparazio baterako, *eltzea sutan* jartzea, gurean beti *suan jarri* esan baita, eta *sutan* egoteak, galdak hartua dela, erretzen ari dela esan nahi baitu. Are okerragoa da hori zuzendu egiten denean...

Nafarroako legera jotzen badugu, hona hemen zer dioen 24/2007 Foru Dekretuak:

XEDAPEN GEHIGARRIAK²

Lehen xedapen gehigarria: Nafarroako euskalkiak.

1. Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskualde jakin batzuetan mintzatzen diren euskalkiak irakastea eta eskolan erabiltzea sustatuko du, ikasketak euskaraz egiten dituzten edo euskara ikasten duten ikasleendako.
2. Hezkuntza Departamentuak irakasleek Nafarroako euskalkiak jakiteko prestakuntza bultzatuko du eta, halaber, xedapen honen I. puntuan ezarritakoa bete dadin behar diren ikasmaterialak egitea bultzatuko du.

Euskalkiak izan behar luke lehenetsasuna eskolatze aurreneko urteetan, hau da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehendabiziko urteetan. Beraz, goranzko bidean, ikaslea ezin abia liteke guziz arrotza egiten zaion hizketatik, ingurukotik baizik, hurbiletik eta ezagunetik. Alegia, ikasle gazteak bere komunitatean mintzatzen den euskara horretatik abiatu behar du, ezin erauz baitaiteke hartatik eskolatze bidean eragozpen afektibo-kognitiboek eragin gabe. Ikasle gazteak etxeko

² 24/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa (2007eko maiatzaren 23a, asteazkena Nafarroako Aldizkari Ofiziala.-64. zenbakia).

hizketarekin duen lokera afektiboak segida izan behar du eskolan. Azken buruko xedea ikasleak ama-hizkuntza ongi bereganatzea da adin horretan.

Horretarako, dudarik ez dena, irakasleak ere behar adinako ezagutza behar luke euskalkian.

Nolanahi ere, jokabide horrek ez du eragotzi behar forma estandarragoak edo kultura-bideetan hedatuagoak jasotzea eta pixkanaka haurraren hizkuntzan txertatuz joatea. Hizkuntza-forma berri horiek eskolako ohiko baliabideen bitartez sartuz joaten dira: kanten, ipuinen, jokoan, irakasleen mintzo-joeren eta beste askoren medioz. Hortaz, forma horiek pixkanaka txertatuz joaten dira ikaslearen hizketa-ohituretan. Arrazoi hauek guztiak direla bide, ez da harritzekoa HH bukaeran den haurrak *amaiera* edo *irteera* moduko hitzak ezagutzea eta, beharbada, erabiltzea ere bai, bere euskalkikoak ez izanagatik. Hala, euskara komun horretako zubia ezarian eraikiz joanen da, euskalkiaren beraren garai bateko izaera estua aldatu egin delako jada, euskara hedabideetara eta kultura-bideetara ailegatu denez geroztik.

Besterik da Lehen Hezkuntza, eta bereziki, irakurmen-idazmenaren sartzek dakartzan aldaketen ondoriozko egoera. Hizkuntzaren bi trebezia horiek lantzearekin batera hizkuntza formala eta akademikoa usuago ageriko da, eta hartan sakontzea beharrezkoagoa, gaiek berek halaxe eskatzen dutelako. Honenbestez, idatzizkoan ez eze ahozkoan ere estandarraren erabilerak ohikoagoa izan behar luke, zenbait generotan behinik behin; azalpen eta informazio generoetan, esate baterako. Testu mota horietan esapide eta forma finkatuak erabiltzea komeni baita.

Gauzak horrela, ikasleak ikasgelako jarduera akademikoan barneratuz joan behar du, eta, aldi berean, etxean eta ingurune hurbilean hitz egiten duen hizkera mugatua gaintutuz. Eskolak ikaslearen mintzoa landu eta aberastu behar du azalpen zuzen eta zehaztetara bideratuz. Ikaslearen hizketa behar adina bitarteko lexikoez eta gramatikalez hornitu behar du, eta, era berean, diskurtso egitura egokiak eraikitzeo antolatzaileak eskaini behar dizkio. Azken buruan, hizkera formalerantz eraman behar du eskolak ikaslea.

Gogoan izan, betiere, etapa horietako adin goiztiarrez ari garela. Bada, urratsak ongi mailakatu eta sailkatu behar dira eta helburuak argi eduki. Azken batean, gurea hizkuntza formal eta akademikora sarrera besterik ez baita. Ez hargatik axola gutxiagokoa.

Bestalde, euskalkiak bere leku berezia ere behar du komunitatearen ezaugarri seinalatua delako. Horrenbestez, ohikoa behar luke harreman informaletan, lagunartekoan, antzezpenetan, joko eta jostaketetan eta, oro har, jai giroko ahozko adierazpenetan. Beraz, esparru akademikotik at, jendarteko harremanak nor bere euskalkian mintzatuz egitea komeni da.

Zer gero?

Euskarak bizi duen egoerak, hizkuntza txikia eta gutxi(ago)tua izanik, ez du alde bakarreko aterabiderik, jakina. Halere, Nafarroako eskoletako euskararen egoera hobetzeko bidea urratuz hasi behar da eta luzaroko egitasmoa abian paratu. Egun Hezkuntza Departamentuak badu Nafarroako eskoletan Hizkuntza Proiektua egiteko asmoa. Zinez egitasmo interesgarria eta beharrezkoa. Geroak erakutsiko du

zer-nolako bilakaera izango duen, baina eskola bakoitzak berea egin aurretik, Nafarroako komunitateak berri eta egungo egoerara egokitu beharko luke euskararen normalizaziorako legedia.

Bien bitartean, ezinbestekoa da irakasle talde finkoak izatea eskoletan, luzaroko edozein egitasmo aurrera eraman nahi izanez gero.

Euskararen egoera soziolinguistikoak, hots, hizkuntza gutxi(ago)tua izateak, irakaslearen prestakuntza orokorra eta sentsibilizazio berezia eskatzen ditu. Formakuntza delakoak euskararen gaineko alderdi guzietan zuzendutakoak beharko luke izan, kanpo eta barne, zeinak atal guztiak txandaka eta ezarian besarkatuko bailituzke.

Euskara hizkuntza gutxi(ago)tua izanik, soziolinguistika eta hizkuntzalaritza arloetako zenbait kontzepturen jabe izateak irakaslearen gaitasunaren garrantzizko osagaia izan behar luke: diglosia, elebitasuna, hizkuntza gutxi(ago)tua eta antzeko kontzeptuak ziurtasunez ezagutzea (ez irudipen soilez) euskararen egoera ulertzeko ezinbestekoa da.

Hizkuntza-erregistroak eta -estiloak, besteak beste, aintzat hartzekoak dira eskolako hizkuntzaren eraikuntzan duten garrantzia kontuan hartuta.

Kalkoa, interferentzia, kode-nahasketa, kode-txandaketa eta abar, agerian ditugun gertakariak dira, eta aztertu beharrekoak.

Ildo beretik, irakaslearen formakuntzaren parte izan behar luke hizkuntzen estandarizazioaren inguruko ezagutza orokorrak. Jabetza horrek euskararena zilegitasunez janzten du, eta, aldi berean, irakaskuntzan ari denari ziurtasuna eta bermea ematen dio.

Ezin ezkutatu da irakasleen euskara maila duda-mudazkoa dela nahi baino gehiagotan. Intuiziozko ezagutza gramatikala behar du irakaskuntzan jarduten denak; hau da, euskaraz zuzen ari behar du. Hori horrela, ezagutza esplizitua ere izan behar du. Argi dago jakin beharra dela zer den gramatikala eta zer ez.

Euskarari atxikitako ezaugarri kulturalen eta usadiozkoen berri izatea eta irakaskuntzan txertatzea, baitezpadakoa da. Ezagutza komunikatibo-pragmatikoaz ari gara; hots, ez da aski hizkuntzaren zuzentasun gramatikalaz jabetzea, horretaz gain jakin behar baitira hizkuntza bakoitzak dituen erabilera-arauak.

Komeniko litzateke inarrosi bat ematea joskera atalari ere, bereziki, testuak eta diskurtsoak eratzerakoan, zama astuna baitarama «aditza beti azkenean» legepean. Jada eskolatik hasten da ikasle gaztea lege horien zurruntasuna nozitzen. Badirudi, Altube eta Azkueren ondorengo belaunaldietan joera hori nagusitu dela eta egungo euskara estandarrik horri eusten diola. Kontua da, euskarak badituela beste bide batzuk enuntziatu luzeak arintzeko.

Euskara batuaren ahoskera ere ahaztutako atala da. Gai horretan oztopo batekin topo egiten dugu: arrunt zabaldutako uste batek dionez, «euskaraz idazten den bezala irakurtzen da». Euskaraz, idazketak bere-bereak diren arauak ditu eta ahoskerak, bestalde, bereak. Maizegi ez ditugu aintzat hartzen euskararen beraren lege fonetikoak, bustidurak, sandhiak eta abar. Iduri bailuke gaztelaniazko legeak erabiltzen ari garela irakurtzerakoan edo mintzaldi formala egiterakoan (*ez da* → *ezta*, *ez badu* → *ezpadu*. . .; *ilargia* → *illargia*, *ditut* → *ditnut*, eta abar)³.

³ Ikus Euskaltzaindiaren Arautegian edo haren web-orriko *Euskara eskuz esku* sailean.

Ahoskeraren gai horretan kontu bitxi antzekoak gertatzen dira: irakasle frankok, batez ere euskal komunitatekoek, ez dituzte ongi bereizten txistukariak, *s* eta *z* igurzakariak eta *ts* eta *tx* afrikariak bereziki. Zergatik ez egin ahoskatze-arazoak dituzten ikasleekin bezala? Ikasle kanpotarrek eta oro har arazoak dituztenek ikas badezakete, ez dugu ikusten inolako nekerik irakasleek ere ahoskera zuzen horiek bereganatzeko. Betiere pentsatu behar dugu, gure lan honek hartzen duen eskualdean hagitz ongi bereizten direla hots horiek.

Aipatu beharreko azkeneko atala dugu elementu suprasegmentalena edota prosodiarena: doinuera, azentua... Nahiz eta gaia korapilatsua den, bada euskaraz mintzatzeko eta irakurtzeko berezko era erderazkoarekin zerikusi handirik ez duena. Eskola programazioetan ez dira hizkuntzaren atalok ukitu ere egiten.

Jarduera akademikoan eta beste gainerako jarduera formaletan, instituzionalean esateko, gaiari dagokion hizkuntza-maila zaintzeaz gainera, Euskaltzaindiaren arauk zuzentasun-gida izan behar dute. Begi-bistako kontua iduri du horrek; haatik, egiaztatua da ez dela hala.

Komeniko litzateke, eskolak lekuko euskalkiaren formarik nabariena irakasle berriei adieraztea. Jakina da nekez ikasiko dituztela ikasturte batean edo irakastaldi laburrean, baina halakorik ezean, ezagutu, behinik behin, egin egin behar dute, ikasleek etxetik dakarten hizkera, eta begiramenez jokatu.

Ondorioak

Nafarroako eskolen egoeraren arazo larrietako batzuk begien bistara ekarri nahi izan ditugu gainbegirada batean: egiturazko arazoak eta formakuntzazkoak, bereziki. Hizkuntza-planifikazioa, hizkuntzaren normalizazioa eta abar, soziolinguistikak ongi zehaztutako gaiak dira. Euskaraz ari behar duten irakasleek formakuntza berezia behar dute, ez direlako ari edozein hizkuntza normalizatuan, hizkuntza normalizatu ezohikoan baino. Bestaldetik, euskarak berezkoak dituen ezaugarri linguistikoak aintzat hartu ezik, normalizatu gabeko hizkuntzan ariko gara erabat.

Kontua ez da, filologoak edo hizkuntzalariak sortzea eskoletan jarduteko, baizik eta egoera honek eragiten duen erabateko tirabiran taxuz ariko diren irakasleak izatea. Egungo irakaskuntzak hausnarketa eta azterketa sakonak eskatzen ditu, hutsak atzeman eta gainditzeko.

Nolanahi ere, eskola gizartearen osagai bat besterik ez da, garrantzizkoa, dudarik gabe, baina bakarrik deus ere egiterik ez duena. Oker handia eginen genuke normalizazioaren zamarik handiena eskolaren eskuetan utzita.

D EREDUA: BILAKERA ETA ERRONKAK

Eduardo Aldasoro Lezea
Euskara teknikaria eta pedagogoa

Laburpena

Lan honetan, lehenik eta behin D ereduak zer ezaugarri dituen aztertu da: nola-koa den jabetze-prozesua, nola jarraitzen zaion hizkuntzaren garapen naturalari, eredu eleaniztuna dela eta nahitaezkoa duela pedagogia aktiboa.

Bigarrenik, D ereduaren bilakaera arakatu da, 1988-2016ko epean Haur eta Lehen Hezkuntzan izan den ereduaren bilakaerari arreta berezia emanaz.

Ondoren, gaur egungo egoerari begiratu diogu, ikasgeletako, ikastetxeetako eta Nafarroako gizarteko egoera jakin batzuk aztertuta.

Azkenik, ereduaren erronkak aipatu ditugu: eredia osatzeko eta administrazioaren lidergoa edukitzeko beharra, ikastetxeetako hizkuntza-planak, ikasleak suspertzeko premia, irakasleak eredu izatearen baldintza, eta eskola, familiak eta gizartea elkarlanean aritzeko derrigortasuna.

Resumen

En primer lugar, en este trabajo se definen las características del modelo D: cómo se produce el proceso de adquisición de la lengua, cómo se utiliza el proceso natural de evolución del lenguaje, el plurilingüismo del modelo y su necesidad de una pedagogía activa.

En segundo lugar, se analiza la evolución del modelo D, con específica atención al periodo 1988-2016 en Educación Infantil y Primaria.

A continuación, se muestran algunas situaciones de aula, centro educativo y sociedad en Navarra para examinar su situación actual.

Y finalmente, se mencionan algunos retos como el de completar el modelo, la necesidad de liderazgo de la administración, la revisión del plan lingüístico del centro, el requisito de activar al alumnado y de que el profesorado sea modelo de uso, y la imprescindible obligación de coordinación entre escuela, familias y sociedad.

Résumé

Premièrement, dans ce travail on définit les caractéristiques du modèle D d'enseignement en langue basque: comment se produit le processus d'acquisition de la langue, comment est utilisé le processus naturel d'évolution du langage, le plurilinguisme du modèle et la nécessité d'une pédagogie active dans le modèle.

Deuxièmement, l'évolution générale du modèle D est analysée, et on fait une analyse spécifique de la période 1988- 2016 dans l'enseignement maternel et primaire.

Ensuite, on analyse quelques situations de la salle de classe, l'école et la société navarraise pour voir l'état des choses actuel du modèle.

Finalement, certains défis sont mentionnés: le besoin de compléter le modèle et de l'engagement de l'administration, le plan linguistique de centre, la nécessité d'activation des étudiants, que le personnel enseignant soit le modèle d'utilisation de la langue, et le besoin essentiel de que travaillent ensemble l'école, la famille et la société.

Abstract

In this work, are defined the characteristics of D model, learning in Basque language: how occurs the process of language acquisition, how is used the natural process of language evolution, multilingualism and the need for an active pedagogy in the model.

The evolution of D model is analyzed, as well as a specific analysis from 1988 to 2016 in primary schools.

Then, we can see some situations in the classroom, the school and the society in Navarra to have a view of the current situation of the model.

Finally, some challenges are mentioned: the need to complete the model and a real leadership from the administration, the wish to activate the use of the language in the students, the obligation of the teachers to be a model of use, and the essential need to coordinate the school, the family and the society in the use of Basque language.

D eredu zer den

Eredu hau errefortzu-eredua da etxean euskaraz hitz egiten dutenendako, eta osoko murgilpen goiztiarra, euskara familia-hizkuntza ez duten ikasleendako.

Etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek, euskara hizkuntza minoritarioa izanda ere, sendotu egiten dute D ereduan, bereganatuak dituzten beste hizkuntzak ere indartzen dituztelarik.

Etxean euskara ez duten ikasleak, ordea, eskolan bilakatuko dira hizkuntzaren jabe, murgilpen prozesua baliatuta —non etxeko hizkuntza ez baita eskolako—; murgilpen hori goiztiarra da —beranduenez 3 urterekin hasita—, eta oso intentsiboa, erabatekoa. Horrek horrela behar du izan, euskarak erabateko inputa behar baitu, 3 eta 7 urte bitartean irakurketa-idazketa prozesua egiten delako, eta prozesu hori eskolan euskaraz egitea da ereduaren gako. Horrek ez du esan nahi, baina, ikasleek (guztiek) aldi berean prozesu hori beste hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo ez dutenik. Irakurketa- eta idazketa-mekanismoa bakarra da, eta ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntza guztietan erabiltzen dute.

Ikasleen errealitatea askotarikoa da, oso: batzuek euskara izango dute etxeko hizkuntza bakarra, beste batzuek, berriz, euskara eta gaztelania, edo gaztelania bakarrik, edo beste hizkuntza ezberdin batzuk konbinazio diferenteetan (bat edo bi eta gaztelania edo euskararekin partekatuta, edo ez).

Jim Cummins irakasleak, Irlandan eta Kanadan eskuratutako esperientzian oinarrituta, adierazi zuen hizkuntzen artean transferentzia hori komunikazio-gaitasun komunari esker gertatzen dela. Hots, hizkuntza bakoitzak badu bere kodea, bakoitzean diferentea dena, baina komunikazio-gaitasuna ezagutzen ditugun hizkuntza guztien dako komuna da, eta horrexek dakar konpetenzia hori hizkuntzen artean transferitzea.

Aldi berean, hizkuntza batean lortzen dugun kompetentzia-maila altua bada, horrek gure beste hizkuntzetan ere eragina du, haiek aberastuta. Ondoko grafikoa irudikatu da fenomeno hori. Jim Cumminsek esaten zuen moduan, hizkuntzak iceberg modukoak dira: ur gainean ikusten ditugun tontorrak hizkuntzak dira, baina ur azpian komunikazio-gaitasun komuna dugu. Eta horrek aipatu dugun efektua sortzen du. Irakurketa-idazketa prozesua euskaraz egiten dugu eskolan, baina, aldi berean, ikasleek ezagutzen duten beste hizkuntzan edo hizkuntzetan aplikatzen dute euskaraz ikasitakoa.

I. irudia:

Hizkuntzen arteko transferentzia



Iturria: Erkuden Aldasoro.

Bestetik, euskararen jabetze-prozesuan hizkuntzak duen garapen naturalaren bideari jarraitzen diogu. Prozesuan, lau etapa zehaztu dira. Lehenengoan, erabiltzen dugun hizkuntza konkretua da eta objektua edo erreferentea aurrean izan behar dugu ulergarria egiteko. Adibidez, ipuin bat kontatzen dugunean pertsonaiak eta erabiltzen diren objektuak aurrean izango ditugu, eta, ekintzak ulergarri egiteko, keinuez eta dramatizazioaz baliatuko gara. Bigarren fasean, hizkuntza konkretua da, baina erreferentea ez da beharrezkoa. Ipuina hainbat aldiz errepikatuta, ez ditugu erreferente horiek behar, ezagunak baitira jada. Hizkuntza aberasten joaten denez, hirugarren fasean gero eta abstratuagoa da, baina kontzeptu eta ekintza berriak aurkezteko erreferenteak behar ditugu. Eta azkenik, amaierako fasean, hizkuntza abstraktua da, eta ez dira erreferenteak behar. Hizkuntza hori formala da, akademikoa. Ikasgaietan erabiltzen duguna, hain zuzen ere. Beraz, hizkuntza ez-formaletik eta informaletik urrun gelditzen zaigu, ikasgelan ahoz-kotasuna espresuki erabiltzen ez badugu erregistro horiek lantzeko. Batzuetan ez gara konturatzen, ikasgelan erregistro guztiz formala erabiltzen dugula, eta harritzen gaitu, etxean edo gizartean euskara erabiltzeko aukera handirik ez duten ikasleek erregistro ez-formala eta informala erabiltzeko zailtasunak izateak. Ardura ez da eskolarena baka-ririk, baina elkarlana behar da afera horretan, gero ikusiko dugun moduan.

Duela berrogeita hamar urte, euskarazko irakaskuntzari berriro heldu zitzaionean, argi ikusi zen, diktadura garaiko «eskola nazionaleetako» irakaskuntza segregazionistak ez zuela balio, eta oso bestelakoa izan behar zuela euskarazko ereduak. Ikasleak oinarri

hartuko zituen irakaskuntza-eredua behar zen, pedagogia aktiboa baliatuko zuena, balio jakin batzuei helduta: neskek eta mutilek ikasgelak partekatzea, hezkidetzeta, familien partaidetzeta, gizarte-ingurunearekiko bizipenak zein natura balioestea eta abar. Alde horretatik, D ereduia aitzindaria izan da balio eta jarduera askotan.

Pedagogia aktibo hori modu diferenteetan jorratzen da: unitateetan, atazetan, sekuentzietan eta proiektuetan. Eta aipatutako balio eta funtzionatzeko modu horiek ereduaren marka izan dira.


Bestetik, D ereduia eleaniztuna da. Hizkuntza Trataera Bateratua curriculumaren ezaugarria da. Irakaskuntza euskaraz ematen bada ere, gaztelania lantzen da, baita ingelesa —era goiztiarrean— eta frantsesa ere —curriculumean integraturik edo hautazko irakasgai gisa—. Guztietan, ahozko hizkuntzaren gaitasun komunikatiboa lortu nahi da, hots, erabilera funtzionala. Kontuan hartzen dugu, bestalde, curriculum-hizkuntza horien ondoan badirela beste hizkuntza batzuk, familian erabili eta ikasleek bere dituztenak. Ikasgeletan gero eta gehiago dira bestelako hizkuntzak batzuk dituzten ikasleak: batzuetan, hizkuntza bat (errumaniera, arabiera, portugesa...), eta beste batzuetan, bat baino gehiago (arabiera eta amazigera, wolofera eta frantsesa, ingelesa eta urdua...). Gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek ere beste kultura eta tradizio batzuk izan ditzakete. Garrantzitsua da hori guztia eskolan balioestea eta integratzea.

Neurolinguistikaren alorrean egiten ari diren ikerketak erreferente hartuta, hizkuntzen funtzionamenduaz ere gehiago ikasten ari gara. Adibidez, badakigu garuneko zelulak ez direla desberdinak, ez daudela espezializatuta. Hala ere, badira garunaren eremu batzuk funtzio desberdinetan espezializatzen direnak. Hizkuntzen kasuan, espezializazio hori ezkerreko hemisferioan kokatuta dago batez ere, baina ez hor bakarrik. Gizabanako eleaniztunen kasuan, badira hizkuntza bakoitzaren eremu espezifikoak eta eremu partekatuak ere bai. Eta argi dago hainbat hizkuntza jakiteak konexio neuronalak areagotzen dituela, hainbat hizkuntza erabiltzeko behar funtzionalari erantzuten diotenak. Eta badaude, alor horretan ere, ezberdintasunak, hizkuntzen izaeraren arabera.

Donostiako Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) zentroan azken puntu hori ikertu dute:

2. irudia:

Hizkuntzen kokapena burmuinean




Iturria: Basque Center on Cognition, Brain and Language (Donostia).

Heldu elebidunekin egindako ikerketan, batzuek gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiten zuten, eta beste batzuek gaztelaniaz eta ingelesez. Eta ondorioztatu zuten, bazeudela desberdintasun funtzionalak erabilitako hizkuntzen arabera. Gaztelania eta euskara hizkuntza gardenak dira, idatzizko eta ahozko formak elkarrengandik hurbil daude. Ingelesa, berriz, hizkuntza opakoa da, eta idatzizko eta ahozko formak ez datoz guztiz bat beraien artean. Adibidez, ingelesezko /a/ letrak ahoskatzeko bederatzi modu desberdin izan ditzake. Horregatik, lotura ezberdin asko sortzen da hizkuntzen alderdi horren arabera.

Egindako ikerketek adierazi digute, hainbat hizkuntza jakiteak erraztu egiten duela norberak eskuratu nahi dituen beste hizkuntza batzuk bereganatzea. Bai lehenagoko mekanismoak erabiltzen dituelako, bai hizkuntza berriak eskuratzeko irekitasuna eta motibazioa erdiesten dituelako. Nafarroako Gobernuak egindako ikerketa batean, kasurako, ikusi da badela alderik, euskaldunek eta erdaldunek Europako hizkuntzez duten ezagupenari dagokionez. Hona hemen grafikoa:

3. irudia:

Euskaldunen eta erdaldunen harremana ingelesarekin eta frantsesarekin



Iturria: Nafarroako Gobernua, 2018.

D ereduaren bilakaera

Puntu honetan, zenbait datu emango dugu ereduaren bilakaera aztertzeko.

Euskarazko irakaskuntza ikastoletan diktaduraren garaian berreskuratu zen —Errepublikaren garaian hainbat ikastola sortu baitziren—. Bi urteko gorabeheren ondoren, 1965ean sortu zen lehen ikastola Nafarroan, Iruñeko Uxue ikastola, 13 ikasle zituela. Hurrengo bost urteetan, 348 ikasle bildu zituen. Geroago sortu ziren beste ikastola batzuk: Leitzan, Olatzagutian, Tafallan... 42 ikastola izan arte. 1982-1983ko ikasturtean, 6.130 ikaslek ikasi zuten ikastoletan.


Iruñeko udal-ikastolak 1977an sortu ziren. Guraso batzuk bildu ziren Iruñeko Gaztelu Plazan euskarazko ikastetxe publikoa eskatzeko, eta plazako arkupeetan hasi ziren eskolak ematen. Ondoren, 360 ikasle osatu zirela, zenbait lokaletan hasi ziren eskolak ematen. Arrosadian, irekitzeaz zegoen ikastetxe publikoa okupatu zuten:

halaxe sortu zen Hegoalde Ikastola. Geroago zabaldu ziren Iturramako eta Txantreako ikastetxeak.

Nafarroako Diputazioa 1973an hasi zen euskarazko eskolak ematen hainbat ikastetxe publikotan. Eta 1975ean hasi ziren irakasgai batzuk euskaraz ematen; irakasleen birziklapena ere orduantxe abiatu zen. 1979an, Espainiako Hezkuntza Ministerioarekin Elebitasun Kupoak adostu zen, euskarazko eskolak emateko irakasleen zerrenda, alegia. 1990ean jaso zituen Nafarroak hezkuntza-eskumenak.

Ikastetxe konfesionalak direla eta, Ipar-mendebaldean badira bi ikastetxe non B ereduak eskaintzen baitute. Nafarroako B ereduak, ia irakasgai guztiak euskaraz dira (hau da, gaztelania eta beste irakasgai bat izan ezik).

Hurrengo grafiko hauetan Euskal Herriko lurraldeetako ereduak proportzioak bilduta daude:



Iturria: Euskararen Adierazle Sistema, 2018.

Ez da erraza Nafarroako ereduak bilakera buruzko datuak lortzea; are zailagoa, datu horiek konparagarriak izan behar badute. Hori dela eta, grafikoan agertzen diren urteetara eta Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetara mugatu behar izan ditut. Eskolatzeko datuak aldakorrak dira, noiz biltzen diren kontuan hartu beharreko aldagaia da. Hala, ez baitira gauza bera aurrematrikula-garaiko datuak —halakoak gurasoek egiten duten hasierako aukerari baitagozkio—, irailakoak —guraso batzuek orduantxe matrikulatzen baitituzte seme-alabak— edo urrikoak —behin betiko matrikula egin ondokoak—. Azken horiek aukeratu ditut, fidagarrienak direlakoan. Bestetik, gogoan hartu behar da, zenbait urtez hezkuntza-administrazioak Erribera aldeko ikastola batzuei buruzko datuak ez zituela zenbatu, eta hori ere zuzendu behar izan dut.


Hurrengo grafikoan, Nafarroako ereduak batez besteko ehunekoak ageri dira. Gaztelaniazko ereduak bereizita daude. Gero, bereiz jarri ditut ingelesa indartzeko programen datuak ere; izen desberdinak izan dituen programa (British, TIL eta, azkenik, PAI) ez da berez eredu bat, baina besteetatik banandu nahi izan dut izan duen eragina adieraztearren.

D ereduak ikasleen % 13,34 zeukan 1988-1989 ikasturtean, eta 2013-2014 ikasturtean goia jo zuen, % 27,66ekin. 2016-2017koan, % 27,47 lortu zuen Haur eta Lehen Hezkuntzan. Ondorengo urteetan gorabehera txiki batzuk izan ditu, eta orain egonkortuta dagoela esan daiteke.

A ereduak gorabehera handiagoak izan ditu, eta hartan nabarmenagoa da ingelesa indartzeko programaren eragina. 1988-1989 ikasturtean, ikasleen % 5,48 zuen; 2000-2001 ikasturtean goia jo zuen, % 26,33rekin, eta 2016-2017koan % 20,44 lortu zuen. Etengabe egin du behera azken urteotan.

5. irudia:

Hezkuntza ereduaren garapena Haur eta Lehen Hezkuntzan (Nafarroa)




Iturria: Eduardo Aldasorok osatua, Hezkuntza Departamentuak eta NIEk emandako datuekin.

Gaztelaniazko irakaskuntzak ikasleen % 81,18 zeukan 1988-1989 ikasturtean, % 47,01era jaitsi zen 2000-2001ean eta 2016-2017 ikasturtean % 52,09ra igo zen ingelesezko programari esker, ikasleen erdiak baino gehixeago berreskuratu zituelarik.

Esan bezala, aurrematrikulari buruzko datuek gurasoek egindako aukera adierazten dute. Ez da behin betiko matrikula, baina Hezkuntza Departamentuak datu horiek dituenek, adierazgarriak izan daitezke D ereduaren nola egonkortu den ikusteko. Urte urte gorabehera batzuk izan baditu ere, ez dira oso nabarmenak. Hona hemen grafikoa:

6. irudia:

D ereduaren aurrematrikula 3 urte



Iturria: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.

Nafarroako eremuei begiratuz gero, datuen batezbestekoak nabarmen aldatzen dira. Ipar-mendebaldean D ereduaren ehunekoak altua da, % 90etik gorakoa. Erdialdean, batez beste % 29koa da, eta Hegoaldean, % 5,5koa besterik ez.


Gaur egungo egoera

Atal honetan, Nafarroako gizartearen zenbait ezaugarri aztertuko ditugu, eta D ereduan nolako eragina duten.

Hasteko, euskararen ezagutza Nafarroan aztertuko dugu. Nafarroako Gobernuak 2018an egindako ikerketaren arabera, 16 urtetik gorako biztanleen % 14,1 euskaldunak ziren, eta % 8, euskaldun hartzaileak.

7. irudia:

Euskara gaitasuna. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: Nafarroako Gobernua, 2018.


Datu horiek hobera jo dute, 1991n egin zen lehen neurketatik hona. Urte hartan 16 urtetik gorako biztanleen % 9,5 euskaldunak ziren, eta % 4,6, euskaldun hartzaileak.

8. irudia:

Euskara gaitasunaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2018

	Euskaldunak (%)	Euskaldun hartzaileak (%)	Erdaldunak (%)	Guztira (Absolutuak)
1991	9,5	4,6	85,9	519.277
2016	12,9	10,3	76,8	640.647
2018	14,1	8,0	77,9	647.554


Euskaldunen bilakaera. Nafarroa, 1991-2018



Iturria: Nafarroako Gobernua, 2018.

Beste datu esanguratsu bat demografia da, populazioaren bilakaera, alegia. Nafarroako populazioa Iruñerrian metatzen ari da. Aldi berean, populazioa zahar-tzen ari da. 35 urtetik beherakoak gutxiago dira. Gaur egungo jaoitza-tasa 1,4 da, baxua, eta populazioa mantentzeko, 2,1 haur behar da emakumeko.

9. irudia: Nafarroako demografia



Iturria: Euskararen Adierazle Sistema, Nafarroako Gobernua, 2018.

Hizkuntzei dagokienez, Nafarroan badira bertakoak ez diren beste hizkuntza batzuetan mintzo direnak, 50.000tik gora hiztun. Uste da 100 hizkuntza baino gehiago izan daitezkeela Nafarroan hitz egiten diren hizkuntzak.

Nafarroako Gobernuak, Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, Covid-19aren aurkako txertoa jasotzeko jarraitu beharreko urratsak zehazteko kartelak, atzerriko zortzi hizkuntzatan egin zituen (arabiera, txinera, frantsesa, ingelesa, portugesa, errumaniera eta errusiera).

Nafarroako biztanleen maila akademikoan, bestalde, ezberdintasun handiak daude. 25 eta 34 urte bitartekoetan, % 48k ditu goi mailako ikasketak, eta % 25ek, berriz, ez du batxilergo-titulurik.

Ikasle-kopuruak behera egin izanak ikastetxeen arteko lehia handia sortu du azken urteotan. Ikastetxeen proposamenetan era guztietako eskaintzak ikus daitezke: hizkuntzak, teknologia, ikasteko metodo berritzaileak, eskolaz kanpoko ekintzak, jangela eta autobusa...

Nafarroako Foru Komunitatea —% 19,4 duela— hirugarrena da gastu handiena egiten duten erkidegoetan, itunpeko irakaskuntza finantzatzera zuzendutako hezkuntza-gastu publikoari dagokionez.

2016-2017 ikasturtean, 307 ikastetxe zeuden Nafarroan, eta horietatik 72 itunduak ziren. Itunpeko ikastetxeetan eskolatutako ikasleen ehunekoa % 37,56 zen.

Eskolak, gaur egun, gizartearen presio handia pairatzen du. Ematen du, eskolaren ardura direla konpondu beharreko arazo guztiak. Gero eta sinestuago dago

gizartea, garai batean familiarenak eta gizartearenak ziren ardurak eskolak berak bere gain hartu behar dituela. Euskararen erabilerak ere —ez ezagutzak soilik— eskolaren bizkarretik bermatu behar duela uste da.

Baina ikasleek, gehienez, denboraren % 15-% 20 ematen dute eskolan asteko ordutegian. Eta ikasleok ikastetxean jasotzen duen *input* linguistikoa oso garrantzitsua eta esanguratsua izan arren, eskolan jasotako horrek ezin du euskararen erabilera bermatu. Ezinbestekoa da beste gizarte-eremu batzuetan, familian zein inguru hurbilean, euskara erabiltzeko espazioak edukitzea. Familiek, euskara etxeko hizkuntza ez dutenean ere, euskarazko erabilerak eta jarduerak beregana ditzakete, eta beharrezkoa da ingurunean hizkuntza erabiltzeko espazioak egotea, euskara erabiltzeko aukera nahikoa izan dezaten.

Erronkak

Atal honetan ereduak dituen erronkak aztertu nahi ditut banan-banan.

1.- Hasteko, esan beharra dago D ereduak ez dagoela erabat osaturik. Ez dago bermatuta hezkuntza maila guztietan.

Haur Hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte) ez dago oraingoz ziurtatuta eskaintza unibertsala, eta hezkuntzako etapatzat jotzen bada ere, ez dago Hezkuntza Departamentuaren esku. Bestetik, maiz —adibidez, Iruñean— aski zaila da 0-3 urteko etapan D ereduak ikaspostu edo plaza lortzea etxetik hurbil.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aukera zabalagoa da, baina ez da ahaztu behar, Erriberan D ereduak ikasteko aukera duela ikasturte gutxi abiatu zela. Eta momentuz ez dira asko aukera hori eskaintzen duten ikastetxeak: beraz, guraso batzuei D ereduak aukeratzeak anitz joan-etorri luze egin beharra dakarkie.

Batzilergoan, antzeko arazoa dute Pirinioetako eta Erriberako ikasleek: D ereduak jarraitzeko, hamaikatxo joan-etorri luze egin behar izaten dute.

Lanbide Heziketan, zikloen % 4 soilik eskaintzen da euskaraz, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan, kredituen % 9,1 egiten da euskaraz. NUPek aurkeztu berri duen planaren harira iragarri da, euskarazko eskaintza ugarituko dutela bertan. Nafarroako Unibertsitate pribatuan ez dago euskarazko eskaintzarik.

2.- Ezinbestekoa da, bestalde, Administrazioaren lidergoak D ereduak sendotu eta hedatzeko. Hezkuntza Departamentuak ez du inoiz ere plan estrategikoa bat proposatu helburu horrekin. Nafarroako Gobernuak Euskarabidearen bizkarrera egotzi du D ereduaren berri emateko eta sustatzeko erantzukizuna.

Administrazioaren lidergoaren garrantzia nabarmena da Euskal Herriko D ereduaren zabalpen-proportzioaren irudian, non argi ikusten baita, Administrazioaren konpromisoa zein lurraldetan izan den handiagoa eta zeinetan txikiagoa. Adibide bat ekartzearren: Juan Kruz Alli Nafarroako lehendakaria zela, urte haietako batean D ereduaren aldeko adierazpena egin zuen, eta adierazpen hori ereduari buruzko banatu zen liburuxkan agertu zen. Jakina, haren alderdian hautsak harrotu ziren, baina ikasturte hartako D ereduaren % 5 igo zen aurrematrikula. Urte hartakoa guztiz ezohikoa izan zen D ereduaren bilakaera orokorrean.

3.- Eskolak baditu ereduak berritzeko erronka handiak, eta hasteko, indar berria eman behar zaio Ikastetxearen Hizkuntza Planari. Halako plan baten helburu

nagusia da, proiektu orokor bat bultzatzea eta babestea, ikastetxeko curriculum-hizkuntzen zein curriculumaz kanpokoan komunikazio-gaitasuna hobetzeko. Planean, arlo eta irakasgai guztietako irakasleek parte hartu behar dute, ikastetxeko zuzendaritzaren gidaritzapean, ikastetxeko jarduera esanguratsu guztiak ere planifikatuta. Planak, arraskatatsua izango bada, etengabeko jarraipena behar du, eta horretarako ikasturte bakoitzerako proposatzen diren helburuek egingarriak izan behar dute. Bestetik, ebaluazioa ezinbestekoa da, noraino bete den proposatutakoa egiaztatzeko, nola egin den, zer emaitza lortu dugun eta zer hobetu behar dugun aurrerantzean. Hori guztia inkestak edo erregistroak baliatuta egin daiteke, planaren eginkizunak gehiegi ez konplikatzen.

4.- Ereduaren eleaniztasuna ere birpentsatu, berrerratu beharra dago. Wallace Lambertek, Kanadako ereduak aztertuta, honako honetaz ohartarazi gaitu: «Murgilpen-programetan, berez, eleaniztasuna ibilbide elebkarreko irakasgaien bidez gartzten da, hizkuntzak elkarrengandik isolatuta daude, ez dira elkarrekin erabiltzen eta ez dago hizkuntzen arteko transferentziarako irakaskuntza aktiborik». Lambertek dio, beraz, ez zaiela behar bezalako etekinik ateratzen ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzei. Gurean, zenbait jardueratan hizkuntzak txandakatzen edo osatzen dituzten esperientziak landu dira: ikasleek ez dute arazorik hizkuntzen txandakatzeko horretan, eta gainera oso motibagarria da.

5.- Curriculum-hizkuntzez gain, ikasleek beste hizkuntza batzuk ezagutzen dituzte, eta horiek ere landu beharra dago. Immigrazioa erabat hazi da, eta horrek badu bere eragina eskolan ere. Ikasle berriek askotariko jatorriak dituzte, askotariko hizkuntzak eta kulturak, eta beraien egoera sozioekonomikoak ere askotarikoak dira. Eskolatzea hasita dagoenean etortzen direnek arreta berezia beharko dute hainbat urtetan zehar, hemengo hizkuntzak ezagutzen ez badituzte. D ereduari, egia esanda, ez da oso ohikoa egoera hori: izan ere, ikasleak beste ereduera bideratzen dituzte maiz. Baina gizarte kohesionatua eraiki nahi badugu, erronka horri aurre egin behar diogu. Harrera-plan sendoa behar dugu txikitatik D ereduari eskolatzen diren ikasle eleaniztun horiendako, non beraien jatorrizko hizkuntzei balioespena eta begirunea eman behar baitizkiegu. Haien hizkuntzak eta kulturak kontuan hartu eta curriculumean sartu behar dira. Onurak handiak izango dira: hizkuntza horiek balioetsita, bultzada emanen diogu ikasleek eta familien autoestimuari, onartuago sentituko dira; horrek eragin positiboa izango du ikasketetan eta hizkuntzak jabetzeko prozesuan eta, ikasleak eta familiak gizartean integratuko dira, asimilatuko izan beharrean.

6.- Eskolak baditu beste erronka batzuk ere: hezkidetzak, eskola-jazarpenaren aurkako planak, trantsizio ekologikorako planak eta abar.

Bestalde, irakasle guztiak izan behar dute «euskara irakasle», ez Euskal Hizkuntza eta Literaturakoek soilik, eta ez Euskara irakasgaia lantzean bakarrik. Horretan, hizkuntza-koherentzia izan behar dugu. Argi izan behar dugu zer ematen dugun eta zer eskatzen dugun. Muturrera eramanda: ikasgelan irakaslea bada hitz egiten duen bakarra, klase magistrala ematen badu, ez da harriztekoa izango, ikasleek gai bat azaltzeko gaitasun akademikorik ez edukitzea. Eta zer esanik ez gaitasun komunikatiboaz...

7.- Ahal den neurrian, irakasgai guztietan landu behar dituzte hizkuntza formala zein ez-formala ikasleek. Ahozkoitasuna landu behar dugu: eztabaidak egin behar dira, aurkezpenak, kontaktak, narrazioak, rol-jokoak, irratien emanaldiak...

8.- Horrez gain, ikasleak aktibatu behar ditugu beraiengan kontzientzia sozio-linguistikoa piztuta. Askotan antzeman diegu ikasleei, beraien euskararekiko pertzepzioa euskara irakasleen hizkuntzarena baino ez dela, ikastetxean egiten denaren pertzepzio hutsa. Bultzatu egin behar dira hizkuntzaren balioaren pertzepzioa eta hizkuntzarekiko identifikazioa. Baina hori egiteko, ez dira terminoak irakatsi behar —zer den disglosia, zer hizkuntza minorizatua edo hizkuntza-plangintza—, eta are gutxiago halakoak ikasleei ikasgaraztea. Egokiagoa da, ariketa dinamikoen bitartez norberaren hizkuntza-biografia lantzea, eta hizkuntzarekiko sentipenak agerraraztea. Eredua dugu EIBZ errekurtsio zentroan landutako MSB materialean. Orokorrean esan daiteke, zentzu afektiboa eman behar diegula edukiei, ikasleengan sentazioak eta oroitzapenak pitz daitezten: ipuinak, kankak, txangoak, emanaldiak, bizipen pertsonalak eta abarrak baliatuta.

9.- Metodologia aktiboa izan behar du. Ikasleak izan behar du irakaskuntzaren subjektua. Artikulu honen hasieran esan bezala, metodologia aktiboa izan da D ereduaren marka hasiera-hasieratik, eta horretan sakontzen eta gaurkotzen segitu behar dugu.

10.- Eskolak lotura handia izan behar du familiarekin eta gizarte hurbilarekin.

Kontua da, eskolaren eta familien artean parte hartzeko eta komunikatzeko bideak sustatzea, eta hori D ereduaren bereizgarria izan zen, hasieratik eredu irekiagoa eta parte-hartzaileagoa izan baitzen. Gurasoen inplikazioak ikasleen hezkuntzan ikaskuntza errazten duela erakutsi dute azterlan batzuek. Euskaraz ez dakiten familietan ere, ikasleak egiten duen lanarekiko interesak onarpena eta balorazio positiboa sortzen ditu, eta horrek ikasteko motibazioa sustatzen du. Ikerketa horietako batean, konparazio baterako, ikasleek ipuin bat irakurri behar zieten gurasoei, eta nahiz eta gurasoek ipuinaren hizkuntza ez ezagutu —ikastetxeko irakaskuntza-hizkuntza— nabarmen hobetu zen ikasleen irakurtzeko gaitasuna.

Hizkuntza-murgilketako ikasleen kasuan, elkarlana familiekin garrantzitsua da oso, horrek euskara erabiltzea erraztuko duten hizkuntza-erabilera esparruak aragotzen baititu. Horren haritik, aipagarria da Nafarroako toki-entitateetako euskara zerbitzuek sortutako ERA proiektua, non helburua prestakuntza eta informazioa eskaintzea D ereduko ikasleen familiei baita.

Eta garrantzi handikoa da, halaber, eskolak bere gizarte-ingurunearekin duen harremana lantzea, elkarren arteko ezagutza erraztuko duten ekimen, ekintza eta jardueretan lagunduz eta euskararen erabilera indartzeko elkarrekin lan eginez. Horretarako, jarduera komunitarioak egin daitezke, eta eguneroko erregistro ez-formalean hizkuntza erabiltzeko eta orokortzeko espazioak sortu.

Ondorioak

Laburbiltzearen zera esango dut, D ereduak hasieratik izan dituen ezaugarriak heltzen jarraitu behar duela, adibidez, pedagogia aktiboari, ingurunearekiko eta naturarekiko konpromisoei, elkarlanari, familiekin zein gizartearekin, ikuspegi partizipatiboari, hezkidetzari eta balio integratzailei.

Eta tradizio horri oratuta, eleaniztasuna jorratzeko ikuspegi berrietara jo behar du, curriculum-hizkuntzak nahiz curriculumetik kanpokoak landuz eta beraien arteko transferentzia dinamikoiari bide emanez, hizkuntzen komunikazio-gaitasunak

eskaintzen dituen abantailak aprobetxatuta. Horrela, gaur egungo gizartean sortutako erronkei erantzun ahal izango die, besteak beste, migrazio-mugimenduek dakartzatenei, gizarte integratuagoa eta orekatuagoa gauzatze aldera.

Eta, aurrekoarekin batera, ezinbestekoa da erakundeek, administrazio publikoek D eredia bultzatzeko lema eskuetan hartzea eta gobernatzea, eredu eleaniztuna, partizipatiboa, integratzailea eta guztiei irekia den heinean, ezaugarriok indartzeko asmoan.

Bibliografia

- ALDASORO, E. (2003). «Euskararen irakaskuntza Nafarroan». *Eleria aldizkaria*, II: 47-51. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- BIAIN, I. (1996). «Murgilketarako irakaslearen eginkizuna komunikazio-elkarrekin-tzetan». *Jakingarriak*, 32: 46-53. Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.
- CENOZ, J., GORTER, D. (2017). «Minority languages and sustainable translanguaging: threat or opportunity?». *Journal of multilingual and multilingual development*, 38: 901-912. London: Routledge.
- CUMMINS, J. (2001). «¿Qué sabemos de la educación bilingüe? Perspectivas psicolingüísticas y sociolingüísticas». *Bilingüismo y Educación. Revista de Educación*, 326: 37-62. Madrid: Ministerio de Educación.
- (2014). «Rethinking pedagogical assumptions in Canadian French immersion programs». *Journal of immersion and content-based language education*, 2, I: 3-22. Amsterdam: John Benjamins P.C.
- ERA webgunea. *Belaunaldi berrien aukera. Nafarroako Euskara Zerbitzuak*. <https://eranafarroa.eus>
- FUNDACIÓ BOFILL. *Educació per canviar-bo tot*. <https://fundaciobofill.cat>
- GENESE, F., LAMBERT, W., HOLOBOW, N. (1986). «Adquisición de la segunda lengua mediante inmersión: el enfoque canadiense». *Infancia y aprendizaje*, 33: 27-36. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje.
- GROSJEAN, F., PAVLENKO, A. (2021). «Life as a bilingual». *Psychology Today blog*. https://www.francoisgrosjean.ch/blog_en.html
- KASARES, P. (2013). *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta bizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- LAMBERT, W. (1971). «An experimental french school for english children». *ITL International Journal of Applied Linguistics*, II: 25-30. Montreal: McGill University.
- LOPEZ-GOÑI, I. (2002). *Nafarroa garaiko ikastolen historia 1963-1982*. Leioa: EHU.
- OLASAGARRE, Y., MUGERTZA, E. (2015). «Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa». *BAT aldizkaria*, 96: 69-101. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- OLIVER, M., CARREIRAS, M., PAZ-ALONSO, P. (2017). *Functional dynamics of dorsal and ventral reading networks in bilinguals*. Donostia: Basque Center of Cognition, Brain and Language BCBL.
- SOTES, P. (1997). *La comunicación profesor/a-alumnos al comienzo de un programa de inmersión al euskara*. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- VILA, I., SIGUAN, M. (2014). *Multilingüisme y Educació*. Barcelona: Universitat Oberta de Catalunya.

- VILA MENDIBURU, I., BOADA, H., SIGUAN, M. (1982). «Adquisición y desarrollo del lenguaje en bilingües familiares: primeros datos de una investigación». *Infancia y aprendizaje*, 19-20: 89-99. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje.
- ZABALETA, F. (1994). *Bigarren bizkuntzaren irakaskuntza murgilpen-ereduan*. Leioa: Zubia Editoriala.
- ZENBAITEN ARTEAN (2011). *Ikasleak Hiztun: Arrue proiektua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

NOLA KUDEATU ELEANIZTASUNA ESKOLAN. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA

Maite Gorospe Lizaso
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko
Euskararen Sustapen eta Didaktikarako bulegoko burua

Marisa Zubiri Argiñaritz
Euskara aholkularia

«Eleaniztasuna eskolan» gaiari heltzeko, deus baino lehen, Steinerren eta Ladjaliren aipu batekin hasi nahiko genuke:

Eskola hizkuntzari erreparatuz, gune bitxia da oso. Bertan nahasten dira hizkuntza ofizialak, pribatuak, eskolakoak, familiarenak, atzerrikoak, eskolako argota, hiriko argota.

Elkarrekin bizi diren hizkuntza guztiei erreparatzean, iruditzen zaigu eskola izan daitekeela behar bada, toki bakarra non hizkuntza guztiek topo egin ahal duten haien aniztasun eta gainezarpeneren barruan. Baina adi egon behar dugu eta probestu behar dugu aniztasun eder hori. (Steiner and Ladjali, 2003)

Sarrera

Gu D ereduiko ikastetxeetan zentratuko gara eta argi dugu helburua ikasle eskaldun eleaniztunak heztea dela. Horregatik, lehenik eta behin, euskara indartu eta, batez ere, erabilera sendotu egin behar dugu, eta hau bermatuta, beste hizkuntzak menderatzeko tresnak garatu.

Nahi dugun eta bilatzen dugun eleaniztasuna gehitzailea da, eta, euskararen egoera diglosikoa dela eta, hori lortzeko elebitasun funtzionalak altua izan behar du. Horregatik eta horretarako, ikastetxeetan eta komunitate osoan, lehenitasuna eman behar zaio gutxitua den hizkuntzari, euskarari hain zuzen ere. Hau izanen baita eleaniztasun aberasgarri, positibo eta gehitzailea lortzeko modu bakarra.

Bide honetan, hizkuntzen arteko koordinazioa, trataera bateratua eta eleaniztasuna eta aniztasunaren sustapena interes estrategikoko helburuak dira, Nafarroako hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzen laguntzen dutelako hizkuntza komunikazioaren alorrean. Helburu hauek guztiak jasotzen dituen dokumentua, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua (IHP) da.

2018-2019 ikasturteko hasierako jarraibideetan IHPari ekiteko agindu zitzaizen Nafarroako ikastetxe publiko nahiz hitzartu guztiei. IHP egiteko prozesua arautzen duen Foru Agindua 2019ko martxoan sartu zen indarrean. 16/2019 Foru Agindua da, eta bertan Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 22. artikulua aipatzen da. Europar Batasunak azpimarratzen du kultura eta hizkuntza aniztasuna

errespetatzen dituela eta aniztasun hori ezinbestekoa dela Europako proiektuaren eraikuntzan.

Europar Batasuna aipatu dugu eta, ezinbestean, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaz jardun behar dugu, apur bat bada ere:

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak hizkuntzak ikasteko eta irakasteko irizpideak eta orientabideak finkatu ditu, eta horrek bultzada eman diezaioke euskarari, baldin eta era egokian aplikatzen bada.

Europako Erreferentzia Marko Bateratuak hizkuntzak, curriculumari dagozkion orientabideak, azterketak, eskuliburuak eta abar lantzeko oinarri komuna ezartzen du Europa osoan.

Era berean, hizkuntzaren menderatze mailak finkatzen ditu, eta horien bidez ikasleak egin duen aurrerapena neurtzeko aukera ematen du.

Markoa oinarri bateratua da eta, hizkuntza komunikazio tresna izanda, ikasleek zer ikasi behar duten deskribatuko du. Autoebaluaziorako tresna ere zehazten du: Portfolioa.

Honetaz gain, hizkuntzen pasaporteak deitzen dena ere zehazten du, pertsona bakoitzak hainbat hizkuntzatan duen ezagutza maila jasoko duen pasaporteak eta Europako edozein herrialdetan balioa izango duena.

Oso tresna interesgarria, hizkuntza guztietan nolabaiteko homologazioa lortzen delako. Honako hiru irizpideren arabera finkatzen da:

1. Komunikazio jarduerak.
2. Estrategiak.
3. Komunikazio gaitasuna.

Eta irizpide hauen arabera hiru erabiltzaile mota sailkatzen dira:

1. Oinarrizko erabiltzailea.
2. Erabiltzaile independentea.
3. Erabiltzaile gaitua.

Kontuan izan behar dugu, halere, Europar Batasunak egiten dituen gomendioak estatuetan oinarriturik daudela, eta hori ez zaiola gure errealitateari lotzen, bereziki euskarak izaera ofizialik ez duen Nafarroako bi eremu linguistikoetan: eremu mistoan eta ez-euskaldunean, hain zuzen.

IHP. Esku-hartze eremuak

IHPari itzuliz, esan behar dugu D ereduko ikastetxeak ez zirela hutsetik abiatzen. Ikastolek urteak daramatzate Hizkuntza Tratatua Bateratua lantzen, eta duela urte batzuk zenbait ikastetxek ere Ulibarri Programan parte hartu zuten, euskararen normalizazio eta sustapenean urratsak egiteko asmoz. Horregatik, ikastetxe batzuek IHP sortu beharra eduki izan arren, beste batzuek egokitu egin dute egina zutena.

Hau guztia garatzeko dokumentuan jaso beharreko puntuak, batzordearen osaketa, proiektua egiteko epea eta gainerakoak lehen aipatu dugun I6/2019 Foru Aginduan zehazten dira.

Esku-hartzeko eremuei dagokienez, hiru nabarmenduko ditugu:

Eremu pedagogikoak curriculum-arloa eta beste batzuk biltzen ditu: curriculum-arloan curriculum, irakasgaiak, irakasleen prestakuntza, gelako harremanak eta ikasmaterialak daude. Gainerako arloetan: jostaldiak, jantokiak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar.

Eremu instituzionala eskolaren antolaketari dagokiona da, eta bertan barne komunikazioa eta kanpoko harremanak bereiz ditzakegu:

- Barne komunikazioan langile guztiek daukaten hizkuntza profila sartuko litzateke, gure ikastetxeko hizkuntza paisaia nolakoa den: hizkuntza guztiek bere tokia daukaten ikastetxean, euskarari lehentasuna ematen diogun eta abar.
- Kanpoko harremanetan (administrazioa, familiak, auzoko kolektibo edo beste entitate edo erakunde batzuekin ditugun harremanak...): Nola egiten dugu? Beti euskaraz egiten dugu lehen hitza? Idatzizko dokumentuetan saiatzen gara beti euskaraz ere egon daitezen?

Eremu komunitarioa auzoa edo herria da. Hausnartu behar genuke eta pentsatu zer aukera dituzten gure ikasleek eskolaz kanpo ikastetxeko hizkuntzak erabiltzeko. Eskolan erabiltzen dituzten hizkuntzak beraien aisialdian eta inguru naturalean daude? Bai? Zer neurritan?

IHP. Ardurak eta egitura

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ardurak komunitate osoarena izatea ezinbestekoa da. Praktikan, hala ere, zuzendariek eta klaustroek izanen dute pisurik handiena, Hizkuntza Batzordea irakasleek osatzen dutelako.

Lehen aipatu dugun bezala, Hizkuntza Batzordearen osaketa I6/2019 Foru Aginduan zehazten da:

- Hizkuntza koordinatzailea.
 - Zuzendaritza taldeko ordezkaria.
 - Arlo, etapa eta hizkuntza guztietako irakasle bana.
 - Bigarren Hezkuntzan, Hizkuntza mintegiko arduradun bana.
1. **Sarrera:** IHP prestatu eta berrikusi beharra labor azaldu: Ikusten dugu HParen beharra? Zergatik egin behar dugu? Zertarako? (Hizkuntza trataera integratua bermatzeko, ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko eta beste).
 2. **Egoeraren analisia:** Ikasleen eta ikastetxearen hizkuntza egoera deskribatu, eta datuak bildu beharko dira. Analisi hori puntu hauetan islatuko da:
 - Ikastetxearen eta bere ingurunearen ezaugarriak.
 - Ikastetxearen hizkuntza ibilbidea.

- Bertako eta atzerriko hizkuntzen erabilera eta presentzia ikastetxean.
- Barneko eta/edo kanpoko ebaluazio emaitzen eta hobetzeko proposamen analisia.

3. Ikastetxearen hizkuntza helburuak

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren printzipioak dira, hizkuntzei dagokienez.
- Antolamendu eta didaktika-metodologia mailako helburuak, barne direla irakasleen koordinazioa, hizkuntzen trataera integratua eta ikasleen hizkuntz aniztasunaren sustapena.

4. Ikastetxearen hizkuntza planteamenduan

- Antolamendu mailako neurriak ditugu: irakasleen koordinazioa, hizkuntza/areak asteko ordutegian banatzeko era, eskolaz kanpoko jarduerak eta osagarriak, etab.
- Ikasleen eskolarako sarrera berantiarrak gertatzen direnean ikasmailetan errazteko antolamendua eta metodologia.
- Ikastetxeak etapa eta/edo maila bakoitzean erabiliko duen metodologia, markatutako hizkuntza helburuak lortzeko.
- Hizkuntzekiko sentsibilizazio eta errespetu jarrerak garatzea.
- Irakasleak hizkuntza-gaietan trebatzea.

5. **Plan estrategikoa:** bertan zehaztuko dira egin beharreko jarduerak, kronograma eta arduradunak.

6. **Ebaluazioan** Hizkuntza Batzordeak eta hezkuntza komunitateak hizkuntza helburuen lorpen mailak ebaluatuko dituzte.

IHP. Garapena eta baliabideak

Hau guztia garatzeko, D ereduko ikastetxeetara laguntza edo aholkua eskainiz, Hezkuntza Departamentuak bi formakuntza modalitate prestatu ditu azken ikasurte hauetan: lantaldeak eta mintegiak.

Lantaldea da autonomia maila gorena duen prestakuntza modalitatea. Aurten proposatutakoa «Ikastetxeko hizkuntzen planteamendu integralaren diseinua» da, IHParen diseinuan laguntzeko eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko aholkularien jarraipena eta ikuskapenarekin.

Prestakuntza hau hizkuntzen tratamendu integraturako, haien koordinaziorako eta baita eleaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren sustapenerako da, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzen eta hobetzen lagunduko duten jarduerak bultzatzeko. Honez gain, noski, ikastetxeetan antzemandako beharretatik sortzen diren beste eduki batzuk ere badute tokia lantaldeetan.

Mintegi formatuan, «Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua diseinatzeko eta inplementatzeko irizpideak eta tresnak» (Mondragon Unibertsitatea, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea), Karmele Perez eta Aitor Errazkin irakasleen esku.

Bi urteko ibilbidea dauka mintegi horrek (hau hirugarren ikasturtea dute), eta bere helburua da D ereduko ikastetxei laguntzea IHP diseinatzen eta implementazioarako irizpideak finkatzen. Emandako irizpide eta tresnekin HParen txostena idazteko eta prozesua ikastetxean adosteko aukerak proposatu eta landu dira.

Lehen urtean ikastetxeko hizkuntza unibertsoren eta trataeraren diagnostikoa egin zen.

Bigarren urtean eremu pedagogikoa aztertu, erronka estrategikoak identifikatu eta plan estrategikoa proposatu zen.

Aurten (hirugarren urtean, 2021-2022an), bi helburu nagusi dituzte:

- IHParen txostena amaitzeko eta entregatzeko tartea eskaintzea.
- Implementazioa abiatzea eta egituratzea.

Helburu horiekin, azken bi ikasturteetan abiatutako lana amaitzeko eta proiektuetan proposatu duten bidearen garaia abiatzeko aukera eskaini nahi zaie ikastetxei.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak dokumentu dinamikoa eta bizia izan behar du; horregatik zenbait tresna eta baliabide bereziki erabilgarriak dira: testuen mapak, kronogramak eta eguneratu edo beharren arabera erraz egokitzeko aukera ematen duten dokumentuak.

Mondragon Unibertsitateak prestatutako taula hau datuak jasotzeko erabiltzen dugu. Eredu hau egiteko oinarri gisa, Euskal Herriko Ikastolen Hizkuntza Proiektuarena erabili da. Bertan agertzen dira lehen aipatu ditugun hiru esku-hartze eremuak, eta ikastetxeek osatu behar dituzte dauzkaten erronkak eta helburuak zehaztuz eta, batez ere, hauek lortzeko diseinatu eta garatuko dituzten ekintza estrategikoak adieraziz.

I. irudia:

Hizkuntza-jardueren plan-estrategikoa: Mondragon Unibertsitatea

EREMUAK		Esku hartzeak	Erronkak/helburuak	Ekintza estrategikoak	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024	
E R E M U P E D A BARRUKA	Hizkuntzen erabilera eta jarrera	Sosiolinguistiko gaien lanketa	-	-					
		Palais linguistiko	-	-					
		Amiztasunen tratalera	Harrera plana	-	-				
	Hizkuntzen pedagogia	Hizkuntzen ordu kopuruak	-	-					
		Hizkuntzen tratalera	bideratua	-	-				
		Hizkuntza eta arloen arteko uztartzea	-	-					
		Ahobiotasana erdigunera	-	-					
		Elkarrekinza erdigunera ekarri	-	-					
		Euskararen tratalera	-	-					
		Ikasmaterialak	-	-					
			-	-					
		Proiektu sagarriak	Trakurtza plana	-	-				

Eremu pedagogikoa

Gela barrukoa

- Hizkuntzaren pedagogia: hizkuntzen ordu kopuruak, HTB, Hizkuntzen eta arloen arteko uztarketa, ahozkotasanari eta elkarrekintzari ematen zaien lekua, ikasketa materialen berrikusketak, euskalkiari eman behar zaion trataera (euskalkia daukaten tokietan).
- Hizkuntzen erabilera eta jarrera: aniztasunaren trataera, (harrera plana).
- Proiektu osagarriak (irakurketa plana, trukea eta beste).
- Irakasleen prestakuntza.

Gelaz kanpukoa

- Ikasleen hizkuntza erabilera eta sentsibilizazioa.
- Irakasle eta hezitzaileen prestakuntza, proiektu osagarriak (Liburuaren Eguna, Euskararen Eguna, Euskal Astea eta antzerakoak).

Eremu instituzionala

Barne komunikazioa: ikastetxeko langileen profilak eta prestakuntza, baliabideak, paisaia zaintzeko irizpideak eta estrategiak...

Kanpo harremanak: familiak (hizkuntzen erabilera, motibazioa, prestakuntza), administrazioa...

Kanpoko espazioek eta espazio instituzionalek berebiziko garrantzia daukate hizkuntza gutxituen kasuetan; gurean, euskararen erabilera bermatzeko gizarte-espazioak sortzea eta sustatzea ezinbestekoa da.

Eremu komunitarioa

Herria: harreman sareak, euskara sustatzeko loturak eta konpromisoak, baliabideak eta abar. «Eskolatik auzora eta auzotik eskolara» proiektua, auzoko denda euskaldunen inguruko ikerketa, euskarazko komunikazioa eskolatik kanpo sustatu eta bultzatzea, aisialdia (eskolaz kanpoko ekintzak), euskara batzordea (proiektu jarraipen bateratua egiteko espazioak) eta beste.

Etorkizuna

Eta, bukatzeko, aurrean daukagun beste erronka eta aukera bat aipatu nahiko genuke: etorkina. Eta honen harira, joan den astean Soziolinguistika Klusterrak antolatutako «Migrazioa eta harrera linguistikoa» jardunaldian, Amelia Barquinek, halako galderak egin zituen:

- Nola egin, familiarena ez den hizkuntza batean eta hegemonikoa ez den hizkuntza batean haurrak eskolatzeko?
- Zer harrera linguistiko egiten zaie familia hauei ikastetxeetan?

- Badakite euskara hizkuntza minorizatua dela baina euskaraz ikasteak ez dituela etorkinak beste minorizazio batera eramaten, eta emaitza, aldiz, kontrakoa izanen dela?
- Zer mezu bidaltzen diegu?
- Eta guk ere geure buruari galdera bera egiten diogu: Nola erakarri, nola hurbildu, Nafarroan, D eredura eta euskarara kanpotik datozen familiak eta haurrak?

Gure jendartea plurala da, gero eta pluralagoa eta horren isla da eskola. Horregatik gure helburuak euskara ardatz izanen duen hezkuntza eleaniztuna izan behar du.

EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZAN: TRABA EGITEN DUENA EZABATZEA ETA ETORKIZUNARI BEGIRA EREITEA

Juan Pedro Urabayen
ELA Sindikatua

Euskal Autonomia Erkidegoak eta gainerako autonomia-erkidegoek ez bezala, Nafarroako Foru Erkidegoak ez zuen bere lurralde osoan ofizialtzat jo bere hizkuntza propiorik zaharrena, eta urrats hori ematen ez den bitartean, familiek euskara neurri batean barneratuko duten hezkuntza-ereduak hautatuko dituztela bermatu behar da, seduzituz.

Lerro hau Euskarabidea lantzen ari da, fintasunez, ukimenez eta adimenez, eta ziur naiz bere fruituak emango dituela bertan irauten badu.

Euskaltzaindiak antolatutako jardunaldi honetan D ereduaz hitz egin da eta hainbat ikastetxetako esperientzia zehatzak aurkeztu dira. Horren osagarri, aipatu beharreko bi alderdi gehitu nahi ditut, Nafarroako hezkuntza-sisteman euskara gehiago izatea nahi badugu: batetik, traba egiten duena ezabatzea, eta, bestetik, fruitua ekarriko duena ereitea.

Traba egiten duena ezabatzea

Hainbat irakasgai Ingeleseztan Ikasteko Programak (IIP-PAI), ehundik gora ikastetxetan eta Nafarroako 50 herritan baino gehiagotan derrigorrezkoa denak, agerian utzi du nabarmen murriztu zuela gaztelaniazko A eredu euskara irakasgaiarekin aukeratzen zuten familien kopurua. 80ko hamarkadan euskararen ofizialtasuna iparraldera mugatzen zuten Foruaren Hobekuntza bultzatu zutenen jokaldi nagusia izan zen, 90eko hamarkadan kezka ikusten baitzuten urtez urte hazten ari zela euskara zuten hezkuntza ereduaren familien eskaria, derrigorrezkoa ez zen bi hizkuntza eremuetan.

Nazionalitate anitzeko edo *ad intra* eleaniztun planteamenduetara itxitako ideologia nazionalista espainolak bultzatuta, eta ingelesaren kolonialismoari *ad extra* amore emanda, Otano buru zuen hirukoa erori ondorengo urteak aprobetxatu zituzten Grosse Koalitionek sostengatutako norabideari ekiteko, geroago PPK gobernaturako beste erkidego batzuek partekatuko zutena (Balear Uharteak barne, katalanean murgiltzearen ordeztu, eredu hirueleduna ezarri), geroago baita PSOEk gobernaturakoek ere (Patxi López lehendakari eta Celaá kontseilari Euskadin).

FAES berak, *Libertad o Coacción. Políticas Lingüísticas y Nacionalismos en España* liburuan, positibotzat jotzen du, ñabardurak ñabardura, Nafarroan euskararekin jarraitutako politika, Aurelio Arteta irakasleak babestua: euskara gaztelania baino beheragoko hizkuntzatzat jotzen duena, balio sentimentala baino ez duena, zeinaren minorizazio-prozesua naturala izan baita, berreskuratze ahalegina ez bezala, inposaketa bat baita; eta zentzugabekeria hezkuntzan orokortzea, iruzur egitea eta moda zentzugabea baita.

IIP-PAI bezalako sasi-murgiltze programen aurrean erreakzionatzeko prozesu geldoa urrats esanguratsuak ematen ari da, eta Estatu osoko zentro askok uzten dituzte. Autonomia-erkidego askotan familia, irakasle, aditu eta sindikalistek sustatzen dute, eta ikasleentzat kaltegarriak direlako kendu nahi dituzte, ingelesez ematen diren ikasgaien curriculum-a hustea, haurtzaroan gehiegizko ahalegina egitea eta gure hezkuntza-sisteman hain handia den eskola-segregazioa areagotzea eragiten dutelako. Nafarroan badugu ikastetxe bat, Castejongoa, programa horrekin haur bakar batek ere eskolatzea lortu ez duena. Horretarako, eskola-kontseiluaren eta klaustroaren gehiengo handi baten adostasuna lortu dute, zuzendaritza-talde baten lan eraginkor eta tematiaren ondoren. Talde horrek ahalik eta hezkuntza-kalitate handiena eman nahi die ikasleei, nahiz eta batzuek deskalifikatu egin nahi dituzten eta pertsona horiengan gorpuztutako mamu partikularrak ikusi nahi dituzten.

Gai honen inguruan, Nafarroan itun politiko, sozial eta sindikal handi bat egin beharko litzateke, hizkuntza bakoitza bere lekuan jarriko lukeena hezkuntza-sistemaren barruan, PAI desmuntatuz eta Hizkuntzen Tratamendu Integratua sustatuz, non hizkuntza batzuetan ikasitakoa besteen mesederako izango den. Hainbesteko aniztasuna duen estatu batean, adostutako gutxieneko batzuk ezarri beharko lirateke, ikasle guztiei beren autonomia-erkidegoko berezko hizkuntzak edo hizkuntza ofizialak menperatzea eta atzerriko hizkuntza bat edo bi jakitea bermatzeko. Frogatuta dago katalana edo euskara bezalako hizkuntza gutxituetan murgiltzea arrakastatsua izan dela elebitasuna lortzeko, ingeles-maila egokiari kalterik egin gabe. Murgiltze horrek asteko eskola-ordutegiaren % 80 eskatzen du gutxienez, bestela ez baita lortzen bi hizkuntza propioetan gaitasun kognitibo-akademikoak ahalbidetzen duen atalase-maila. Hori ez du hizkuntza bakar batean ere lortzen PAIk, ingelesez emandako orduen % 50 baino ez baitu ematen, ezinezkoa baita; eta, horrela, gaztelania ahuldu egiten da, ez baita bermatzen eskolatik behar bezala dibertsifikatutako erabilerarik, ezta irakurketa-idazketa prozesu normalizaturik ere, eta ikasten den ingelesa ez da oso erabilgarria. Erauzketa ertain-altuko familiek bakarrik inberti ditzakete baliabideak sistemaren gabezia horiek gainditzeko, sakrifizio handi batekin.

Castejongo hezkuntza-komunitateak erakutsitako gizalegezko konpromisorik gabe, PAI ez da eroriko. Beharrezkoa da familiak eta irakasleak mobilizatzea, PAIrekin gustura ez daudelako, ez dutelako gustuko nahiz eta ikasgelan eman, eta/edo ikusten dutelako gaurko ikasleek zer galdu duten programa horren aurreko promozioekin alderatuta. Duela ia hamarkada bat Ablitas, Cascante, Orkoién, Gares, Uharte... bezalako ikastetxeek jarrera hori hartu zuten. Gaur egun, beharrezkoa da hasieratik lardakeria ikusi zuten zuzendaritza-talde horiek jarrera hori beren gain hartzea, garai batean tranpan erori ondoren, ikasleak irabazteagatik (ikastetxe publikoen kasuan), edo marketin lehiakor gisa egiteagatik (ikastetxe itunduetan). Castejonek Nafarroako sindikatu guztien ahobatezko babesa izan du erabakitze eskubidearen alde.

Etorkizunerako erritea

PAI desmuntatzearekin batera, A eredia, lur emankorra dena, sustatu behar da, epe ertainean D eredia sor dadin.

Askotan errepikatzen da Yolanda Barcinaren I3TVko esaldia, PAI sustatzean familiek euskara hainbeste ez eskatzea lortu zuela dioena. Baina gutxi aipatzen da, halaber, esan zuela hizkuntza-ereduek aukera askeari eta Nafarroako Parlamentuko akordioei erantzuten dietela (UPNko gobernuek ez zuten gehiengorik izaten, zerrenda bozkatuaren sistemaren bidez sartzen zirelako edo gutxiengoan gobernatzen zutelako PSNren abstentzioarekin inbestituak izan ondoren), eta derrigorrezko IIP-PAIren hedapen masiboarekin dozenaka ikastetxetara, aurretik Parlamentuan eskatzen zena baino gutxiago aurreratu behar izan zutela eredu horietan. Hitz horien aurrean, ikusten da ez UPNri (A, B, D eta G hizkuntza-ereduak ezarri zituen Euskararen Legearen alde bozkatu ez zuena), ez Barcinari, ez Artetari, ez FAESi, ez zaizkiela inoiz gustatu A, B eta D ereduak; eta izatez sasi-eredu berri bat den PAIrekin, Parlamentuko gehiengoari iseka egitea lortu zutela, legezko ereduak indargabetzen dituen programa hori inposatuz.

Gogoan dut UPNren gobernu garaian A ereduko nire ikastetxeko bi irakasle Hezkuntza Departamentura joan ginenekoa, euskara ikasgaien DBHko 3. eta 4. mailtako ikasgelak une batzuetan bikoiztea ahalbidetuko zuten baliabide gehiago eskatzeko, NUHEOeko A2 eta BI mailtako azterketak ondo prestatzeko. Era berean, A ereduak Nafarroako kohesioari eta bizikidetzari laguntzen diola alegatu genuen. Zein izan zen gure harridura Departamentuko hizkuntza arduradunak aitortu zigunean UPNren gobernuari ez zitzaizola batere interesatzen elkarbizitza.

A eredian, irakaskuntza gaztelaniaz da, baina euskara ikasgai gisa ikasten da maila guztietan, ingelesa bezalaxe. Euskarara kultura hurbiltzeko eredu bat da, oinarritzko nozioak ezagutzekoa, D eredia (ikasleak euskara-gaztelania elebidunak dira lehen mailetatik) baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa duena. Haur eta Lehen Hezkuntzan, A ereduko ikasleek astean 4 saio izaten dituzte euskaraz. DBHn eta Batxilergoan euskara da maila horietako hautazkotasunaren espazioa, eta astean 3 saio egiten dira euskaraz. Gainera, ikastetxeek ikasturtean zehar hainbat jarduera antolatzen dituzte eredu honetako ikasleentzat, hala nola pailazoekin saioak, herri kirolen erakustaldiak, antzerkiak eta abar, euskara ulergarriarekin.

Bigarren Hezkuntzan, institutuek aukera ematen diete A ereduko ikasleei NUHEOekiko lankidetzaprograman izena emateko. Programa horrek institutuko irakasleak eta eskola horretakoak koordinatzen ditu, eta azterketa ofizialearako prestatzeko eta institutuan bertan egiteko aukera ematen die ikasleei. Prestakuntza horretan lagungarriak dira elkarrizketa-laguntzaileen programak, ikastetxeetara joaten direnak eta saio batzuetan ratioa murrizteko aukera ematen dutenak. A ereduak hasieratik ez du ikasle elebidunik sortzen, berehala, baina 18-22 urteko epean lortzeko oinarriak jartzen ditu, eta, ordura arte, nafar belaunaldi berri batek euskal hizkuntzarekin eta kulturarekin kontaktuan hezitako kopuru erdia baino gehiago eskolan bertan edukitzen laguntzen du, tirabirarik eta gatazkarik gabe; aitzitik, ekarpen handia egiten dio bizikidetzaren pluralari, integratzaileari eta gure gizartean sustraitutakoari. Gizarte hau askoz kohesionatuagoa egongo litzateke A eredia D eredian murgiltzea aukeratzen ez dutenen artean orokortua balego.

EAEk 80ko hamarkadan eraman zuen prozesua, non hasieran familien % 80k A eredia aukeratzen zuten eta % 20k D eredia, urte gutxiren buruan alderantziz izateko, Nafarroan egin gabe dago. Orain arte, Nafarroako ezein herritan ez da D ereduko lerrorik sortu, baldin eta lehen herri horretan A ereduko bat ez bazegoen. Horregatik, beharrezkoa da herri guztietan A eredia eskaintzea eta egotea. Izan ere, A eredia gero eta zabalduago dago urtez urte, zailtasunak zailtasun. Urte gutxiren buruan, G ereduak eskolak galduko ditu, azken urteotan horietako bakoitzean ikasleak galdu ondoren, arian-arian ezartzen diren A eta D ereduaren mesedetan. Gaztelaniako sare publikoa erortzen ari den ghetizazio-prozesua saihestu ahal izateko, A eta D ereduak sartu behar dira ikastetxeetan. A ereduko itunpeko ikastetxeak, historikoki, auzo eta herrietan kokatutakoak izan dira, eta horiek dira matrikula gehien igotzen ari direnak. Eliteko itunpeko ikastetxe batzuek A eredia sartzeari planteatu beharko dute, gutxienera joan nahi ez badute. Euskararen ofizialtasunak gauzak asko erraztuko lituzke Nafarroa osoan, A eredia derrigorrezko gutxienera izango litzatekeelako, eta G eredia desagertuko litzatekeelako, prozesua asko merkatuz, euskara irakatsiko denean gelak bitan banatu beharrik ez zegoelako. Ofizialtasun hori gabe, euskara ere aurrera egiten ari da, ematen ez badu ere. Ezina ekinez egina.

IKASLEEN EUSKARAZKO AHOZKO KOMUNIKAZIO GAITASUNA LANTZEKO EGITASMOA: AHOZKO HIZKUNTZA IRAKASTEA

Yolanda Olasagarre Mendinueta¹
EIBZko irakaslea
yolasaga@educacion.navarra.es

I. Zergatiak

Murgiltze ereduak ikasleen euskarazko hizkuntz trebetasunak lantzen ditu eta ikasleak euskalduntzean emaitza onak lortu dituela esatean gehienok ados gaude eta ikerketek ere hala diote (Idiazabal eta Manterola, 2009). Hala ere, ikasleek lortutako hizkuntza mailan ñabardurak daudela ezin da ukatu. Izan ere, faktore ugari eragiten baitute ikasleen hizkuntza mailan. Egitasmo honen hasieran deskribatu genuen egoerak bat egiten zuen, oro har (makrosoziolinguistika mailako ezaugarriak) euskal ereduko ikasleen hizkuntz gaitasunei buruz Zalbidek (2003) esaten zuenarekin: ikasleak trebeagoak dira euskarazko gaitasun pasiboetan aktiboetan baino; euskarazko aldaera edo erregistro jaso, formal eta azalpenezkoetan aurrera egin dute; atzera, berriz, mintzamenaren esparru informal, barrenkoï eta intimoetan, aurrera euskara batuaren ezaguera formal eta aplikazio praktikoan; atzera euskararen hots-ebakeran. Eta esandakoa aztertzen badugu, ahozko gaitasunarekin estuki lotutako horietan egin da atzera edo ez da aurreratu espero zen bezainbeste (erabilera ez-formalean, hots ebakeran...).

Bestalde, irakasleei ikasleen ahozko gaitasunari buruz galdetu zaienean, kezkatuta daudela esaten dute: bai ikasleen ahozko komunikazio gaitasun mailarekin, bai ikasleen hizkuntzarekiko atxikimendurekin. Era berean, hutsune nabarmenak ikusten dituzte bi arlo horietan ikasleen adinak aurrera egin ahala.

Halaber, ikasleen hizkuntza maila neurtzeko egiten diren barne eta kanpo probetan ez da inoiz mintzamina neurtu (guk dakigula behintzat), hortaz, zehatz-mehatz ez dakigu ikasleen ahozko gaitasuna zein den, eta hori konpondu beharreko arazoa da.

¹ Artikulu honetan idatzitakoak, Esther Mugertza Imazekin batera sortu eta ondutako Ahozko Hizkuntza Irakastea egitasmoan egindako ibilbidea eta emaitzak jaso ditu.

Nafarroan D ereduko DBHko 2. mailako ikasleekin egindako ikerketan² ikasleen kopuru esanguratsu batek aitortu zuen ez zuela gaitasun nahikorik euskaraz aritzeko. Datu horri eskolak duen eginkizunetik erreparatzen badiogu, kontuan hartu beharrekoa da, gure ustez. Izan ere, ahozkoan nahikotasun mailarik ez badute nekez pentsa daiteke erabilerara jauzi egiten dutenik (Sanchez Carrión, 1991).

Eskolaren eginkizunetako bat ikasleei hizkuntz trebetasunak (ulermena, irakurmena, idazmena eta mintzamina) irakastea da, eta horien baitan, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna lantzea. Eginkizun horiek, espresuki, Nafarroako euskarazko curriculumean³ zein, zeharka, 18/1986 Euskarari buruzko Foru Legean⁴ aipatzen dira.

Eskolaren eginkizuna ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna lantzea baldin bada, irakasleek horri buruz esan digutena kontuan hartzea ezinbestekoa da. Haien esanetan, ahozkoa eskolan bigarren maila batean lantzen da, denbora dagoenean, ez da planifikatzen, ez dago sistematizatua, hala moduz ebaluatzen da.

Zalbidetik (2003) ikasleen hizkuntza mailan faktore desberdinek eragiten dutela dio, eta, gutxienez, lau aipatzen ditu: hizkuntza ereduak, hau da, ikasleak zenbat orduz ari diren euskaraz ikasten; etxe-auzo giroko, lagunarteko hizkuntza zein den (Fishman, 1991); ikasleen adimen mailak eta Ikastetxearen hizkuntza planteamenduak. Esaterako, etxe-auzo-lagunarte euskalduneko ikasleendako, beren hizkuntza eredu atxikitze-eredua da (Goikoetxeak, 2003), eta aldiz, hizkuntza eredu bera murgiltze-eredua da etxe-auzo-lagunarte erdalduneko ikasleendako. Eskolak etxe-auzo-lagunarteko faktorearen eragina gutxitzeko, berdintzeko eta konpentsatzeko bide eraginkorrena ikastetxearen hizkuntza planteamendua da.

Hori hala bada, eskolak, zentzu zabalean, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna hobetu dezake ikastetxearen hizkuntza planteamenduaren bidez⁵. Ikastetxe bakoitzak zer-nolako trataera emanen dion hizkuntzari, zer-nolako didaktika egiten duen, zer-nolako ikuspegia emanen dion jaso eta erabaki dezake. Nafarroako ikastetxeen hizkuntza planteamenduak aztertu genituenean, bi ondorio atera

² Olasagarre, Y., Ramos, R. eta Vilches, C. (2019). DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku hartzea. Iruñea: Nafarroako Gobernua. Hemendik eskuratua [2022/02/22]: <https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/dbhkoikas-leen.pdf/ed55cbde-4600-68a4-212e-eae72c80b528>

³ Ahozko hizkuntza irakastea webgunea. Euskal hizkuntza eta literaturaren curriculumen irakurketak hemen kontsultatu daitezke. Hemendik eskuratua [2022/02/22]:

LHN https://drive.google.com/file/d/0B7L6z_I_ISX2M3ZnbjRYUjFEbk0/view?resourcekey=0-7c24xIHJtlpGCibbBjKdYQ eta

BHN https://drive.google.com/file/d/IEScapgHA8CWevg5IzLj0zrqBG5RrCA6jNq74E-vdQIdtggp6XFk86b9tOF6npyNOQdDPo6M9Q_g3kxLx/view

⁴ Irakaskuntza eremu euskaldunean (24. artikulua, 2. puntua): Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara eta gaztelania nahitaez irakatsiko dira, ikasle guztiak oinarritzko eskolaztearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa egiaztatu ahal izan dezaten. Eremu mistoan, aldiz, (25. artikulua, 2. puntua): Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara ikasketak emanen zaizkie hala nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolaztearen bukaeran euskararen jakintza nahikoa izan dezaten. <http://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm>

⁵ Proposamen honen xehetasunak, Mugertza eta Olasagarre (2010)en jaso genituen. Hemendik eskuratua [2022/03/18]: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100601/nafarroako-hainbat-ikastetxetan-euskararen-erabilerasustatzen-ari-zarete-nola>

genituen: lehenengoa, gela barruan egiten ziren esku-hartze didaktikoen gaineko gogoetan arreta gutxi jartzen zela eta esku-hartze horiek gutxi aztertu direla (Idiazabal eta Manterola, 2009). Ildo berean dago Ruiz Bikandik dioena: «Garrantzi handia eman zaio umeak eskolan euskararen eraginpean dauden denborari baina oso txikia denbora horretan hizkuntzaren bidez egiten dutenari»⁶. Eta, bigarrena, ikastetxeetan euskara sustatzeko modu planifikatuan burutzen ziren egitasmo gehienak gelako lanetik kanpoko kanpainak ziren ikasleek euskaraz hitz egin zezaten animatzeko⁷.

2. Ibilbidearen deskribapena

Prestakuntzaren helburua: zer eta nola

Gure helburua irakasleak prestatzea baldin bazen eta bada, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko, zer-nolako bidea egin behar genuen zehazten hasi beharra genuen, eta horretan hasi ginen. Beharrezkoa zen, gure ustez, irakasleei tresna eta prestakuntza aproposak eskaintzea, premia gorria baitzegoen ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna zein atxikimendua lantzeko. Ez zen gure planteamendua ezer asmatzea, bai, ordea, praktika egitea zegoen teoritik abiatuta, eta horretan oinarrituta, teorikoek esandakoaren gainean praktika diseinatu eta bideratzea. Zerbait operatiboa sortzea eta inplementatzea, ikasleen ahozkoa lantzeko irakasleek duten zailtasunei aurre egiteko; zerbait malgua, egingarria, irakasleen denbora mugak kontuan hartuta, ikasmaila eta ikasgai ezberdinetarako egokia litzatekeena eta irakaslearen jarduna planifikatzeko, sistematizatzeko eta neurtzeko baliagarria izango zena. Hau da, gaur eta hemen dauden baldintza errealekin bidea egitea. Irakasleen lana arlo honetan zaila eta nekeza da, eta beharrezkoa da egin behar duten lanean laguntza ematea, lan hori errazte aldera.

Bigarren mailako asmoak

Aipatutako helburu nagusi horietan, beste maila bateko helburu xeheagoak ere izan ditugu ibilbidean zehar; besteak beste:

- Irakasleen artean ahozkoa modu sistematiko eta planifikatuan lantzeko beharra ikusaraztea, eta programatu egin behar dela argi izatea.
- Ahozkoaren lanketak metodologia aldaketa batzuk eskatzen dituela erakustea.

⁶ Ruiz Bikandi, U., «Ahozko euskararen lanketa, bereziki bigarren hizkuntza denean». Hemendik eskuratua [2022/02/17]: <http://amaraberri.org/topics/diadia/arin/ahozla>

⁷ «Euskararen erabilera bultzatzeko azken 2 hamarkadetan ikastetxeetan egindakoa aztertu genuen, hau da, euskara sustatzeko zer egiten zen eta zeri ematen zitzaion garrantzia (esate baterako, gelatik kanpoko jarduerak antolatzea, ikasleekin egiten diren jolasak euskara sustatzeko). (Mugertza eta Olasagarre, 2015: 71).

- Ahozkoa lantzeak ikasleen motibazioan modu positiboan eragiten duela ulertzea, ikasleek emaitzak ikusten dituztelako eta ahozkoak parte hartzea eskatzen duelako.
- Ikasle guzti-guztiekin beren ahozko ekoizpena lantzea ez bakarrik berri-suenekin; ahozkoa lantzen den bitartean curriculumeko edukiak ere lantzen direla ulertzea, hots, denbora aurrezte aldera edukiak ahozkoan lantzea, irakaskuntzaren berbalizazioa (Goikoetxea, 2003).
- Bigarren Hezkuntzan, batez ere, baina ez bakarrik, ikasgai desberdinetako irakasleak elkarrekin lanean aritzea (programazioan, gelako lanketan eta ebaluazioan). Irakasleek euren erdigunetik⁸ lan egitea, hau da, gela baldin bada haien eragiteko berezko eremua, hortik aritzea eta lehentasuna eta garrantzia ematea gela barruan egiten denari.

Ikuspegia eta oinarriak

Sarreran, azaletik edo zeharka bada ere, zenbait oinarri aipatu ditugu, esaterako, ikasleen hizkuntz gaitasuna, eskolaren zeregina eta oinarri soziolinguistikoa. Jarraian, hizkuntzaren didaktikaren oinarri teorikoei eskainiko diegu tartetxoak. Ondoko irudian gure oinarria zein den laburbiltzen saiatu gara.



Iturria: Egileak sortua.

⁸ Proposamen honen xehetasunak, Mugertza eta Olasagarre (2010)-en jaso genituen: Hemendik eskuratua [2022/03/18]: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100601/nafarroako-hainbat-ikas-tetxetan-euskararen-erabilera-sustatzen-ari-zarete-nola>

Hizkuntzaren didaktikaren helburuei dagokienez, Dolz, Gagnon eta Mosquerak (2009) esaten dutenarekin bat egiten dugu: ikasleek komunikazio gaitasuna lortzea da helburua (hitz egin, entzun-ulertu, irakurri, idatzi eta elkarreraginean aritzeko trebatzea); ikasleei komunikazioaz, hizkuntzaren erabileraz eta sistemaz gogoeta eginaraztea eta, azkenik, kultur erreferenteak eraikitzea (literaturaz gain bestelako kultur ondasunena⁹).

Bestalde, hizkuntzaren didaktikan irakasleek, ikasleek eta edukiek osatzen duten egitura didaktikoa (hiruki didaktikoa) giltzarria da, baita ondoren egiten den eduki horien transposizio didaktikoa ere. Chevallarden hitzetan, transposizio didaktikoa, hau da, eduki bat irakasteko objektu bihurtzeko prozesua ezinbestekoa da irakasteko erabiltzen diren dispositiboetan (Dolz, Gagnon & Mosquera, 2009).

Interakzionismo sozio-diskurtsiboaren ikuspegiaren arabera, ahozko testua emaitza soziala da (Broncart, 2008), zeinetan ikasleen gaitasun diskurtsiboa eta ezagutzak eraikitzen diren. Diskurtsoak eta ezagutzak eraikitzeko, bestalde, testu generoak erabiltzen dira (Dolz eta Gagnon, 2010). Hortaz, testu generoak hezkuntzan beharrezkoak dira jakintza egituratzeko, eta generoekin lotuta diskurtsoen helburu komunikatiboak zein diskurtsoen testuinguruak garrantzi berezia hartzen dute.

Ildo beretik, mintzamenak ere irakasgaia izan behar duela eta propio irakatsi behar dela iruditzen zaigu (Prieto eta Dolz, 1997; Dolz, 2006; Garzia, 2008). Mintzamina irakasteko ezinbesteko tresnak dira testu generoak eta sekuentzia didaktikoak (Idiazabal, *et al.*, 2012). Tresna horiez gain, ahozkoaren didaktikan ahozkoaren berezko ezaugarri eta baliabideak ezinbesteko edukiak izanen dira, irakatsi beharrezkoak, alegia (Garzia, 2008; Calsamiglia, 2007).

Prestakuntzaren ereduak

Irakasleen prestakuntzan modalitate eta eredu desberdinak daudela jakinda, gurean, hasieratik aipatutako gelako praktika sustatze aldera, begirada eta indarra irakasleek ikasleei ahozko hizkuntza nola irakatsi diezaieketen erakustean (era planifikatu eta sistematizatu batean) jarri ditugu, ikasleek ahozko ekoizpenak egitean eta horien ebaluazioan, irakaste prozesua bideratzeko praktika didaktikoetan eta irakasleen praktika zuzenean haien eguneroko lanean integratzean.

Edukiei dagokienez, besteak beste, honakoak aipatzen ditugu: ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko ikuspegia, oinarri teorikoak (lehen aipatuak), SDak nola diseinatu, nola gelaratu, ikasleen grabazioak nola egin eta ikasleen ekoizpenen ebaluazioa nola egin.

Irakasleek burutu behar dituzten jardueri dagokienez, banakakoak eta taldekoak ditugu, esaterako, oinarri teorikoa banaka aztertzen dute, aldiz, sekuentziaren diseinua eta gelaratzea taldeka egin ohi dute.

⁹ Esaterako, ikasleen motibazioa eta atxikimendua lantzeko bestelako prestakuntza-jarduerak batzuk eskaintzen dira: «Euskara sustatzeko bideak: motibazioa eta ahozkoa gelan HH, LH; Bigarren Hezkuntzako ikasleen atxikimendua lantzea». Ikerketa ere badago: DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea. Baliabideak: MSB bloga.


Formatuari dagokionez, berriz, *blended* formatuko ikastaroa da gehienetan: online eta aurrez aurreko saioekin. Formatu hori arrazoi praktikoengatik aukeratu genuen, irakasleek banaka egin behar dituzten jarduerak online erraz eta emaitza onekin burutzen dituztelako eta aurrez aurrekoak sekuentzia didaktikoak diseinatzeko erabiltzea emankorragoa delako; irakasleek zailtasun gehien dituzten eduki eta praktiketan laguntzeko. Prozesuak sekuentzia didaktikoa ikastalde bakoitzera eta une zehatz batera egokitzea eskatzen du, une horietan sortzen dira, batez ere, zalantza eta zailtasun gehien. Prestakuntzaren barnean irakasleek gelan praktikatzea ezinbestekoa izan da arazoak non dituzten jakiteko eta transposizio didaktikoaren nondik norakoak zedarritzen joateko. Normalean, aurrez aurreko saioak ikastetxean bertan eskaintzen dira, eta guztira 35 orduko lana ziurtatzen zaie irakasleei (Hezkuntza Departamentuak eskatzen dien ordu kopurua).

Prestakuntzaren oinarri metodologikoei dagokionez, irakaslearen lanaren gaineko gogoeta bultzatzen duen prestakuntza eredua (Esteve, 2004) bultzatu eta bideratu dugu, baina aldi berean, gidatua, oinarri teorikoduna, ebidentziarantz bideratua; gelako esku-hartzei bideratua, edukien transposizio didaktikoan arreta jartzen duena; irakasleekin zein ikastetxean egoerekin malgua, tokian tokiko egoerak kontuan hartzen dituena; teknologia berriak erabiltzen dituena, gauzak asko errazten dituelako (gaur egun, inork ez du hori zalantzan jartzen, baina hasi ginenean ez zen hain agerikoa). Oso garrantzitsua da, bestalde, prestatzaileok irakasleen ondoan egotea, haiei laguntzeko, bultzada emateko, animatzeko, konfiantza emateko eta lana eskatzeko ere bai (Mugertza eta Olasagarre, 2015).

Ondoko irudian prestakuntza-mota honen osagai nagusienak jaso nahi izan ditugu: prestatzailea, irakasleak (ezinbesteko bitartekariak) eta ikasleak zein horien gan lortu nahi den helburua (ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna hobetzea). Bestalde, helburuen lorpen mailak, ikasleen ahozko komunikazio gaitasunetan lortutako emaitzak, ebidentziak izanen dira prestakuntza prozesuan aurrera egiteko, jarraitzeko edo behar diren moldaketak egiteko.

2. irudia:

Prestatzailea eta irakasleak elkarlanean: ikasleen ahozko gaitasuna helburu



Iturria: Egileak sortua.

Ahozkoak eskatzen dituen baldintzak prestakuntzari begira

Irakasleak prestatzeko garaian, ikasleen ahozko komunikazio gaitasunaren lan-ketan aurrera egiteko guretako ezinbestekoak diren baldintzak ezarri genituen.

- Hasteko, ahozko sekuentzia didaktikoak diseinatu eta gelaratzea. Horri jarraipena emateko, bi edo hiru urtera, ahozko komunikazio gaitasunaren lanketa programatzea eta sekuentziazioa egiten hastea.
- Ahozko testuak curriculumeko testu generoekin lotzea. Gure oinarri teori-koen arabera, testu generoak ezinbestekoak dira komunikaziorako zein jakintza antolatu eta eraikitzeko, horregatik ahozko ekoizpenak eta lan-ekta curriculumean landu edo erabili behar diren testu generoekin bat etor-tzea aurrerapausoa da.
- Ikasleak grabatzea. Ikasleekin ahozkoa lantzen denean, grabazioak egitea ezinbestekoa da. Grabazio horien helburua pedagogikoa da: SDaren hasie-ran ikaslearen ahozko gaitasunen argazki bat jasotzea eta lanketaren ondo-ren, bukaeran, beste argazki bat jasotzea. Grabazio horiek ere bidea ematen dute ikasleek ahozkoaren gaineko kontzientzia hartzeko, ongi egiten dute-naz zein hobetu behar dutenaz jabetzeko, irakasleen jarduna ebaluatzeko (zer landu duen jakiteko, egindakoarekin asmatu duen ala ez jakiteko eta abar). Hortaz, ikasleen grabazioak lanerako tresnak dira, idazlan bat izan daitekeen moduan.
- Irakaslea ahal dela isilik egotea. Ahozkoa ikasleekin lantzeak esan nahi du irakasleak isildu egin behar duela, ikasleak hitz egin ahal izateko. Beti irakas-learen txanda baldin bada, ezinezkoa izanen delako ikasleak hizketan jartzea.
- Ebaluazioaren helburua ikasleek euren ahozko komunikazio gaitasuna hobetzea baldin bada eta bada, ebaluazio eraikitzailea egitea proposatzen da, objektiboa eta ez intuitiboa. Horretarako, kontrol zerrenda erabiliko da, ikasleek jakin dezaten zer den ebaluatuko zaiena, eta bertan ebaluazio iriz-pideak jasoko dira. Aldi berean, ebaluazioak ikaslearen hobekuntzak zein hutsuneak identifikatzeko balioko du eta sumatiboa izanen da¹⁰. Praktikari begira, ikasleei lehenengo ongi egin dutena adieraztea eta ondoren hobetu beharrekoa aholkatzen da. Azkenik, ebaluazioak koherentzia izan behar du landutako edukiekin edota baliabideekin.

Ahozkoa modu honetan lantzeak irakaslearen jarduna ebaluatzeko balio du, irakasleak ikusten duelako ikasleen ekoizpenen bidez zer landu den, ea ongi landu den, hutsuneak non dauden...; transposizio didaktikoaren nondik norakoak ikusteko baliagarria da.

- Bizi errealeko ahozko ereduak ematea. Irakaslearenaz gain, ikasleak beste eredu batzuk ere ikustea komenigarria da, beste hitz egiteko molde batzuk entzuteko, beste testu genero batzuk entzuteko, imitatzeko, hizkera moldeak

¹⁰ LHN Ebaluazioaren inguruko oharra. https://drive.google.com/file/d/0B7L6z_I_ISX2M3ZnbjRYUjFEbk0/view?resourcekey=0-7c24xIHJtlpGCibbBjKdYQ

ere entzuteko... Hortaz, ereduei buruz ari garenean zeraz ari gara: batetik, irakasleak landuko duen sekuentzia didaktikora bete-betean egokituko den eredu perfekturik ez dago, besteak beste, komunikazioaren baldintzak bestelakoak izanen direlako; bestetik, ahozko ekoizpen bat eredu gisa erabiltzen denean, irakasleak erabakiko du zertarako erabiliko duen eredu hori eta litekeena da sekuentzia didaktiko batean eredu bat baino gehiago erabili behar izatea. Egitekoa eredu errealak aztertzea izanen da: komunikazioaren baldintzen arabera eta imitazioetatik aparteago joanez, ikasleek zer egin eta zer ez egin erabakitzeko.

- Ahozkoaren berezko lanketaren kontzientzia lantzea ikasleen eta irakasleen artean. Lanketa bideratua eta neurtua izanik, badago horren gainean gogoeta egiteko aukera. Horrek, ahozkoaren berezko ezaugarri eta baliabideetan ahalegin berezia egitea eskatzen du. Irakasleek sarritan desikaste prozesu bati ekin behar diote, alde horiez jabetzeko, lanketa desberdina eskatzen duelako (esaterako, ikasleei ahozko eredu desberdinak ematea, gaur egun erraz egin daitekeena, ikus-entzunezkoak erabilia).
- Ahozko lanketaren beste dimentsio bat jorratzea, ikaskideen arteko elkarrekintza gauzatzeko. Ahozkoak asko dauka elkarrenginetik, hortaz, ahozkoa lantzeak elkarrekintza bideratzeko aukera ematen du. Horrek beste aukera zein zailtasun batzuk ere irekitzen ditu, alderdi formala zein ez-formala lantzeko aukera ematen baitu, idatziak baino gehiago esanen genuke, eta horrek bestelako ate batzuk irekitzen dizkigu, gaur egun, oraindik ere, irekitzen zailak direnak murgiltze eredian.
- Ikasleekin egoera komunikatiboaren atalen bat negoziatzea, adostea. Ikasleei SDaren atalen bat-edo erabakitzeko ahalmena ematea. Negoziazioa oso garrantzitsua da, izan ere, neurri txikian bada ere, ikasleei erabakitzeko ahalmena ematea motibaziorako iturria baita.

Lanerako tresnak: testu generoak eta sekuentzia didaktikoa

Oinarrietan aipatuenez, testu generoen inguruan ahozko hizkuntzaren irakaskuntza prozesua egituratzea proposatzen dugu, morfologia eta sintaxia irakastea baino zerbait gehiago delako hizkuntza eta perpausaren unitatetik haratago joan beharra ikusten delako. Eta testu generoa da unitate hori Bronckart, Schneuwly eta Dolzen planteamenduaren arabera, baita Idiazabal eta Manterolaren taldearen arabera ere (2009). Testu generoek irakas-objektu modura ikasleak trebatzeko balio baitute.

Sekuentzia didaktikoaren teoriak dioena kontuan hartuta, eta gure esperientziaren arabera ikusi ahal izan duguna oinarritzat hartuta, sekuentzia didaktikoa tresna egokia eta baliagarria da irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua planifikatu eta sistematizatzeko¹¹ (zer egin nahi dugun, zer egin dugun, zer emaitza eman dizkigun ikusteko).

¹¹ De Prieto eta Dolzek zera diote ahozkoaren irakaskuntza sistematikoari buruz: Irakaskuntza horrek, batetik, ikasle guztiei komunikatzeko forma konplexu eta ez hain erabiliak eskaintzen dizkie. Bestetik, ikaskuntza-prozesuen gaineko kontrol jakin bat ziurtatzea ere badakar. Eta azkenik, berez ahozkoari dagozkion mintzaira-prozedurak lantzeko (makrosintaktikoak bereziki) bidea ematen du, baina idatzitik errotik banatu gabe (De Prieto eta Dolz, 1997: 158).

- Planifikazio horrek sistematizatzeko aukera ematen du.
- Ikasleen ekoizpenak landu eta ebaluatzeko aukera ematen du, eta horrek esan nahi du ahulguneak eta indarguneak identifikatu ditzakegula.
- Ahozko hizkuntzaren sekuentziazioa eta progresioa egiteko aukera ematen du, ikasmaila bakoitzeko sekuentziak diseinatu eta gelaratzeko.
- Beste estrategia batzuen osagarria eta estalpea da, alegia, ahozkoa lantzeko gelan egin daitezkeen jarduera solteen eta sinpleagoen estalpea izan daitezkeela, baldin eta, ikasturtean behin gelako ikasleekin sekuentzia bat garatzen badugu, ikasle guzti-guztiek haien ahozko ekoizpena grabatuta (aurreko testua/ondoko testua) baldin badute eta ikasleen ahozko komunikazio gaitasunaren ebidentziak jasotzen baditugu.
- Ahozko hizkuntzaren ezaugarri eta baliabideen lanketan sakontzeko bidea egiteko tresnak dira, eta eskolako ahozko corpusa egituratzen joateko ere bai. Hobetzeko aukera ematen dute¹².

Sekuentzia didaktikoan, bestalde, nabarmena da egoera eta helburu komunikatiboaren garrantzia eta formulazio egokia eta, horren baitan, diskurtsoaren testuinguruko elementuen irudikapena ondorengo lanketari begira¹³.

3. Emaitzak

2010ean hasi ginen prestakuntza eskaintzen, eta 2012tik hasita, orain artio, gutxi gorabehera 500 bat irakaslek diseinatutako eta gelaratutako 177 sekuentzia didaktiko jaso dira, eta ikasleen I.I50 grabazio inguru, aurreko testuak eta ondoko testuak kontatuta, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoko I. mailaraino. Aipatu dugunez, prestakuntza diseinu honi zenbait helburu jarri genizkion eta horietan bidea egin dugula esan dezakegu, nahiz eta hutsuneak oraindik nabarmenak izan.

Praktikaren emaitzak aztertzeko sekuentzia didaktikoen dokumentuetan oinarritu gara: helburu komunikatiboak, testu generoak, negoziazioa, SDaren moduluak (diskurtsoaren testuingurua, testuratzeko mekanismoak: testugintza eta diskurtsoaren egitura, hizkuntza eta hizketarako estrategiak), kontrol zerrendak, ikasleen grabazioak (aurreko testuak eta ondoko testuak), ikasleen balorazioak eta irakasleen balorazioak.

¹² Eta kontuan izanda ikasgela dela irakasleak kudeatzen duen berariazko eremua, uste dugu hor eman behar zaiela hitz egiteko aukera; eta hitz egiteaz ari garenean, ez gara ari modu inprobisatuan eta noizean behin galdetzeaz eta betiko hiztunak erantzuteaz. Ahozko jarduera solte espontaneo eta libreki ongi daude, baina guk nahi dugu gure ikasle guztiek hitz egitea eta, gainera, beren jarduna hobetzeko, grabatzea, bideoak ikasleek ere ikustea eta balorazioetan alderdi positiboak nabarmentzea (lorpenak); euskarazko ahozko ekoizpenak hobetzen joan ahala, hitz egiteko gogoia handitu egingo dela pentsatzen baitugu. Horrenbestez, diskurtso, erregistro eta testuinguru ezberdinetan moldatzen ikastea. (Mugertza eta Olasagarre, 2015: 79-80).

¹³ Ikus bideo hauetan Josune Zabalak esandakoak: <https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ahozko-hizkuntza-irakastea/sekuentzia-didaktikoa-sd/sekuentzia-didaktikoaren-egitura>

Ikasleen ahozko komunikazio gaitasunean ikusitako emaitzak (SDan landutakoaren arabera)

Ikasleen artean hobekuntzak ikusi dira diskurtsoaren **testuinguruko** elementuetan, besteak beste, helburu komunikatiboaren hartzailea irudikatzean: nor, noiz, non, hartzailearen ezagutzak, zer lortzeko, nola; testuinguruaren formaltasun mailan; kokapena eta espazioaren erabileran; baliabide ez-hitzezkoetan (begirada eta gorputz mugimenduetan); urduritasunaren kontrolean; baliabide paraberbaletan (bolumena, abiadura eta intonazioa).

Testuratze mekanismoetan, hau da, **testugintza eta diskurtsoaren egiturako** elementuetan hobekuntza ikusi da esan behar dutenaren egituran, edukian eta luzeran, ikasgaiko edukietan eta testuratze mekanismo edo baliabideetan: egitekoaren eta egileen aurkezpenean, kohesio baliabideetan (denboran eta espazioan kokatzeko, isiluneak...); antolatzaileetan; laguntza baliabideetan, hala nola, ppt-en edukian eta erabileran, irudiak ahozko diskurtsoen lagungarri gisa erabiltzeko orduan.

Hizkuntza edo hitzezko baliabideetan ere hobekuntzak ikusten dira. Hizkuntza baliabideetan aurrerapena ikusten da, esaterako, hiztegian, aditzean, adjektiboaren erabileran, baliabide paraberbaletan (ahots bolumenean, intonazioan, arnasa, ebakerran). Dena dela, hizkuntzaren lanketan zehaztasun handia behar da, sekuentzian zentratu eta zehaztasun gehiagorekin jaso, orduan eta neurgarriagoak baitira hobekuntzak. Aurreratzeko zailtasun gehien, ordea, hizkuntzaren moduluan ikusten da, sekuentzian hizkuntza baliabideak zehazteko zailtasuna dagoelako; zer hizkuntza baliabide irakatsi ongi josi behar delako testugintzarekin (aurreko moduluarekin, diskurtsoaren testuratze mekanismoak bideratzeko zer hizkuntz baliabide behar diren), eta azkenik, atal honetan nabarmena delako ikasle bakoitzaren hizkuntz baliabideen pisua edo, beste modu batera esateko, ikaslearen hizkuntza maila.

Lan egituratu eta sistematizatuagoa egin den ikastetxeetan lortutako emaitzak

Ikasleen elkarreraginaren inguruko lanketaren zailtasunei aurre nola egin aztertzen badugu, hots, nola esku hartu haien hizkuntz baliabideak elikatu eta osatze aldera eta nola burutu horrelako sekuentzia didaktiko bat, esan daiteke azkeneko ikasturtean lorpen txiki batzuk ikusi ditugula. Altsasuko BHI_n DBHko I. mailan ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna eta ikasketa kooperatiboa elkarrekin landu ondoren emaitza batzuk ikusi ahal izan dira: ikasleen arteko elkarreraginean ahozko hizkuntza erabili da, egoera kontrolatu eta bideratu batean eragitea lortu da. Horrek esan nahi du ikasleen arteko hizkuntz ohituren aldaketa bideratzeko zirikitu bat ireki zaigula. Bestalde, ikaskide taldeen rolen artean euskara arduradunaren rola definitu da eta nola eragin ikusi da; lanerako material eta eredu ugari sortu dira; ikasleen elkarreraginean ahozko komunikazio gaitasunean aurrerapenak ikusi dira; ikasgaien edukien lanketa eta ebaluazioa, neurri batean bederen, bide horretatik egin ahal izan da. Aurten elkarreragin hori ahalbidetzeko proposamen berria egingo da, oraingoan, Arnegi-Luzaideko Eskolan LHko 5. mailan.

Beste maila bateko hobekuntzak aipatzearen, esaterako, ahozkoak ikasleen motibazioan eragin positiboa izan du, ikasleen hizkuntzaren erabileraren gaineko gogoetan ere bai, ikasleen parte hartzea sustatzen da eta ikasleen autonomia ere hobetzen du.

Hobetzekoak ikasleen ahozko ekoizpenetan

Ahozko ereduaren imitazioek duten gehiegizko pisua, imitazioa neurrian onuragarria dela ukatu gabe.

Diskurtsoaren testuinguruko elementuetan eta baliabide ez-hitzezkoetan zehaztea noraino den estilo propioa eta noraino lanketaren emaitza.

Testu egitura zurrunen pisua, testu hibridoetara salto egiteko zailtasuna.

Hizkuntz baliabideen lanketa zehatz eta progresiboan, sekuentziazioan lan handia dago egiteko.

Ebaluazioa: nola uztartu taldekako ekoizpenen ebaluazioa eta ebaluazio indibiduala, norberarena, batez ere, hizkuntz mailako hutsuneak garaiz betetze aldera. Hau da, ikasle baten hizkuntza maila hobetzeko behar nabarmena eta esanguratsua izatea.

Irakasleen gaitasun didaktiko eta metodologikoei begirako hobekuntzak

Ahozkoa modu sistematikoan nola landu ikusi da.

SDa dispositibo egokia da, izan ere, SDaren diseinuaren koherentziak prozesua egoki bideratzea ahalbidetzen du.

Helburu komunikatiboaren garrantzia eta formulazio egokian aurrera egin da, baita helburu komunikatiboari dagokion testu genero zehatzean ere.

Ahokotasuna hainbat ikasgaitan landu da.

Ikasleen parte hartze aktiboa eta, horren ondorioz, ikasleen artean lortu duen balorazio positiboa.

Ahozkoa ikasle guzti-guztiekin lantzeko modua eskaintzen du.

Testuinguruaren lanketaren eta garrantziaren ulermenean aurrera egin da, eta baita SDaren barruko elementuen (ereduak, landuko dena, jarduerak eta kontrol zerrenda) zehaztasunak duen garrantzian eta koherentzian ere.

Identifikatutako zailtasunak irakasleen prestakuntzan

Irakasleei dagokienez, hizkuntzaren lanketaren ikuspegian (zuzentasunari, gramatikari eta idatziari lotuegia) desikaste prozesu bat eskatzen du, eta ahozkoari lotuago egonen den ikuspegia ikastea.

Lanaren gaineko gogoeta egitean, ikasleen ahozko ekoizpenen ebaluazio eta lanketa mailakatua eta neurtua egitean, eta ikasleengan emaitzak ikustean (batez ere, prestakuntzaren hasierako urtean).

Helburu komunikatiboaren formulazio egokian, sarritan, helburu komunikatiboaren orde, testu generoa aipatzen baita. Adibidez: «LH5eko ikasleok LH1eko ikasleei ipuina kontatuko diegu» formulatu beharrean, «Ipuina kontatu». Zailtasunak zailtasun, hala ere, aurrera egin da helburu komunikatiboaren formulazioan.

Testuinguruari dagokion elementuen identifikazioan eta lanketan.

Ikasleen ahozko ekoizpenen ebaluazioan ere oraindik bidea egin behar da, zuzentasunetik eta idatziaren parametroetatik ebaluatzeko joera baitago. Hortaz gain, dena ebaluatu nahi izaten da ahozko ekoizpen batean, eta hor neurria hartzeko modua bilatu behar da; hasierako kontrol zerrendak izan behar du abiapuntua. Eta

beti, ikasleei lehenengo ongi egindakoak eta gero hobetzekoak nabarmentzea izan behar du urrezko araua.

Prestakuntzan parte hartu duten irakasleen profilari dagokionez, esanguratsua da Bigarren Hezkuntzan euskara irakasleen parte hartze mugatua.

Azkenik, irakasleen artean zailtasunak ikusten ditugu, nahasketa dagoelako ahozko komunikazio gaitasuna irakastearen artean eta ikasleen hizkuntza (euskara) erabiltzeko gogoaren eta atxikimenduaren artean. Horiek biak elkarreraginean daudela ezin da ukatu, baina bien arteko harremana konplikaturik da, irakasleen lanketei begira une oro fokua non jartzen ari garen zehaztu beharko genuke, eta horretan zailtasunak ditugu, baina, hala ere, prestakuntzaren ondoren aurrerapena ikusten da.

Irakasle batek esandakoa hau: «Arazoa dugu euskararen erabileran eta hori nola bultzatu da gakoa askotan» (2019).

Antolamendu mailako arazoak

Antolamendu mailako arazoek, bestalde, ahozkoaren lanketa sistematizatu, planifikatu eta programatzeko bidea zaildu egiten dute, erraztu beharrean. Irakasle taldeek eta zuzendaritza taldeek zailtasunak dituzte gai honi lehentasuna emateko. Lehentasuna edo presa duten gaiak urte batetik bestera aldatzen dira, eta orain arte, bederen, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna ez da lehentasuna izan. Ikusi dugunaren arabera, gutxienez, hiru bat ikasturte behar dira ikastetxe bateko irakasle taldea prestatzeko eta lan ildoak ikastetxean sendotzeko. Jarraipen horri beste zailtasun bat ere gehitzen zaio ikastetxe publikoetan: klaustrokide asko aldatzen direla urte batetik bestera.

4. Ondorioak

Euskararen egoerak eta murgiltze ereduak, nahitaez, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna lantzea eskatzen dute. Gure inguruko hizkuntzetan, apika, ahozkoaren lanketa eta ebaluazioa ez dira gehiegi lantzen eskolan; baina, inork ezin du ukatu euskararen kasuan ez lantzeak dituen eragin kaltegarriak euskararen aurrerabidean. Euskarazko irakaskuntzak emaitza onak eman dituela argi dago, baina era berean onartu beharra dago, emaitza horiek hobetu litezkeela eta horretarako bideak jorratu behar direla, eta bideak esaten dugunean, neurtu eta ebaluatuko ditugun bideak esan nahi dugu, alegia, jarraipen zehatza izan behar dutela eta urrats sendoak emateko modua izan.

Ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna eskolan lantzeko nahikoa arrazoi dago, baina errealitateak esaten digu ez dela behar den bezala lantzen, ez modu sistematiko eta planifikatuan, alegia. 2010ean gaia landu eta prestakuntza diseinatzen hasi gineanean, irakasleen artean kezka nabarmena zegoen, hau da, ikusten zuten ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko beharra, baina hura ez lantzeko arrazoiak aipatzen zituzten: prestakuntza falta, beta falta, material falta eta abar.

Gaur egun, hamar urte geroago, eta zenbait irakasleri eta ikastetxe gutxi batzuei esker, esan dezakegu asko aurreratu dela, ahozkoa nola landu daitekeen jakitean, hau da, baditugula ahozkoa lantzeko praktikak eta badakigula ahozkoa nola irakatsi. Ahozkoaren ebaluazioan ere bide zati bat egin da. Noski, bidea egin ahala hutsune

eta erronka berriak ere sortu dira. Eta, esaterako, ikasleen arteko elkarreragina lantzeko modua nola egin ikusi da. Ahozko corpusa sortzeko urratsak egin dira, eta emaitzak ere baditugu. Irakasleak prestatzeko formazioa eta baliabideak ere sortu dira, eta prestakuntza mailako arazoak identifikatu dira. Hortaz, ahozkoaren lanketa modu sistematikoan eta planifikatuan burutu daiteke ikasgeletan¹⁴ eta nola egin ere badakigu.

Inplementazioan, ordea, ikastetxeek ahozkoa propio lantzeko erabakian, antzeko tokian gaudela esanzen genuke, ez baitu lehentasunik ikastetxeen programazioetan. Ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko erabakia neurri batean ikastetxeen esku dago, curriculumak horretarako bidea eta eskakizuna bermatzen baititu, baina, hala ere, horretan ez da aurrerapauso handirik ikusten. Arazo nagusienak, gure ustez, erabakiak hartzeko borondatean daude, antolamendu mailako arazoei eragiten baitio horrek zuzen-zuzenean. Ahozkoa lantzeko beharraz zuzendaritza taldeak eta irakasleak jabetzea ezinbestekoa da.

Bestalde, sekuentzia didaktikoaren egitura eta diseinua erabilgarriak, operatiiboak eta eraginkorrak dira ikasleekin ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko. Dolz eta Scheneuwly-k (Idiazabal eta Manterola, 2009) diote sekuentzia didaktikoei bi ezaugarri nagusi dituztela: koherentzia eta malgutasuna. Guk praktikan urte hauetan hori ikusteko eta baieztatzeko aukera izan dugu: irakasleek gelan egiten dutenari koherentzia ematen dio eta malgutasuna ematen du Haur Hezkuntzako I. mailatik hasi eta Batxilergoko 2. mailaraino lantzeko, irakasgai desberdinetan zein ikasleen hizkuntza tipologia desberdinekin aritzeko.

SDaren diseinuak, hasieran bederen, zuzenketa eta aholkularitza zehatza eskatzen ditu, SDa gelaratu aurretik egon daitezkeen hutsuneak osatzeko eta irakasleei lagundu eta animatzeko aurrera egin dezaten, nahiz eta, hasieran, dena kontrolpean ez izan.

Gure ustez, bide hau ikerketarekin lotu beharra dago, epe ertainera emaitzak ikusten ote diren jakiteko eta inplementatzen ditugun neurriak eta bideak onak diren ala ez ikusteko. Helburua bada ikasleek euskara maila *onargarria* lortzea, euskaraz hitz egiteko gai izan daitezen, eta ibilbide akademiko asebetegarria eskuratzea, ezinbestekoa da ebidentziak izatea.

Bukatzeko, eskerrak¹⁵ eman nahi dizkiegu parte hartu duten ikastetxeetako irakasle guztiei, eta bereziki, Altsasuko BHIko irakasle taldeari, haiek gabe ezinezkoa izanen baitzen ibilbide eta egitasmo hau egitea. Ezinbestean irakasleekin elkarlanean onduko den egitasmoa izan behar duela iruditzen zaigu, haiek baitute lehengaia eta haiek baitaude ikasleekin zuzenean lanean. Gure lanak irakasleei laguntzea izan behar du, eguneroko jardunean dituzten erronkak, trabak eta zailtasunak gainditzeko.

¹⁴ Horren erakusgarri dira ondoko webguneetan jasotako materiala eta baliabideak: AHI webgunea Ken hutsunea. Altsasu BHI-Ahazkotasuna.

¹⁵ Rosa Ramos Alfarori eskerrak eman nahi dizkiot artikulua idazketa hobetzeko egindako ekarpenengatik.

Erreferentzia bibliografikoak

- ALEXOPOULOU, A. (2011). «El enfoque basado en los géneros textuales y la evaluación de la competencia discursiva», in *Del texto a la lengua. La aplicación de los textos a la enseñanza-aprendizaje del español L2-LE*, I. ASELE, 97-110. Hemendik eskuratua: http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/2I/2I_0097.pdf
- AMONARRIZ GORRIA, E., OSA, E., ARRUTI, I. (2004). «Ahozkotasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntz proiektuaren markoan», *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 51, 137-156. Hemendik eskuratua: <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/ahozkotasuna-eremu-ez-kurrikularrean-hizkuntz-proiektuaren-markoan/>
- BRONCART, J-P. (2004). *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje.
- (2008). *Desarrollo del lenguaje y didáctica de las lenguas*. Buenos Aires: Miño y Dávila.
- CALSAMIGLIA, H., TUSÓN, A. (2007). *Las cosas del decir (Manual de análisis del discurso)*. Barcelona: Ariel Lingüística.
- COMAS, N. (2019). «¿Sirve la formación permanente del profesorado para mejorar los resultados educativos de los alumnos?». Institut Català d'Avaluació de Política Pública. Fundació Ricardo Bofill (I-27). Hemendik eskuratua: https://fundaciobofill.cat/uploads/docs/m/a/z/6/1/0/z/y/2/que_funciona_I4_formacionpermanente.pdf
- DE PRIETO, J. F. eta DOLZ, J. (1997). «Ahozkoa, testu gisa: nola eraiki objektu irakasgarri bat». Jatorrizkotik itzulia eta hemendik eskuratua: https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/ahozko-hizkuntza/08_ahozkoa_testu_gisa.pdf/
- DOLZ, J., GAGNON, R. eta MOSQUERA, S. (2009). «La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción», in *Didáctica. Lengua y Literatura*, vol. 21: 117-141.
- ESTEVE, O. (2004). «Nuevas perspectivas en la formación de profesorado de lenguas: hacia el “aprendizaje reflexivo” o “aprender a través de la práctica”», in *Bremen: Actas de las Jornadas Didácticas de Español y Alemán como Lenguas Extranjeras*. Hemendik eskuratua: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/publicaciones centros/PDF/bremen_2004/02_esteve.pdf
- FISHMAN, J. (1991): *Reversing language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*, Clevedon: Multilingual Matters.
- GARZIA, J. (2008). *Jendaurrean Hizlari*. Donostia: Alberdania.
- GOIKOETXEA, J. L. (2003). *Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera. Euskal diglosia irazian*. Euskaltzaindia eta Euskal herriko Unibertsitatea. Hemendik eskuratua: <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/53932.pdf>
- (2005). «Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna» *Euskera* L, 2005-2, 747-764. Hemendik eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/65884.pdf>
- IDIAZABAL, I. (2011). «Eleaniztasuna hezkuntzaren derrigorrezko beste utopia bat?», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 81, 89-105. Hemendik eskuratua: <https://soziolinguistika.eus/files/Itziar%20Idiazabal.pdf>
- IDIAZABAL, I. eta MANTEROLA, I. (2009). «Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa», *Euskera*, 54, 2-I. zatia, 463-504. Hemendik eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74632.pdf>

- LARRINGAN, L. M. (2009). «Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza», *Euskera*, 54, 2-I. zatia, 505-529. Hemendik eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74633.pdf>
- MUGERTZA, E. eta OLASAGARRE, Y. (2010). «Nafarroako hainbat ikastetxetan euskararen erabilera sustatzen ari zarete. Nola?», *Hik Hasi*, 149, 28-32. Hemendik eskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20I0060I/nafarroako-hainbat-ikastetxetan-euskararen-erabilera-sustatzen-ari-zarete-nola>
- (2015). «Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 96, 2015 (3), 69-101. Hemendik eskuratua: <https://bat.sociolinguistika.eus/eu/produktua/euskara-bultzatzeko-esperientziak-nafarroako-irakaskuntzan-motibazioa-eta-ahozkoa/>
- NÚÑEZ, M. P. (2009). «Investigación, innovación, transformación. Bases para la formación del profesorado desde la perspectiva científica de la Didáctica de la Lengua y la Literatura», in *Investigar para escribir, leer y hablar con sentido crítico y transformador*. Bogotá (Colombia): Universidad Javeriana e Instituto para la Investigación Educativa y el Desarrollo Pedagógico-IDEP, 92-107.
- OLASAGARRE, Y., RAMOS, R. eta VILCHES, C. (2019). *DBHko ikasleen hizkuntz atxikimendua bobetzeko ikerketa eta esku-hartzea*. Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua. Hemendik eskuratua: <https://drive.google.com/file/d/IpMF0rPv6zSQtKbcIaedTUbupVgUEIbv6/view>
- RUIZ BIKANDI, U. (2010). «Ahozko hizkuntza irakastea», in Ruiz Bikandi, U. (apailatzailea), *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. EHU-UPV, 179-206.
- SAINZ, M. (koord.) (2010). «Ahozko hizkuntza lantzen», *Hik Hasi*, 25 [ale monografikoa].
- SANCHEZ CARRION, J. M. *Txepetx.* (1991). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: Elkar. Hemendik eskuratua: <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/view-File/8593/8341>
- VILÀ, M., CASTELLÀ, J. M. (2014). *10 ideas clave. Enseñar la competencia oral en clase*. Barcelona: Graó.
- ZABALA, J. (2013). «Ahozko hizkuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, (2-3), 127-148. Hemendik eskuratua: <https://soziolinguistika.eus/files/Josune%20Zabala.pdf>
- ZALBIDE, M. (2003): «Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?», *erabili.eus*, 2003.07.07. Hemendik eskuratua: http://www.erabili.eus/zer_berri/mui-netik/1056974834

SORMEN DIGITALA

Alberto Barandiaran Amillano
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko
Euskara Ataleko euskara teknikaria
abaranda@navarra.es

Abiapuntua

Ahokotasuna da, gaur egungo Euskal Herriko geletan, kezka eta iturri nagusietako bat, landu beharreko alderdia zalantzarik gabe. Gazteek hizkuntza testuinguru formaleko erregistro huts gisa ikus ez dezaten, eduki akademikoak transmititzera mugatzen den gramatika eta hiztegi multzo bihozgabea, eguneroko kezka eta grinak adierazten uzten ez dien mintzaira bat, azken finean, hizkuntza bizi batekin esperientzia aberasgarria behar dute, eta horretarako oso baliagarria izan daiteke kultur sorkuntza eta arte ekoizpena ezagutzea. Ikerketa askok frogatu dute kultur adierazpideak oso eraginkorrak direla ahozko jarduna landu eta hobetzeko, eta ez dugu ahaztu behar euskal kultura transmititzea, berez, hizkuntza bera lantzea, prestigioatzea eta interesgarri egitea da. Izan ere euskarak, hizkuntza guztiek bezala, ezinbestez behar du lurralde eta kultura batekiko lotura. Beraz, hizkuntza bera lantzea, prestigioatzea eta interesgarri egitea da.

Baina transmisio hori norabide bakarrekoa ez izatea nahi badugu, alegia irakasleek erabakitako eredu formaleko transmisio hutsetik haragoko zerbait izatea nahi badugu, interesa piztu behar dugu, eta interesa pizteko, ezinbestekoa da ezagutzea. Baina nola iristen dira gazteak euskal musika, antzerkia, dantza edo literaturara? Zer dakite ekoizpen horretaz?

Has gaitezen beste galdera batekin. Zer baloratzen eta kontsumitzen dute egungo gazteek? Musika, noski; ikus-entzunezko edukiak, zalantzarik gabe; sare sozialek jaulkitzen dutena, bistan da. Hor egunero ari dira edukiak kontsumitzen, partekatzen, sortzen. Badakigu sormenak asko laguntzen diola ikaslearen garapenari, eta curriculum guztietan sormena landu beharra aipatzen da. 'Sormen digitala' aurrerako irakasgai honen helburua da, interes horietatik abiatuta, DBHko ikasleak esperimentatzera gonbidatzea. Esperimentatzea hitzarekin, testuarekin, artearekin, ikus-entzunezkoekin, teknologiarekin. Eta edukiak sortzera gonbidatzea ere, sinetsirik prozesuan sormena sustatuko dela, egungo kultur ekoizpenarekiko interesa piztuko dela eta kontsumitzaile potentzialak sortzen lagunduko dugula.

Nola landu daiteke hori guztia? Euskarazko eta katalanezko hainbat komunikabidek produktu fresko, gazte eta erraz kontsumitzekoa sortu zuten duela ez asko:

Zut aldizkaria. Bideo laburren bidez, youtuberrek modari edo ariketa fisikoari buruzko aholkuak ematen dituzte; musikariek abestiak interpretatzen dituzte edo zaletasun musikalez hitz egiten dute musika-zerrendak partekatuz; mugikorrerako telesailak sortzen dira.

Programa honetan, DBHko 2. edo 3. mailako ikasleei eskaintzen zaie interesatzen zaizkien gaien inguruan bideo laburrak egitea, beren interesen arabera betiere: aukeratzen dituzten pertsoneri elkarrizketak egin eta grabatzen dituzte; arte ekoizpenak sortzen; publizitate-iragarkiak grabatzen. Gainera, ikasturtean zehar, irakasgai hau aukeratzen duten ikasleek aukera dute artisten eta sortzaileen bisitak jasotzeko ikasgelan: musikariak, zinemagileak, idazleak, dantzariak. Bilera horietan sortze-prozesua azaltzen diete, eta ikasleen dinamiketan parte hartzen dute. Ekoizpen hori guztia *Zut* aldizkarikoek hartu eta diseinatzen dute gero, ikastetxearen aldizkari digitala sortzeko.

Irakasgaiaren diseinua

Proiektu guztia diseinatu eta garatzeko, 2020-2021 ikasturtea hasi aurretik hainbat bilera egin genituen irakasgai libreen bidez sorkuntza artistikoa lantzen duten ikastetxeetako zuzendariekin, eta berehala antzeman genuen proposamenak harrera ona izango zuela. Bereziki ondo baloratu zuten argitalpen hori publikoa izateko aukera, pizgarria izango zelakoan ikasleentzat. Halaber, proposamenaren egokitasuna ere nabarmendu zuten, eta eskaintza ikasleei egiteko konpromisoa hartu zuten. Era berean, atak zabaldu zituzten sailen arteko proiektuetan sorkuntza-dinamikak lantzeko, ahalik eta ikasle gehienengana iristeko.

Behin ikastetxeen oniritzia lortuta, irakasgaia bera diseinatzeari ekin genion. Hainbat aukera aztertu ondoren, erabaki genuen ikastetxeek irakasgai propioa sortzeko duten prozedura erabiltzea. Hasierako asmoa hautazko irakasgaia eskaintzea izan bazen ere, hori hiru ikastetxetan bakarrik lortu zen, nahiz eta denek eskaini zuten hautazko aukera gisa: Eunate BHI, Iturrama BHI eta Jaso Ikastola. Iparralde BHI, Alaiz BHI, Lekaroz BHI eta Altsasu BHI institutuetan, berriz, proiektu gisa eskaintzea erabaki zuten, hautazkoen eskaintza handia zelakoan edo erabaki zutelako, proiektuen bidez lan egitera ohituta egonik, metodologia horretan sakontzea. Ondorioz, 300 ikasle baino gehiagok jaso zuten, 2020-2021 ikasturtean, irakasgai hau.


Prozedura administratiboarekin batera, irakasgaiaren beraren diseinu praktikoari ekin zion lantaldeak. Hasieratik, lau lagunek parte hartu zuten prozesuan: Mirentxu Oteiza eta Miren Basurto EIBZko irakasleak, Ion Hernan Euskara Ataleko aholkularia eta Alberto Barandiaran Euskara Ataleko teknikaria. EIBZko irakasleek material pedagogikoa eta prestakuntza saioak antolatu zituzten; Ion Hernan curriculum eta ikastetxeekiko harremanaz arduratu zen eta Alberto Barandiaranek lana koordinatu zuen.

EIBZko irakasleek lau tailer diseinatu zituzten. Gazteen sormena eta irudimena gelan lantzea helburua izanik, gazteen arreta erakartzeko **tailerrak** erabiltzea proposatu zuten: proposamen sortzailez betetako unitate didaktikoak, egitasmo honetarako berariaz landuak. Oso bide askea erakutsi zieten ikasleei: ebaluazio bakoitzean tailer bat edo gehiago lantzeko eta tailer bakoitzean produktu artistiko bat edo gehiago sortzeko aukera, haien gustuen, interesen eta nahien arabera.

I. irudia:
Tailarren zirriborro bat



2. irudia:
Tailer baten buru mapa



Lau tailer diseinatu ziren: *Ezpainzapia*, *Handia eta Maskarak*, *Frontoia*, eta *Txalaparta*. Tailer bakoitzean proposamen sorta autonomo eta irekia aurreikusi zen. Tailerretan ikusi eta ikasitakoak eragindako sentipen, gogoeta eta sentimenduak hartu eta dantzaren, musikaren, antzerkiaren edota arte plastikoaren bidez irudikatzea, beraz.

Lau tailer horiek lau sortzaileraren ekarpenekin aberastu ziren (Oskar Alegria zinemagilea, Ines Osinaga musikaria, Leire Urbeltz artista plastikoa, eta Oier Zuñiga antzerkigilea). Lauri tailerren proposamenaren berri eman eta norbere diziplinatik ekarpen egiteko eskaini zitzaizkien. Lau tailer horiek bi ezaugarri komun dituzte:

- Alde batetik, emozioa eta sentimendua: sorkuntza-lanak emozioetatik eta sentimenduetatik abiatzea da proposamenaren oinarrian dagoen ideia.
- Beste aldetik, gure kultura eta gure kultur ondarea ezagutzea da helburua, oinarri horretatik beste kultura batzuetara jauzi egiteko eta kulturartekotasuna lantzeko. Baita hainbat alorretan esperimendatzeko eta objektuei erabilerak berriak emateko ere. Azken finean, produktu berriak sortzeko. Nolabait esateko: tradizioan oinarrituriko sorkuntza garaikidea egiteko.

Prestakuntza eta bisitak

Irakasleen prestakuntza da proiektu honen giltzarrietako bat eta, Euskarazko Irakaskuntzarako Baliabide Zentroarekin (EIBZ) koordinatuta, irakasgaiaren ardura duten irakasleentzako balizko prestakuntza-proposamena diseinatu genuen.

Ikasturtearen hasieran, irakasgaiaren diseinu curricularra eta antolaketa, oinarriak, abiapuntua eta planteamendu orokorra azaldu eta tailerren inguruan xehetasunak jaso zituzten irakasleek: nola erabili tailerretarako prestatutako materiala; nola baliatu buru mapak eta abar. Jarraian, lau sortzaileek saio bana eman zuten. Saioetan nork bere diziplinatik hitz egin zuen, irakasleei gelan sormena lantzeko tresnak emateko. Saioak balio izan zuen irakasleek irakasgaiarekin lehen harremana izan eta proiektuaren oinarriak ulertzeko.

3. irudia:


Programan parte hartu zuten irakasleekin egindako prestakuntza saio bat



Ondoren, urrian, Garikoitz Iñigo Iruñeko ILZko Hezkuntza Teknologietako aholkulariak prestakuntza saio bat eman zuen egile eskubideez eta lizentzia baime-naz. Saioaren helburua izan zen sare sozialen erabilera egokiari buruzko prestakuntza telematikoa eskaintzea, azaltzeko nola jokatu behar den gazteekin sare sozialen erabilera pedagogikoa eta arduratsua lantzeko. Baita baliabideen erabilera-eskubideei buruzko gakoak ematea ere: alde batetik, zein baliabide hartu eta nola berrerabil dai-tezkeen, daukaten lizentziaren arabera; bestetik, egilearen aitortza nola egin.

4. irudia:

Irudien eskubideen inguruan egindako prestakuntza saioaren irudi bat



Saioan hamazazpi irakaslek parte hartu zuten, zazpi ikastetxetatik etorrira.

Prestakuntza honen osagarri gisa, EIBZko irakasleek Moodle leiho bat prestatu zuten, irakasleen, sortzaileen eta aholkularien artean aholku- eta harreman-gune bat ezartzeko. Hau da, irakasleen prestakuntza osatzen jarraitzeko eta irakasgaiaren jarraipena egin ahal izateko.


5. irudia: Programa osoa Moodlen bidez koordinatu zen



Urriaren zehar ere, ZUT aldizkariko kideen bisita egutegia antolatu genuen ikas-txetxeekin elkarlanean. Bisita horietan, kamera aurrean jarduteko gomendioak, grabatzeko plano motak, argiak eta ilunak kudeatzeko teknikak, soinua eta musika txertatzeko baliabideak edo mugikorren grabatzeko aplikazioak esplikatu ziren. Irakasgaia martxan jartzea erabaki genuenetik indartzen joan den sententzia berretsi ziguten bisita horiek: pandemiaren garaian irakasgaiarekin aurrera egitea apustu arriskutsua izan zen, baina, era berean, erabaki zuzena. Hala ere, denbora gehiagoren beharra azpimarratu zuten irakasleek, saioak motzak izan zirela iritzita.

6. 7. eta 8. irudiak: Ikus-entzunezko materiala sortzeko saioak egin ziren ikastetxeetan





Ondoren, azaroan zehar, sortzaileen bisitak antolatzeari ekin genion. Nahiz eta zuzenean prestakuntzatzat ez hartu, bisita horien helburua zen ikasle eta irakasleei tresnak ematea sormena gelan lantzeko. Lau sortzaileok (Oskar Alegria, Ines Osinaga, Leire Urbeltz eta Oier Zuñiga) badute esperientzia hezkuntza arloan, hainbat hezkuntza programatan parte hartu dutelako euskarazko irakaskuntzarekin lotuta. Eta saio praktiko eta parte hartzailea prestatzeko eskatu genien, bonbilla eta lorearen estrategiatik abiatuta: ikasleek proiektuaren ideia nagusiak azaldu behar zizkieten sortzaileei eta hauek, trukean, lore bat (proiektuaren alderdi interesgarri bat azpimarratu) eta argi bat (idea edo proposamen berritzailea proposatu) itzuli behar zizkieten ikasleei. Horretaz gain, bideo laburrak egiteko proposamenak eramateko eskatu genien sortzaileei, ikasleek begirada desberdinak ezagut zitzaten. Adibide motzak, gazteak, askotarikoak.

Ikasturtearen amaieran, ikastetxe bakoitzak bere aldizkaria jaso zuen, gelan sortutako lanekin maketatuta eta ekoizita. Kalitate eta sormen handiko proiektuak denak.

2021-2022 ikasturtea

Lehen urtearen balantzea egitean, esan dezakegu oso balorazio ona jaso duela proposamenak, nahiz hobetzeko tarreak ikusten diren.

Azpimarratzeko moduko arloak

- Ikasleak motibatuta antzeman dituzte irakasleek. Autonomia lantzeko tresna ona iritzi diote proiektuari.
- Ohiko irakasgaietan akademikoki zailtasunak dituzten ikasleek espazio berri bat antzeman omen dute, eta autoestimurako ere onuragarritzat jotzen da. «Sormen handiko» ikasleak deskubritu dituzte irakasleek.
- Lan egiteko modu hau «etorkizuna» dela diote.
- Mintegien arteko koordinazio lana erronka handienetakoa da baina, era berean, lan egiteko modu oso interesgarria dela diote irakasleek.
- Ikastetxeen Hizkuntza Proiektuarekin lotzeko aukera ikusten dute.
- Propio irakasgai honetarako sortutako materiala —lau tailerrak— oso baliagarritzat jo dute.

Hobetzeko moduko arloak

- Zuzendaritza taldeak inplikatu behar dira hautazko irakasgaiak aurrera egin dezan, eta irakasle finkoen esku utzi behar da ardura.
- Proiektua sendotzeko denbora beharko dela uste dute irakasleek.
- Prestakuntza motz geratzen dela azpimarratu dute, eta sortzaileen bisita gehiago eskatu dituzte.
- Koordinazioa da gehien kostatzen zaiena, diziplinarteko proiektuen kasuan. Elkartzeko orduak topatu ezinda omen dabilta irakasleak, eta koordinatzeke orduak eskatzen dituzte.

2021-2022 ikasturtean, 12 ikastetxe parte hartzen ari dira proiektuan: Toki Ona BHI (Bera), Askatasuna BHI (Burlata), Biurdana BHI, Otsagabia DBHI, Erronkari DBHI, Iturrama BHI, Jaso Ikastola, Altsasu BHI, Lekaroz BHI, Alaitz BHI (Barañain), Leitza BHI eta Iparralde BHI.

Aurrera begira, beharrezkoa ikusten da programa baliatzea ardura eta gaitasun digitalaren gaia lantzeko ikastetxeetan. Alde batetik, ikasleak ohar daitezen edukiak sare sozialen bidez zabaltzeak eskatzen duen arduraz eta dituen arriskuez; bestetik, ikasle eta irakasleak digitalki trebatzeko.

EUSKARA SUSTATZEKO BERRIKUNTZA PROIEKTUAK IRUÑEKO PATXI LARRAINZAR IKASTETXEAN

Edurne Goñi Olite
Patxi Larrainzar eskolako irakaslea
egonioli@educacion.navarra.es

Oihana Iñigo Olondriz
Patxi Larrainzar eskolako irakaslea
oinigool@educacion.navarra.es

Patxi Larrainzar Iruñeko Arrotxapea auzoan kokatua dagoen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da, eta hiru bereizgarri nagusi ditu. Alde batetik, eskola publikoa da eta, beraz, laikoa, akonfesionala, plurala eta guztientzako irekia. Bertzetik, hiriburuko auzo historiko batean kokatua dago, eta hasiera-hasieratik saiatu izan da auzo horretako izaera eta giro sozialarekin bat egiten, alegia, auzoko zerbitzu bat izaten eta bertako biztanleriarekin lotura, elkarlana eta konpromisoa bultzatzen. Iruñeko Udalaren Soziologia Unitatearen 2021eko datuen arabera, Arrotxapea hiriburuko auzorik jendetsuenetarikoa bat da, 26.731 biztanle dituena. Eta azkenik, D ereduko eskola da, eta auzoan euskaraz murgiltzeko aukera ematen duen ikastetxe bakarra da. Orain dela 25 urte, guraso talde batek izandako ilusio eta kemenari esker, oztopoz betetako bidea gainditu ondoren abian jarritako proiektua da, eta uste dugu mende laurden hori betetzearekin batera egiaztatzen ahal dela ikastetxea ongi errotua, sendoa eta duina dela, ikaslez ongi hornitua eta irakasle taldea finkatua duena.

Eskola honetara igortzen dituzten neska-mutikoen familia gehienak ez dira euskaldunak, eta hori eskolarentzako gainditzen joan behar den erronka handienetako bat izan da eta da. Pixkanaka bada ere, urratsak egiten ari dira eta, azkeneko urteetako datuei erreparatuz, ikusten ahal da familia euskaldunen kopurua handitzen ari dela. Haiek dira 2020-2021 ikasturteko Eskolako Hizkuntza Proiektuan jasotzen diren emaitzak: ikasleen 86 etxetan (% 17,8) euskaraz hitz egiten da, 176 etxetan (% 36) euskaraz eta erdaraz, eta gainerakoetan (% 46,2) erdaraz soilik.

Aipatu bezala, euskararen erabilera sustatzea izanik eskolak duen erronka nagusienetako bat, argi dago ikasleei tresna egokiak eman behar zaizkiela euskaraz bizi ahal izateko, bai eskolaren barruan eta, batez ere, eskolako paretetatik kanpo. Hori dela eta, ikastetxeko langileak saiatzeko gara gure txikiei euskararen erabilerarako aukerak eskaintzen, eta xede horretarako bideragarri diren proiektuak aurrera eramaten. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak urtero berrikuntza proiektuen deialdia egiten du, eta azkeneko urteetan zehar gure eskolak euskara sustatzea helburu duten hiru proiektu aurkeztu ditu eta guztiak onartuak izan dira. Horietatik bi azkeneko urteetan modu sistematikoan lantzen ari gara, dagozkien jarraipena eta ebaluazioa eginez, eta hirugarrena 2021-2022 ikasturte honetan abian jarritakoa da. Ondoko lerroetan banan-banan azalduko ditugu hirurak.

I. proiektua: *Elkartrukean*

Elkartrukean eskolako ikasle guztiak bereganatzen dituen proiektua da. Maila guztietako neska-mutikoen artean sortzen diren harremanetan oinarritzen da, eta,aldi berean, beraien artean elkarlanean gauzatzen diren hainbat ekintza ezberdin burutzen dira. Erraten ahal da eskolako ikasle guztiak modu sistematikoan batu eta inplikatzeko dituela. Antolaketa aldetik, baditu koordinatzaile bat eta lantalde txiki bat. Abian jarri zenetik bosgarren urtea bete du, eta egiaztatzen ahal da euskararen erabilera sustatzeko ez ezik, hagitx baliagarria dela ikasleen zenbait gaitasun indartzeko ere, hainbat eratakoak baitira egiten diren ekintzak.

Aurretik, eskolak zenbait urtez antolatu izan zuen, ikasturtearen amaierako ekitaldi gisa, «Patxi Larrainzar kantuz» ekimena, zeinetan eskolako ikasle zaharrenak eta gazteenak elkarrekin ateratzen ziren auzoan zehar abestera. Eskolako Euskara batzordeak, esperientzia haren balorazio positiboa ikusirik, proposatu zuen horrelako harremanak ikasturtean zehar sistematikoki egitea. Horixe izan zen geroago Elkartrukean proiektua izanen zenaren hasia, 2015-2016 ikasturtean lantzen hasi eta hurrengotik aitzina gauzatu zena.

Izan ere, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak iragarri zuen berrikuntza proiektuen deialdira Elkartrukean izenekoak aurkeztu zuen Patxi Larrainzar eskolak. Hezkuntza Departamentuak ontzat eman zuen, eta orduz geroztik ikastetxean urtero landu den eta jadanik erabat finkatua dagoen ekimena da.

Ikasturte bakoitzaren hasieran koordinatzaileak taula batean azaltzen du zein den talde bakoitzari egokitzen zaion bertze taldea. Xedea bi taldeen arteko elkarlana sustatzea denez gero, orientabide gisa urtean zehar lantzen ahal diren zenbait gai proposatzen dira.

Saioak, tutorearen gidaritzapean, normalean geletan garatzen badira ere, bertze toki batzuetara zabaltzen ahal dira, erraterako, patiora, liburutegira, musika gelara... Ekintza batzuetan familiak ere gonbidatzen dira parte-hartzera.

Metodologiari dagokionez, proiektua irekia da, parte-hartzailea, alegia, ekimenearekin batera sormenari ere leku ematen diona, ikasleen ideiak sorraraztera bideratzen duena, ikerketara bultzatzen duena. Erran nahi da landu beharreko proposamenak hasieran zehatzak izan arren, ez direla itxiak, prozesuan zehar aspektu berri eta osagarriak aukeratu eta txertatzen ahal direlako.

Jarraian, adibide gisa, abian jarri zenetik egin izan diren eta ohikoak diren ekintza konkretu batzuk azaltzen dira:

- Ikasleen arteko ahozko aurkezpenak antolatzea.
- Bertze taldeko bikotekideari gutuna edo marrazkia postaz igortzea.
- Inauterietako moxorroen zergatia azaltzea eta haien prestaketa nola egin den adieraztea.
- Antzerki saioak bertze taldeari euskaraz eta ingelesez eskaintzea.
- Liburuen irakurketa saioak.
- Kantu eta jolasak elkarrekin lantzea.
- Gelan landutako proiektu bat aurkeztea.

Ebaluazioari dagokionez, azpimarratzekoa da irakasleek, ikasleek eta familiek ere, proiektuari ikusten dizkioten alderdi positiboak gorai patu izan dituztela urtez

urte. Ikasturtean zehar egindako *Elkartruke* saioetako ekarpen positiboak oso kontuan hartzen dira hurrengo ikasturteetan hobekuntzak txertatu ahal izateko.

Ohartarazi behar da azkeneko bi urteetan COVID-19 pandemia dela eta, proiektuaren garapenean zailtasunak izan direla. Pandemiaren hasieran, proiektua bertan behera geldí ez zedin, aldaketa eta egokitzapen batzuk egitea erabaki zen, eta teknologien laguntzari esker, lortu zen, modu murriztago batean bazen ere, aurrera egitea. Hala ere, proiektua berez parte-hartzaileen arteko harremanetan, hurbiltasunean eta kontaktuan oinarritzen denez gero, begi bistako arrazoiengatik, ezin erran da ebaluazioa guztiz positiboa izan zenik. Egoerak hobera egiten duen neurrian, erabat berreskuratzea espero dugu.

Azkenik, aipatzekoa da proiektu hau ikasturte batean egiteko berrikuntza-proiektu gisa jarri zela abian, baina izan duen harrera eta interesagatik, eskolako ekimen finkoa bilakatu dela, zailtasunak zailtasun, etenik gabe garatzen segitzea lortu duguna. Hemen-dik aitzina, bere osotasunean berreskuratzea eta sendotzea ez ezik, Patxi Larrainzar eskolako ezaugarrietako bat izatea ere espero dugu.

2. proiektua: *Patíoa alaituz, elkartrukea indartu*

Proiektu hau Hezkuntza Departamentuak 2018-2019 ikasturterako egindako deialdian aurkeztu zen, eta onartua izan zen.

Lehen azaldu den Elkartrukean ekimenarekin guztiz lotua dago. Haren ildo pedagogiko, oinarri eta helburuak mantentzen ditu, baina hura baino konkretuagoa da. Alde batetik, eskolako bi maila (Lehen Hezkuntzako 2. eta 5. mailak) elkarlanean jartzen dituelako, eta, bertzetik, arlo jakin batean oinarritzen delako, hezkuntza artistikoan, hain zuzen.

Proiektu honek ere badu bere aurrekaria, hauteman zen behar bati erantzuna emateko sortu baitzen. Izan ere, eskola-komunitatea bi ikasturtez aritu zen patioaren inguruko hausnarketa egiten. Ikasle guztiei zer-nolako patioa izatea nahiko zuketean galdetu zitzairen. Erantzunen artean, patioan mural bat egiteko ideía izan zen proposamen nagusia. Elkartrukean proiektuan ordura arte esperimintatutako dinamika ikasleen ideía horri aplikatzea erabaki genuen, hari buruz egindako ebaluazioaren emaitza hagitik positiboa izan zelako eta patioaren aldaketa egiteko ere erabat egokitzat jo genuelako.

Helburu nagusia honako hau zen: bi mailetako ikasleek (Lehen Hezkuntzako 2. eta 5. mailakoek) patioa eraldatzea, muralak margotuz, artelan alaiak eginez beraien artean elkarbizitza eta euskararen erabilera sustatzea, adinez hiru urteko diferentzia duten ikasleen arteko parte aktiboa lortzea aberasgarria ere bai baita, kontuan izanik, gainera, xede bikoitza lortzeko aukera ematen duela. Alde batetik, ikasle horiek modu aktiboan parte hartu zuten materialaren aukeraketan, erosketan, artelanaren diseinuan, planoan egitean eta, azkenik, murala gauzatzeko orduan. Bertzetik, eskolako patioari, artelanen bidez, bizitasuna eta alaitasuna ematea lortu zen.

Proiektua oraindik ez da bukatu, bidean bi oztopo nagusi sortu direlako. Bata, margolana egin behar zen patioako eremua ikasturte batez itxita eduki behar izan zelako eskolako eraikinean gertatutako arazo batzuegatik. Bertzea, COVID-19 pandemiak eragindako geldialdia. Momentu honetan proiektua martxan dago, eta hasiera batean margotzeko aurreikusiak zeuden lau eremuetatik batean burutu da margolana. Une honetan, proiektua jarraipen prozesuan dago.

Batzorde txiki bat da proiektua koordinatzen duena, eta inplikatuak dauden mailetako irakasleekin batera ari da garatzen, alde batera utzi gabe irakasleen aholkularitza eta laguntza prozesuan zehar eman beharreko pauso guztietan, bai eta guraso talde baten parte-hartzea eta laguntza ere. Ildo horretan, aipatzekoa da familia batzuek hasieran eman zuten aholkularitzaren eta laguntzaren garrantzia.

Ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa erabatekoa da. Haiek dira proiektu honetan protagonista nagusiak, beraien esku baitago bai artelanak aukeratzea, bai muralak gauzatzea.

Une honetan, patioko mural handi batean eginak daude auzotik pasatzen den Arga ibaiarekin lotura duten marrazkiak. Datozen ikasturteetan, patioko bertze eremuak margotzeko asmoa dugu, prozesu eta metodologia bera aplikatuz, jarraipena bermatzeko.

Orain arte egin den lana modu positiboan baloratu da, eta, aipatu bezala, proiektuak jarraipena izanen du, falta diren bertze hiru eremuetan mural berriak eginen baitira.

3. proiektua: *Auzotik eskolara eta eskolatik etxetara*

Proiektu hau Hezkuntza Departamentuak 2021-2022 ikasturterako egin zuen deialdira aurkeztu ondoren, berrikuntza proiektu gisa aukeratua izan da.

Aspaldiko ohitura da gure eskolak familia guztiei banatzeko egiten duen urteroko egutegia, beti harrera ona izan duena. Orain arte, eskola-komunitateak ez du parte-hartze aktiborik izan egutegia gauzatzean, zuzendaritza taldeak hartutako zeregina izan delako eta honek aukeratu izan dituelako hilabete bakoitzerako argazkiak eta testu egokiak, betiere eskola-komunitate osoa bertan islatuta agertzea kontuan izanik. Baina pentsatu genuen egokiagoa izanen zela ikasleak ere inplikatzeko egutegia prestatzen. Izan ere, eskolako egutegia etxe guztietan egoteaz gain, ikastetxeko ikasgela bakoitzean urte osoan zehar zintzilik jartzen da, eta horregatik pentsatu eta baloratu genuen haiek egindako lan baten ondorioa izatearen garrantzia eta interesa.

Horretaz aparte, auzo bateko eskola garen heinean, egutegian inguru horretako bertze eragile batzuk agertzea interesgarria zela iruditu zitzaigun. Hori zela eta, egoki ikusi genuen auzoan berean edo auzoaren alde lan egiten duten pertsona euskaldunak Patxi Larrainzar eskolako egutegian agertzea. Horretarako, aukeratuko diren langile guztiekin lan eginen da, eta, ondorioz, egutegiko hilabete bakoitzean langile euskaldun horietako bat agertuko da. Produkzio hori, gainera, landu beharreko edukiekin guztiz lotua egonen da. Lanketa horren bitartez, eskolak auzoarekin daukan konpromisoa islatu nahi da, auzoko hainbat lanbideren ezaugarriak aztertuz. Beraz, proiektu honen bidez, eskola auzoko langile euskaldunekin harremanetan jarriko da, hainbat lanbideren ezaugarriak aztertuz. Lanbide horien garrantzia eta haiek duten eragina eskola-komunitate osoari azalduko zaio.

Proiektua, alde batetik, inklusiboa da, gure eskolako ikasle guztiak biltzen eta inplikatzeko dituelako. Bertzetik, ikasleen ikaskuntza aktiboa eta lankidetzakoa sustatzen duen metodologian oinarritzen da. Gainera, lanketa honen bidez euskararen erabilera eskolatik kanpo, auzoan berean, areagotzea ahalbidetuko da.

Halaber, proiektu honek genero-berdintasuna ere kontuan izan du, hasierako konpromisoetako bat auzoan lan egiten duten sei gizon eta sei emakume proposatzea izan baita. Aldi berean, mota ezberdinetako langileak errespetatzea eta baloratzea bilatuko da, eta, horrela, lanbide horietako bakoitzean genero-estereotipoak haustea

ere bermatuko da. Auzoan lan egiten dutenen artean euskaraz hitz egiten duten hainbat esparrutako profesionalak ezagutaraztea da proiektuaren helburuetako bat. Hezkuntza-teknologiak integratuko dira ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, hau da, profesional bakoitzarekin elkartu ondoren, informazioa egutegian ager dadin bermatzeko, talde bakoitzak ikastetxeko Plan Digitalean jasotako hezkuntza-teknologia egokiak erabiliko ditu. Profesionalekin eginen diren topaketen diseinuan ere aipatutako ikaskuntza aktiboa eta lankidetzakoa sustatuko dira.

Proiektuak gelan landuko diren edukiak indartzeko balioko du, hala nola lanbideak eta haien ekarpenak, auzoko zerbitzuak, sektoreak, mailen programazioen araberako lanbide zehatzaren lanketa, azalpen testuak, elkarrizketak, kasuan kasuko programa informatikoen azalpenak, etab. Proposatuko diren jarduerak askotarikoak izanen dira, bertzeak bertze, langileek haien lanari buruzko aurkezpenak egitea, auzoko eragile euskaldunen bilaketa aktiboa sustatzea, auzoko langile euskaldunen zerrenda elkarlanean prestatzea, langileari eginen zaion elkarrizketa taldean prestatzea, argazkiak egitea eta moldatzea, azalpen testuak idaztea, egokitutako egutegiaren orrialdea egitea, egokitutako langileari buruzko aurkezpena prestatzea, aurkezpena Elkartrukean proiektuko taldeari egitea edo langileari eskertzeko gutun bat bidaltzea.

Komunikaziorako hizkuntza-gaitasuna landuko da nagusiki, euskararen erabiler ahoz nahiz idatziz sustatuz. Gainera, proiektu honek posible eginen du haurrak bizi diren auzoko errealitatea ulertzea eta bertako bizikide sentitzea. Auzoa hobetzeko konpromisoa hartzeko aukera ere eman dezake. Bertzalde, teknologiek ematen diguten aukeraz baliatuko gara informazioa bildu, tratatu eta zenbait euskarritan transmititzea lortzeko. Hori guztia eginez, ikasleak teknologien erabileran trebatuko dira.

Aurten garatzen ari den proiektu honek hiru fase aurreikusten ditu:

- Lehen fasea: auzo batean bizitzeko beharrezkoak diren lanbideak ezagutzea. Horrekin batera, lan egiten dutenen artean euskaldunak bilatzea, irizpide gisa kontuan izanik genero-berdintasuna eta arlo profesionalen genero-estereotipoak haustea. Hasierako fase hau Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek landuko dute proiektuaren koordinatzailearen laguntzarekin, eta profesionalen zerrenda eginen dute.
- Bigarren fasea: maila bakoitzak zein lanbide profesional aukeratu duen zehaztea, eta erabakia programazioetara egokitzea.
- Hirugarren fasean maila bakoitzak aukeratu duen profesionalarekin eginen duen lana zehaztuko da: langile hori eskolara etorriko da edo taldea haren lantokira hurbilduko da, elkarrizketa eginen zaio, testua ekoiztuko da eta argazkiak aterako dira. Azken produktua koordinatzaileari entregatu beharko zaio, eta hark zuzeneko harremana izanen du egutegia inprimatzeaz arduratzen den enpresarekin. Azken fasea egutegi osoa prest dagoenean amaituko da. Emaizta zehatza eskolako familia guztiek 2022tik aitzina urteko egutegi bana izatea da.

Proiektua burutzen denean komunitate osoak ebaluatuko du. Momentuz ikasleak oso gustura ari dira lanean eta irakasleen balorazioa oso ona izaten ari da. Eskolak uste du urtero etxe guztietara iristen den eskolako egutegia komunitate osoaren laguntzarekin landu beharra dagoela, eta etorkizuneko egutegiak modu bertsuan eginen direla aurreikusten da.

ERA.EUS, GURASOAK AKTIBATZEKO ATARIA

Alfredo Dufur Otegi

Irantzu Mankomunitateko euskara teknikaria eta ERA lantaldeko kidea

Sarrera

Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzuek gogoeta partekatua egin zuten 2016. urtean, haurren sozializazioan eta euskararen jabekuntzan laguntzeko eragin-korrangoak izateko. Prozesu hartatik, besteak beste, ERA.EUS plataforma eta marka aurkeztu ziren 2017ko azaroan.

Euskaraz hazi eta euskaraz heziren arteko batuketan sozializazioa agertzen zaigu. Eskolak lan handia eta ona egiten du haurrak hiztun osoak izan daitezen, baina euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, ezin du dena egin eta ez dagokio den-dena egitea.

Nafarroako edozein herritatik begiratuta, eskualdea erdaldunagoa zein eskaldunagoa izan, guztiz komenigarria da gurasoek, eta baita familiek ere, jarrera aktiboa izatea seme-alaben hizkuntzaren ikaste prozesuan laguntzeko eta sustatzeko.

Eskolaren lana osatu beharra dago, beraz: etxean, eskolaz kanpokoetan, plazan... Denen artean osatzen baita ekosistema eta gauzatzen da haurren sozializazioa euskaraz. Toki entitateetako euskara zerbitzuek horretan lagundu nahi dute eta, horretarako, eskolaren parte hartzea bilatzen dute, besteak beste, bitartekari eta zubi lana egin dezan; izan ere, familiengandik hurbilen dagoen eragilea baita.

ERA sortu aurretik ere, udalek hizkuntzaren inguruko aholku ugari ematen eta era guztietako proposamenak egiten zizkieten gurasoei: zer (ez) egin, nola (ez) egin, sortu ingurune estimulatzailer bat etxean euskarazko liburuak bistan jarrita edo musika euskaraz ipinita, aukeratu euskarazko aisialdi proposamenak, euskararen gaiarekin aktibo izatearen garrantzia, haurrek ikastetxean ematen duten denbora mugatuaz jabetzea... Hau da, azken finean, euskararen gaiarekin guraso aktibo izatea garrantzitsua da. Baina, askotan, aholkuak baino ez ziren izaten, eta horiek bete ahal izateko baliabideak falta ziren, edo gutxi eskaintzen ziren.

Halaber, udaletako euskara zerbitzuek familiei begirako arloak jada jorratzen zituzten: Aisialdia, Familia eta Hezkuntza, baina modu bereizian (produktuek ez zuten lotura estetikorik eta hiru arloetako diskurtsoek ere koordinazio mugatua zuten; horrela, eraginkortasuna ahulduz). Hortaz, arlo horiek guztiek xede orokor bera baldin bazuten, ez ote zen eraginkorragoa izanzen modu koordinatuago batean

lantzea eta marko (txapel) beraren pean aurkeztea gurasoei? Hala, ERA markak marko ere eskaini zuen.

Zer da ERA.EUS?

ERA.EUS, aldi berean, marka eta plataforma digitala da, eta xede zehatz batekin zuzentzen zaie gurasoei: Euskaraz ikasten duten haurren gurasoentzako laguntza eta baliabideak eskaintzea (0 eta 12 urte bitartekoak).

Bere eremu geografikoa eta zerbitzuak ematea Nafarroa osoa da, eta, zehazki, euskara zerbitzua duten 28 udal, mankomunitate eta batzarretako herritarrak. Baina, kanala Internet izanik, eta muga geografikorik ez dagoenez bertan, baliagarria da asmo hori duen edonongo gurasorentzat.

Edukiak gurasoen euskararen ezagutza mailara egokitzen dira. Hau da, euskaraz argitaratutako artikuluetan, aholkuak eta mezuak guraso euskaldunei begirakoak dira, eta gaztelaniaz idatzitako artikulua horren ispiluak, aldiz, kontuan hartuko du irakurleak agian ez dakiela euskaraz eta, beraz, batzuetan mezu eta aholku ezberdinak helarazi behar zaizkiola.

Halaber, ERA.EUS gurasoen euskararen ezagutzara ez ezik, haien komunikazio ohituretara ere moldatzen da. Horretarako, batetik, sortzen diren edukien kalitatea, luzera eta iraupena bereziki zaintzen dira, eta, bestetik, plataforma digitalak gurasoek erabiltzen dituzten sare sozial nagusietan ere komunikatzen du: Facebook, Instagram eta Twitter. Informazioa jasotzeko beste kanal batzuk ere erabiltzen ditu ERA.EUSEk, Youtube bera edo hileroko posta-buletina eta sortu berri ditugun Telegram kanalak.

Azkenik, eremu digitaletik fisikora jauzi egiten duten euskarriak ere ekoizten dira. Besteak beste, udalekuen eskaintzaren berri emateko liburuxka, haur jaioberriak dituzten gurasoentzako *Ongi etorri jaioberri* aholku-liburuxka, *Eta eskolatik kanpo, zer?* eskolaz kanpoko ekintzen aholku-dekalogo edo triptikoa, baita promoziorako bestelako euskarriak ere: orri-markatzailea, ERAren azalpen orribikoa, hamaiketako zorroa...

Hau da, enbor beretik (ERA.EUS marka eta plataforma), euskaraz sozializatzeko ekosistema osoa eskaintzen zaio gurasoari.

Eta zehazki, zer eskaintzen da?

Astero artikulua bat argitaratzen dugu, eta horretan askotariko gaiak jorratzen dira gurasoen interesgarri: aholkuak, baliabide berriak aurkeztea, albisteak, dekalogoak, euskal kultura, informazio praktikoak...

Nafarroa osoko kultur emanaldi, tailer eta bestelakoen agenda (datoren arabera eta eskualdeka) eta eskolaz kanpoko jardueren informazioa. Kirola, ipuin kontaketa, musika, antzerkia, dantza, tailerrak, udalekuak, ludotekak, bertso eskola... umearen gustukoak dira eta horietan euskaraz aritzeko aukera baldin badute, gutxienez bi helburu beteko dira: bat, hizkuntzarekin dituzten bizipenak, harremanak eta esperientziak areagotzea, eta, bi, bestelako erregistroak lantzea (musika edo kirol arloko hiztegia, lagunarteko hizkera...).

Jarduera horietan, haurrak ongi pasatzeaz gainera, bere sozializazio eremuak zabalduko ditu eta bere nortasuna eraikitzen lagunduko dioten bizipen berriak

bereganatuko ditu. Aisialdiak bere bizitza aberastuko du, baita euskara ikasteko eta erabiltzeko prozesua ere. Izan ere, hizkuntza ez da eskolan bakarrik ikasten, bizitzan ere ikasten da.

Baliabide digitalak. Gehien lantzen dugun arloetako bat da gurasoentzako baliagarriak izan daitezkeen baliabideak bilatzea edo sortzea, antolatzea, eta horiek modu erakargarrian eta erosoan eskaintzea. Hala, besteak beste, musika atala dugu, adinka sailkatuta, bideoklipak eta abesti bildumak zein erabilera zehatzetarako bestelako bildumak ere (urtebetetzeak, sehaska kantak, niniekin jolasteko, etxeko konuetarako) biltzen dituen. Bere horretan seme-alabekin musika entzuteko bilduma izateaz gain, atal honek musikarako leihoa ere izan nahi du. Hau da, musikariak ezagutaraztearekin batera, musika bera izan dadila hurrengo bilaketetarako amua, bai gurasoentzat zein haurrentzat.

Zinema eta marrazki bizidunengana iristeko modu ugari daude. Batzuetan zinema aretoetara jotzea, besteetan telebista, baina badira aukera gehiago Interneten: online ikusgai dauden filmak, plataforma komertzialak, saltokiak, EiTb Nahieran eta App-a... Atal honek sarbide ezberdinak erakusten dizkie gurasoei. App-ek eta mahai-jokoek ere berezko atala dute.

Ipuinak eta literatura atalean ehunka ipuin daude, eta gurasoentzako atalik erakargarrienetako bat izan daiteke. Izan ere, hautaketa zabala dago bideo- eta audio-ipuinetan, edo hauek erabiltzeko modu ezberdinak, ipuin-paseoak eta ipuin interaktiboak, kasu. Horrekin batera, ipuinak kontatzeko eta irakurzaletasuna pizteko ideiak, eta gomendatutako liburuen zerrendak ere jasotzen dira.

Jolasaren bitartez haurrak bere nahiak, inguruko gertaerak, bere esperientziak, sentipenak... azaleratzen ditu eta hori lagungarria da, haur nahiz helduentzat, barneko zailtasunak eta ezinak deskubritzeko eta horiek gainditzen laguntzeko.

Horrez gain, haurrak, kideekin jolasten ari den bitartean, gizarte arauen balioa ezagutu eta bereganatuko du: arauak errespetatzea, aniztasunaren eta partaidetzaren garrantzia, autonomiaren beharra edota talde lanaren balioa. Azken batean, elkarrekin harremanduz, jolastuz, imitatuz eta esperientzia ezberdinak biziz norberaren nortasuna eraikitzen baita.

Beraz, ez da harritzekoa jolasek ere atal propioa eta ongi hornitua izatea.

Azkenik, hainbat baliabide ditugu espresuki gurasoentzako, Hezkuntzari buruzko atala edo Gurasoentzako aholkuak atala. Horietan, D ereduaren inguruan maiz egindako galderak, euskaraz hazteko dekalogoak, akademiaren eta musika eskolen gaineko informazioa, adituen hitzaldiak bideo pilula formatuan, eta bestelakoak topatuko dituzte gurasoek.

Markoa

Arestian aipatu bezala, ERA.EUSen markoa «Euskaraz ikasten duten haurren gurasoentzako laguntza eta baliabideak» markoa eskaintzea da. Beraz, gai horren inguruan Interneten zegoena arakatzea izan zen lantaldeak hartu zuen lehenetariko lana. Aipatutako helburua aintzat hartuta, gurasoentzako baliagarriak izan zitezkeen edukiak bilatu, kalitatearen arabera hautatu eta sailkatu zituzten, modu erakargarri eta ulergarri batean aurkezteko guraso euskaldun zein erdaldunei. Eta, jakina, hori elikatzen jarraitu eta mantendu.

Izan ere, ezinezkoa zatekeen eragile bakar batek baliabide sorta zabal hori sortzea. Hala, Baliabideen atalean beste erakunde batzuek, elkarteek, norbanakoek eta abarrek sortutako edukiak biltzen dira, alegia, auzolan digitala. Eta hori izan da ERA.EUSEN ekarpen nagusietako bat, begirada edo marko horrekin arakatzea sarea.

Bestalde, hutsuneren bat nabarmendu denean edo aukera sortu izan denean, ERA.EUSEK ere baliabide berriak ekoitzi ditu. Hala, lau aipatzearren:

- **Jolasak eta Solasak** bilduma, gurasoentzako bideo tutorialak haurrekin jolasten ikasteko. Jolasak Nafarroako ahozko ondaretik hartuak dira, eta modu atsegin eta laburrean ekoitziak daude, haurrekin egoera ezberdinetan jolasten ikas dezaten, izan guraso euskaldun edo erdaldun, biek egin baitezakete. Jada bigarren edizioa du, eta dozena bat jolas argitaratu dira beste horrenbeste bideotan.
- **Ipuin interaktiboak**. Ipuinek aukera handiak ematen dituzte haurrekin batera kontatu, irakurri, jolastu eta esperimintatzeko. Eta, gainera, ipuin horiek interaktiboak badira? ERA.EUSEK ipuin klikagarriak egin ditu, interakzioarako aukera ugari emanez: hotsak eta ahotsak entzuten dira eta mugimenduak ikusten... Une honetan zazpi ipuin daude bertan.
- **ERA Eskola**. Seme-alabak eskolatzean, ez dira haiek soilik ikasteari ekiten diotenak. Gurasoak ere bidelagun dituzte hazkuntzan. Honezkero zenbat gurasok galdetu ote diote beren buruari ez ote lukeen egon behar guraso izaten ikasteko Lanbide Heziketa zikloa, Masterra edo Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatea... eta hori, gainera, online. Bada, hain zuzen ere, ERAk proposamen hori egin nahi die gurasoei: ERA Eskola edo gurasoentzako trebakuntza online. Jada bigarren edizioa egina da, eta Euskarabidearekin batera sei aditu ekarri dira oholza digitalera; orotara 18 gai landu dituzte euskaraz eta beste horrenbeste gaztelaniaz. Azkenekoak: «Familia euskaldunetan euskara sendotzeko arrazoiak eta bideak» edo «La familia y la escuela en la misma dirección y sintonía».
- **D ereduak: hainbat hizkuntzatan maiz egindako galderak**. 2021ean D ereduari buruz maiz egindako galderen inguruko artikulua argitaratu zen ERAn, eta hori euskaraz eta gaztelaniaz egin ez ezik, Nafarroan erabiltzen diren beste sei hizkuntzatarara ere itzuli genuen, erreferentziazkoa izateko asmoz. Horrek, gainera, eskatu zuen <http://www.era.eus> webgunea prestatu behar izatea hainbat hizkuntzaren arteko nabigazioa onartzeko. Hala, etorkizuneko lan ildorako prest.

Irakurleak eta ikus-entzuleak

ERA.EUS abiatu zenetik, 2017ko azarotik, webgunearen erabiltzaile kopurua, bisitatuko orri kopurua eta abiatutako saio kopurua handituz joan da. Batez beste, abiatze urtea kenduta, 2018tik 2021era erabiltzaile kopurua eta abiatutako saio kopurua % 31 eta % 36 artean handituz joan da urtez urte. 2021ean 40.186 erabiltzaile eta 57.162 saio izan ziren, 2018arekiko halako 2,48 eta 2,31, hurrenez hurren.

Bisitatuko orrialde kopurua apalago hazi da, % 18 azken hiru urtetako bakoitzean; azken urtean 129.203 orri bisitatu dira. Hau da, 2018arekiko 1,66 bider gehiago.

2020. urte bereziak, itxialdi garaiak, familiei ez ezik ERA.EUSEko lantaldeari ere zer hausnartu eman dio. Adibidez, pandemiak harrapatu izan bagintu plataforma hau sortu baino lehen, nola lagundu familiei? Udaletako euskara zerbitzuok zer eskaini ahalko geniekeen familiei konfinamenduan? Hilabete horietan ezohiko erabilera datuak izan ziren eta horrek adierazten du gurasoek eskertu zutela itxialdian jasotako eskaintza.

Eta hemendik aurrera zer? Erronka izanen da ERA.EUSEk erabilera datuak handitzen jarraitzea, horrek esan nahiko duelako gurasoentzat erabilgarria dela eta gurasoak gero eta aktiboago daudela euskararekin. Izan ere, hazteko tarte handia dago oraindik ere, guraso gehiagorengana iristeko, alegia.

JOLASTEKA EGITASMOA

Marta Diaz Napal
SORTZENeko koordinatzailea

Artikulu honetan, Errigora elkartearen laguntzarekin antolatutako «Jolasteka» egitasmoa azalduko dugu. Lehenik eta behin esan nahiko nuke arlo pertsonalean lotura berezia dudala Jolasteka egitasmoarekin. Alde batetik, euskara maite dudan hizkuntza delako, eta, bestaldetik, lurraldea. Ni Caparrosokoa naiz, nire gurasoak Caparrosen jaiotakoak dira, eta horregatik lurraldearekiko lotura eta maitasuna ere ageri dira egitasmo honetan. 2019an Errigora, Agerraldia ekimenaren barnean, Sortzenekin harremanetan jarri zen, Nafarroako erdialdean eta Erriberan (erromatarrek izendatu zuten gisa *Ager eremua*), haurren aisialdiaren inguruan eragin nahi zelako.

Denok dakigu eremu honetan euskararekiko dagoen beharra, eta, oztopoak oztopo, baita begirunea ere. Errigora hainbat arlotan eragiten ari da Ager eremuan, eta Sortzeni haurren aisialdia lantzeko proposamena egin zigun. Egitasmoa lantzen hasi ginen, eragin nahi genuen inguruneke ezaugarriak aurreikusita. Lurralde oso zabala da, eta, beraz, Sortzenek harremanak zituen herrietan hasi ginen. Parte hartuko zuten haurren kopurua ezberdina izango zela argi genuen hasieratik, hainbat herritan adinak nahasi beharko zirela, egitasmoa egingarria izateko. Eremuko erreallitatea, Jolastekako taldeak aberastu zituen ezaugarriak bihurtu dira. Jolastekako begiraleak jarduera antolatu zen herrietakoak edo ahalik eta hurbileneakoak izaten saiatu ginen, herriarekin lotura izan zezaten.

Horrek zailtasunak ekarriko zizkigula kontziente ginen, baina ilusioz aritu gara lanean, eremuak euskararen inguruan dituen beharrak ezagututa. Oso garrantzitsua da lehenengo harreman hori, gurasoekin elkarlanean egingo baita Jolasteka egitasmoaren antolaketa. 2020an zortzi herri hauetara hurbildu ginen egitasmoaren berri ematera: Caparroso, Castejón, Erriberri, Azkoién, Allo, Sesma, Garinoain eta Lodosa. Lehenengo bilera bat antolatzen da, familiei proposamena azalduz. Elkarlanean, bertako begiralea izango den eta Jolasteka egingo den lokala lortzeko laguntza eskatzen diegu. Antolamendua irekia dagoela ere azaltzen diegu, eta Jolasteka herriaren beharrei egokitu dela. Haiekin batera zehaztuko ditugu Jolasteka egiteko egunak, ordutegia eta maiztasuna.

Jolastekaren funtzioa

- Euskara hezkuntza eremutik ateratzea.
- Haurren aisialdian eragitea, euskaraz jolastu, erlazionatu eta bizi ahal izateko.
- Herrian bertan euskarazko jarduera eskaintzea.
- Kalitatezko ludoteka antolatzea, non taldearen izaeraren arabera jarduera ezberdinak egingo diren.

Jolastekaren baldintzak

- Euskaraz egitea lehentasuna izango da.

Jolastekaren lorpenak

- Horrela lortu dugu D eta A eruedetako haurrak elkarrekin euskaraz aritzea, oso aberasgarria izanik. Bada familiaren bat A eruditik D eredura jauzi egiteko hausnarketa ere egin duena, eta hori Sortzenen irakurketan oso-oso azpimarragarria da.

Proiektuaren jatorria eta eraginkortasuna, lortzen duen hedapena, herri mailako auzolana eta antolaketa euskaldunon ezaugarrietakoa izanik, zoriontzekoa da.

1. Errigorak Ager eremuko uzta zabaltzen du bere kanpainekin, eta kanpaina horietako laurden bat berriz ere Ager eremura bideratzen da, euskara zabal dadin lau haizeetara. Sortzenetik oso harro gaude bigarren urtez 14 herritara iritsi garelako, eta datorren urterako ere kontaktu berriak eginez, eta euskal komunitatea saretuz eta elkartzuz.
2. Haurrak eskolaz kanpoko eremuetan ere euskara erabiltzeko aukerak eskainiz, eta, gainera, adin desberdinen arteko bizikidetza uztartzuz.
3. Gurasoen arteko elkarlana eta lankidetza ere indartu da, herri mailan horrelako ekintzek duten eraginarekin, betiere euskararen inguruan dela kontuan izanik.

Sortzenek idatzi honen bitartez eskerrak eman dizkie Errigora elkarteari egitasmoa bideragarri egiteagatik, eta Euskaltzaindia bezalako erakunde bati ere gurekin konfiantza izan eta Jagon Jardunaldian parte hartzeko aukera eskaintzeagatik.

NAFARROAKO IKASLEAK BERTSOTAN

Leire Barberena Rota
Nafarroako Bertsozale Elkarteko Hezkuntza eragilea

Bertsolaritza Irakaskuntzan programa Nafarroako Bertsozale Elkarteak (NBE) ikastetxeetan garatzen duen egitasmoa da. 1986an abiatutako proiektu honek ibilbide luzea eta emankorra izan du Nafarroako eskualde anitzetan.

Gaur egun, ikasturtero 3.000 ikasle inguruk jasotzen dute programa Nafarroa luze-zabaleko 62 ikastetxetan. Horren bitartez, Nafarroak berezkoa duen kultur ondare garrantzitsu bat transmititu nahi da, bertsolaritza hain zuzen ere, ikasleek kultur adierazpide horren oinarritzko jakintzak beregana ditzaten.

Proiektua aurrera eramateko, Nafarroako Bertsozale Elkarteak elkarlanean dihardu Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Iparraldeko eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteekin. Aipatutako lankidetzaz gain, ezinbestekoa da erakundeen laguntza, bai Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuarena, bai tokian tokiko udal eta mankomunitateena.

Eskualde eta ikastetxe bakoitzean programak berezitasunak dituen arren, orokorrean 15 saio jaso ohi ditu ikastalde bakoitzak, astean behin. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izaten dira programaren hartzaileak oro har, DBHko zenbait taldek ere ikastaroa jasotzen badute ere.

Bertsolaritza Irakaskuntzan programaren bidez, ikasleak bertsogintzan trebatzen dira eta ahozotasuna lantzen dute, NBEko irakasle espezialistek gidatutako saioetan. Bertsogintzaren oinarria euskara izanik, ukaezina da Bertsolaritza Irakaskuntzan programak ikasleen komunikazio gaitasunean eta euskararekiko jarreran duen eragina. Bertsoa euskaraz pentsatu eta egin behar den jarduera da, eta, horrenbestez, ikasleek haien hizkuntza gaitasuna garatzen dute saioz saio. Bertsogintzaren funtsa hizkuntza baliabideak lantzean datza; hots, ideiak hitzetara ekartzea, egitura metriko jakin batzuen barnean eta errimak erabiliz.

Ikasleak, beraz, hizkuntza egokitzen du nahi duen hori bertsotan adierazteko. Hori da, justuki, Bertsolaritzak Hezkuntza Arautuan eskaini dezakeen berezitasunetako bat; ikasleek bertsotan jardun ahal izateko lantzen dute hizkuntza. Xedea, beraz, bertsogintzan trebatzea da, eta hizkuntzaren lanketa, helburura iristeko egiten den bidea.

Ikasleek ikasketa prozesuan gozatzea oso garrantzitsua da, bertsolaritzaren oinarritzko ezagutzak barneratzea eta horren bidez beren hizkuntza komunikazioa lantzea bezainbeste. Ikasprozesua gustagarria suertatzeak ikaslearen motibazioan

eragin zuzena du, eta motibazioa ezinbestekoa da norbanakoaren zein taldearen hizkuntza jarreran eragiteko. Horrexegatik, Bertsolaritza Irakaskuntzan programan garrantzi handia du erabilitako metodologiak. Saioetan zehar giroa ludikoa izan dadin bermatzen da, ikasleek bertsolaritzaz eta bertsogintzaz goza dezaten. Horretarako, haiendako gustagarriak diren jolasak eta ariketak lantzeaz gain, haien interesei erreparatzen zaie landutako gaiak egokiak izan daitezen. Unean uneko hurbileko gai, egoera edo jarduerak baliatu ohi dira bertsotarako, ikasleen motibazioa handitu asmoz.

Erabilitako metodo didaktikoari dagokionez, ahozkoatasuna eta bat-batekotasuna erdigunean kokatzen dira ikastaroaren lehen saioetatik, betiere edukiak ikasleen eta taldearen ezaugarrietara egokituz. Ikasleek, modu progresibo eta gradualean barneratzen dituzte edukiak. Saioz saio, hizkuntza komunikazioa lantzearekin batera, euskal kulturaren ahozko tradizioa transmititzen da, bertsolaritzaren historia ezagutarazten da eta ikasleek gaitasun pertsonalak eta sozialak ere garatzen dituzte (jende aurrean hitz egiteko gaitasuna, sormena, entzuteko jarrera, enpatia...).

Egitasmoaren helburuak bete daitezen, Euskal Herri osoko ikastetxeetan dabil-tzan bertsolaritza irakasleak elkarlanean eta era koordinatu eta jarraituan formatzen dira, programaren kalitatea egunetik egunera hobetzen jarraitzeko asmoz. Irakasleek bertsolaritzaren eta bertsogintzaren ikasprozesua etengabe behatzen eta ikertzen dute, haien jardunean erabilitako metodo didaktikora egokituz.

Aipatutakoari jarraikiz, berrikuntza metodologikoekin batera ikasmaterialean ere urrats handiak egin dira; irakasleek programa lantzeko bereziki sortutako material didaktikoa darabilte saioetan. Edukiak unitate didaktikoetan banatuta daude, eta ikasleek aukera dute sekuentzia horietako bakoitzean hiru formatu erabiltzeko: ikasliburua, karta jolasak eta plataforma digitala.

Lehendabizikoa ikastaroaren oinarritzko materiala izan da urteetan zehar, eta ikastaroaren edukiak modu progresiboan barnebiltzen dituen euskarria da. Azken urtetan, ordea, lan handia egin da liburuaren osagarri diren formatuen diseinu eta ekoizpenean, eta horren emaitza dira, hain zuzen ere, www.bertsoikasgela.eus plataforma digitala batetik (2018an sortua), eta karta jolasak bestetik (2020an sortuak).

Karta jolasen bidez ikasleek bat-bateko ariketa askotarikoak modu ludikoan landu ditzakete: puntuari erantzutea (laguntza gisa oinak emanda); azken puntua eta oinak harturik koplak edo bertsoa osatzea; 4 edo 8 oinak emanda puntutan zein bertsoan egitea; gaiak sortzea (pertsonaiak, egoerak eta emozioak konbinatuz); errimaten duten kartak lortu eta kantuan aritzea eta abar. Jolas horien bidez, ikasleek bertsogintzaren ikasprozesuan urratsak egiten dituzte, modu ludikoan.

Azkenik, www.bertsoikasgela.eus atarian ikasleek eskura dute bertsolaritza lantzeko material ugari: haurrentzat musikatutako eta pantailatik abesteko moduko 150 bertso sorta, bertsolari ezagunen 150 bertsoaldiren bideoak, pantailan bertan egiteko hizkuntza jolasak eta bertsoak sortzeko 50 fitxa daude, besteak beste. Plataformak arrakasta handia dauka ikasleen artean (2021. urtean 53.000 erabiltzaile izan zituen atariak). Gizartean azken urtetan gertatu den jauzi digitalaz jabetuta, Bertsozale Elkarteak bere jarduna hartara egokitzea erabaki zuen. Teknologia berriek ahalbidetu dute metodologia nabarmen aldatzea eta programaren kalitatea hobetzea. Ikasleen gozagarritasunari dagokionez, urrats handia egin da formatu berri honekin, ikasketa prozesuaren giro ludikoari dagokionez. Gainera, plataformak aukera ematen die

ikasleei nonahi eta noiznahi askotariko edukiak eskura izan ditzaten, eta beraz, ahalbidetzen du ikastaroko saioetatik at haur eta gazteek bertsolaritzaren ezagutzaren ikasketan sakontzen jarrai dezaten.

Azken hamarkadetan, milaka haur eta gaztek Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutzak bereganatu dituzte Nafarroako ikastetxeetan. Bertsogintzaz gain, edo hori bitarteko izanik, ikasleek haien hizkuntza konpetentziak ere garatu dituzte. Horretarako, landutako edukiek bezainbesteko garrantzia dute haurren ikasprozesuan eragin zuzena duten metodologiak, batetik, eta ikasleen interes eta motibazioak, bestetik.

Haur zein gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko, ezinbestekoa da Hezkuntza Arautuaren bidez bermatzen den hizkuntzaren ezagutza. Haurrek euskara erabiltzeko eta harekin gozatzeko, ordea, beste espazio batzuk izan ditzaten beharrezkoa da, ikasleak, euskaraz ikasteaz gain, euskararekin eta euskararen bidez dibertitu daitezzen eta harremanak sor ditzaten.

PARKEAN EUSKARAZ EGITASMOA

Esther Lakasta Perez-Ilzarbe
Dindaia Fundazioko proiektu-zuzendaria

Sarrera

Gauza jakina da euskararen ezagutzatik erabilerara tarte handia dagoela, hizkuntza guztiekin gertatzen den bezala. Izan ere, hizkuntza-gaitasun nahikoa izateak ez du berez segurtatzen hizkuntza hori esparru desberdinetan erabiliko denik. Bestalde, euskarak erabilerarako esparru desberdinak beharrezkoak ditu. Eskolatik kanpo ere, bestelako egoeretan aritzeko aukerak behar dira: lagunartean, aisialdi eratuan zein denbora librean, kirolean, familiarartean... Hausnarketa edota kezka honi heldu eta hiru eragile desberdinek adostuta —Haur Eskolak Euskaraz guraso-taldeak, Sortzen Elkartek eta Dindaia Fundazioak—, Iruñerrian Parkean Euskaraz egitasmoa martxan jarri genuen. Esan beharra dago egitasmo horren antzeko esperientziak aurretik ere martxan jarrita zeudela hainbat tokitan, esaterako, Urtxintxa Gipuzkoak «Parketarrak» ekimena garatu zuen, eta Dindaia Fundazioak berak ere azken urteotan «Karrikara familiarartean» izeneko egitasmoa antolatuta du zenbait herri eta auzotan.

Oinarriak

Parkean Euskaraz proiektu hau hainbat baieztapenetan oinarrituta dago:

- 0-6 ADIN TARTEAREN GARRANTZIA. Adituen esanetan, 0-6 adin tarte oso berezia eta garrantzitsua da umeen garapenean, orduantxe ezartzen baitira hainbat ikasketa-prozesuren oinarriak, hala nola, hizkuntzak ikasteko behar direnak. Gerora ere ikas daiteke, baina, adin horretan, transmisio-multzo ezberdinetan (etxeko giroa, hezkuntza arautua eta aisia) dituzten irakaspen eta esperientziek aurrerago euskaraz normaltasunez hitz egiteko oinarri sendoa finkatuko dute.
- ESKOLA EZ DA NAHIKOA. Ezin uka daiteke eskolak haurrak euskalduntzean duen garrantzia, baina gurea hizkuntza gutxi(ago)tua dela kontuan harturik, euskaraz aritzeko aukerak eskasak dira. Eta euskara berezko hizkuntza ez duten haurrek erabilerarako aukerarik ez badute, ezin izango dute

praktikatu; praktikatu ezik, ez dute euskaraz hitz egiteko gaitasuna behar bezain ongi garatuko, eta gaztelaniara joko dute lagunekin eta ingurukoekin komunikatzeko. Erabilerarako aukerak sortu behar ditugu, eskolaz haratago, aisialdian eta familian. Hiru arlo horietan eragina izanez gero, D ereduak arrakastatsua suertatuko da, zalantzarik gabe.

- ARLO GUZTIEN OSAGARRITASUNA ETA GARRANTZIA. Euskaraz arlo guztietan presentzia izan beharko luke, gela barruko ikasgaiak ikasteko hizkuntza izatetik komunikatzeko hizkuntza izatera pausoa ematea nahi badugu. Eta arlo guztiak garrantzitsuak eta aldi berean osagarriak dira.
- EUSKARAZ ARITZEKO AUKERA ESKASAK. Egunerokotasunean Nafarroako erdialdeko haurrek inguru erdaldunean bizi direnez gero, euskaraz aritzeko aukera asko ez dute. Egitasmo honekin euskaraz aritzeko aukerak eskaintzen ari gara, kalean, norbere auzo-herrian, lagunartean eta gainerako testuinguru ludikoan.
- HAUR ETA HELDUAK ELKARREKIN DAUDENEAN EMAITZAK HOBEAK DIRA. Soziolinguistika klusterrak 2016. urtean egindako Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketan, erabileradaturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen direla ondorioztatu zen, hau da, haurren presentzia eragin handiko aldagaia dela euskararen kale-erabileran.
- EREDUETATIK IKASTEN DA/DUGU. *Modelatua* izeneko ikaskuntza-teoria honen arabera, beste batzuen portaera behatzen dugunean gertatzen den gizarte-ikaskuntzarako modua da. *Imitaziozko ikaskuntza* edo *ikaskuntza bikarioa* ere esaten zaio. Behaketa edo modelatze bidezko ikaskuntzan, subjektuak ez du zuzeneko errefortzu pertsonalen beharrik, konduktismoan landutako beste ikaskuntza mota batzuetan bezala; baizik eta, imitatu beharreko figurak pertsonarengan eragin jakin bat izatea. Haurren kasuan, gurasoak, anaia-arreba nagusiak edo irakasleak izango dira jarraitu beharreko ereduak edo haurrok modelatzeko funtsezko pertsonak.

Elkarlanean

Iruñean eta Iruñerrian martxan jarri dugun egitasmo hau elkarlanean abiatutako jarduera da, eta hori guretzat ezinbestekoa da, ekimenaren arrakasta bermatze aldera. Etorkizunean Nafarroa osora zabaltzea gustatuko litzaiguke.

Nafarroan D ereduak gaur egun dituen gabeziak oinarri hartuta, familia euskaldunen topagune egonkorak sortzeko egitasmoa da. Ondoko hausnarketa honetatik abiatu gara: euskaraz ikastea ez da nahikoa; D ereduak benetan umeok euskalduntzeko, hiru transmisio-multzotan eragina izan behar du, hots, etxeko giroan, eskolan eta aisian.

Hausnarketa horren haritik tiraka, Haur Eskolak Euskaraz eta Sortzen Elkartea Dindaia Fundazioarekin harremanetan jarri ziren, gure esperientziaren jakitun zuek, berekin batera Iruñerrian zerbait sortuko ote genuen galdezka.

Elkartu eta berehala jarri ginen martxan, bakoitzak bere eremutik lanari ekinez. Hasiera batean, hiru saio antolatuta genuen, froga gisa, maiatzean eta ekainean.

Saio-pilotu horiek arrakastatsuak suertatuz gero, irailean ikasturte osorako eskaintza egitea adostu genuen. Honela, programazioa prestatu, izena emateko formularioa sortu, begiraleekin bildu eta formazio saio bat burutu genuen. Ondoren, izena emandako pertsonekin auzoetan taldeak osatu, egutegia eta ordutegiak zehaztu eta proiektuari heldu genion.

Elkarteon talde-lanari eskerrak, zabalpena zein izen-ematea oso ongi burutu ziren. Garrantzitsua iruditzen zaigu auzoko hainbat eragilek proiektuarekin bat egin izana, euskara taldeak, guraso elkarteak... Horietaz gain, euskara zerbitzuen laguntza ere funtsezkoa izan da, finantzaketan eta zabalpenean. Ikastetxeetako zuzendari-tza taldeetatik gurasoenganako eskaintza zabaltzen lagundu digute. Denak norabide berean aritzeak ahalbidetu du ekintzaren arrakasta.

Zer da Parkean Euskaraz?

Familiarteko ekintza da, aisialdian burutzen dena. 0-6 urteko hurrek eta gurasoek ordubetez jolasten dihardute, begirale dinamizatzaile batek proposatutako jolasetan.

Auzoko edo herriko gune erreferentzial batean (plaza, parkea...) familia euskaldunak elkartu eta dinamizatzaile batek gidatuta jolasak egiten dituzte, denak elkarrekin. Ekintzak ordubeteko iraupena dauka. Bertan parte hartzeko, euskaraz jakitea da baldintza bakarra. (Guraso erdaldunak ere hurbildu izan zaizkigu baina, berentzat bestelako proiektuak daudela azaldu behar izan diegu, jolas eta kankak ikastekoak, kasurako; euskaldunak ez diren familientzako ekintzak ere oso baliagarriak dira, ez ditugu, ordea, hemen aipatuko ditugun helburuak erdiesteko jarduerak).

Zer nolako jolasak burutzen ditugu? Aurkezpen-jolasak, esku-jolasak, mugimenduzko jolasak, jolas kooperatiboak, paraxutarekin egindakoa... Horretaz gain, jolasak ez diren bestelako ekintzek ere badute tokia egitasmoan: euskarazko liburu eta ipuinen trukaketa, eskulanak, txangoak...

Zertan eragina izan nahi dugu?

Jakina denez, eskolak bakarrik ezin du euskararen erabilera sustatu. Ezagutza bermatzeaz gain, erabilerarako aukerak eskaini beharko lituzke. Eta horretarako, eskolarekin batera aisialdiko eragileak eta familiak ere norabide berean aritzea ezinbestekoa da.

Proiektu horren medioz, alde batetik familien hizkuntza-ohituretan eragina izan nahi dugu. Baina zeharka, haurren ohituretan ere eragina izaten saiatzen gara, eta baita auzoan ere, euskararen presentzia ikusaraziz.

Parkean Euskaraz egitasmoaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Familiarteko hizkuntza-ohituretan eragina izan nahi du. Auzoko edota herriko familien arteko hizkuntza-ohituretan eragina izatea du helburu.
- Familia barneko ohituretan ere eragina izan nahi du. Familia barreneko hizkuntza-ohiturez jabetu eta horietan eragina izan.
- Haurren arteko ohituretan eragina izan nahi du. Haurrak, gurasoak eta gainontzeko familiakoak eredu dituztela, beren artean euskaraz ariko dira, eta

egoera horrek euskaraz jarduteko ohitura, umeen beste testuinguruetara zabaltzea posible eginen du: jolas-orduetara, ikasgela barrukoetara, gurasoen presentziarik gabeko bizipen-egoeretara...

- Euskara kalera atera nahi du: euskara ikusgarri egin. Euskarak presentzia fisikoa zein sinbolikoa bereganatuko du herri edota auzoetan.
- Familia euskaldunak ahaldundu nahi ditu. Egitasmo honi esker, beste familiekin batera hizkuntzaren erabileran duten protagonismoaz jabe egiteaz gain, familiok euskaraz aritzeko ahaldundu eginen dira, eta esparruarekiko atxikipena eta horren jabetza gauzatuko dira, egoera diglosikoez sorrarazten ohi dituzten egoera eta sentsazio deserosoak gaindituz.
- Familia euskaldunen sareak sortu nahi ditu. Auzo-herri barruko topaketa ez ezik, talde eta ekimen bereko partaide izatea ere ahalbidetuko du programa honek, eta sare moduan antolatzeke era eskainiko du.

Hizkuntza sozializazioaren paradigma: Paula Kasaresen eredua

Paula Kasaresek paradigma berria proposatu digu hizkuntza-transmisioari dagokionean¹. Berak nahiago du *hizkuntza-sozializazioaz* hitz egin. *Transmisioaren* kontzeptua erabiltzen segitu behar ote dugu? Haurrak hizkuntzaren *sortzaileak* dira, ez transmisioan jasotzaile soilak. Hitzun bilakatzeko prozesua konplexua da; dinamikoa da, holistikoa, subjektuen hautuek baldintzatua; elkarreragilea edo interaktiboa, norabide anitzekoa, malgua eta denboran zehar aldakorra.

Sozializazioak norbere bizitza osoan dirau. *Erabilera emozionalaren* kontzeptuaz ere mintzo da, emozioetatik ere bihurtzen baikara hitzun.

Familiari dagokionez, erabilerarako hautu hori indartu eta lagundu ahal dugu. Nola?

Haurren eredu izaten (euskaraz egiten, haien aurrean bederen...). Kantitatea kalitatea baino garrantzitsuagoa dela kontuan hartuta, guraso berritsuak izaten, kontu-kontari jardunez, hitz berriak erabiliz, hitza beraiei ematen («Kontaidazu...»), beren elkarrizketa eta jokoetan sartzen... Euskara une goxo eta dibertigarrietan erabiltzen, euskara gozamenarekin lot dezaten (txisteak, jokoak...). Arduratzen gaituen gaia dela adierazten, baina umeok errudun sentiarazi gabe. Gure bizimoduan euskarari lekua eginez: gure arteko harremanetan, eta ez badugu beti erabiltzen, ohiturak aldatuz pixkanaka bada ere; aisialdiko eskaintza aukeratzekoan, erreferente euskaldunak eskainiz...

Azken finean, gakoetako bat euskarari eguneroko bizitzan erabilgarritasuna ematean datza.

Ekimen honekin, aipatutako neurriok martxan jarri egiten dira eta sozializazioa ahalbidetu egiten da.

¹ KASARES, P. (2014). *Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia (Jagon Saila).

Parkean Euskaraz: ezaugarriak

Parkean Euskaraz egitasmoa familia euskaldunak euskaraz jarduteko aukera da, jolas eta tailer antolatuta desberdinak baliatuta.

- Tarte berezia da haurrentzat. Izan ere, familia barruan emango den denbora-tarte hau jolasean eta ekintzan zentratutako momentua izanen da. Gurasoek haurrei *oparitzen* dioten denbora eta testuingurua. Tarte horretan gurasoekin gozatu, ongi pasatuko dute, eta une berezi horiek *bizitzaren bizkar-zorroan* gordeko dituzte.
- Beste alde batetik, etxetik eta eskolatik at, euskaraz komunikatzea eta ekintzak egitea posiblea dela ikasi eta barneratuko dute.
- Gainera, ikasgelako edota eskolako lagunekin zein ezezagunekin euskaraz egiteko abagunea izanen dute.

Ondorioak

Parkean Euskaraz egitasmoaren lehenengo txanda maiatza-ekainean burutu zen. Bigarren txanda, berriz, urritik abendura. 3 eta 8 saio egin dira, hurrenez hurren.

Lehenengo txanda Txantrean, Arrosadian, Arrotxapean, Iturraman, Alde Zaharrean eta Antsoainen burutu genuen. Bigarren txanda Txantrean, Arrotxapean, Alde Zaharrean eta Antsoainen egin dugu.

Lehenik eta behin esan beharra dago, lehen hiru saioak proba-pilotu gisa presatatu genituela eta izugarrizko arrakasta izan zutela. Bigarrenean proposamena zortzi saiokoa izan da, eta bertan aritutako partaide kopuru handi batek errepikatu egin du. Kopuruari dagokionez, ordea, lehenengo txanda arrakastatsua izan zen, bigarrena baino. Zer dela eta? Horren arrazoia, geure ustez, saio-kopuruan eta urtaro-eguraldian datza. Horrelaxe jaso dugu, behintzat, familiek egindako balorazioetan: bigarren txanda hiru hilabeteko iraupena duen egitasmoa izanik, astero egun bat lotzea zailagoa egin zaie familiei, udaberriko hiru saioko txanda baino. Bestalde, eguraldiak eragina izan duela ezin da ukatu; hotzetan eta udazkeneko arratsalde motzetan, kaleko ekintzek ez dute udaberrian edota udan izan dezaketen adinako arrakastarik. Hala ere, esperientzia oso positiboa izan dela uste dugu, aurrerantzean errepikatzeko modukoa.

Parkean Euskaraz bezalako esperientziak arras onuragarriak izan daitezke auzoaren bizitzan; familia euskaldunentzako elkarri eragiteko espazioak dira, beren arteko euskarazko harremanak finkatzeko. Euskarari espazio publikoan tokia egiten diogu, plazak *euskaraz* betetzen ditugulako.

Auzoko haurrek, eskolatik aterata, badute euskaraz non eta norekin egin, arlo ez-formalean eta modu ludikoan. Gainera, gurasoek seme-alabei kalitatezko denbora-tartea eskaintzen diete, elkarrekin ongi pasatzeko eta gozatzeko.

Parkean Euskaraz familien arteko eta familia barneko hizkuntza-ohituretan eragina izatea ahalbidetzen duen ekintza da. Eragile desberdinen arteko lankidetzaz ezinbestekoa da, ekintza arrakastatsua izanen bada.

Bukatzeko, gustatuko litzaiguke aipatzea, begirale dinamizatzaileen laguntzaz martxan jartzen direla taldeak, baina epe ertainera taldeok beren autonomia eskuratzeko eta dinamika propioa izatea dela helburua.

ONDORIOAK

Esker mila *Euskara Nafarroako hezkuntzan: egoera eta aukera berriak* izeneko XXVI. Jagon Jardunaldian parte hartu zenuten guztioi zuen ekarpenengatik, eta, geroztik, liburu honetarako txostenak idatzi dituzuen orori jardunaldian hizlari izan ala izan ez. Eskerrik asko idatzia helarazi diguzuen guztioi. Hezkuntzan, molde batez edo bestez, lanean ari zareten eta gai horietan adituak zaretenon iritzi, gogoeta eta esperientziak baliagarriak zaizkigu-eta Nafarroako hezkuntzaren ikuspegi osoa izateko.

Euskararen komunitatea hazteko eskolan euskaraz ikastearen garrantzia aipatu izan dugu, baita hori aski ez dela ere euskal ereduan ari diren haur eta gazteak euskaraz bizi daitezen. Hezkuntzako eragileak horren jakitun dira eta, etenik gabe, egitasmo eta berrikuntzak abian jartzen ari direla ikusarazi digute jardunaldi honetan.

Azken hiru hamarkadetan D ereduaren bilakaera zein izan den azaldu digute, eta bilakaera horren geldialdia ere nabarmen ageri zaigula erakutsi. Nafarroako hainbat ikastetxetan, beharturik, ezarritako Ingelesez Ikasteko Programak (IIP- PAI) A ereduaren beheakada ekarri du. Eta euskarazkoa ez haztearekin ere badu zerikusia, segur aski. A eredutik D eredura igarotzeko bide logiko samarra ematen zuena galarazi baita. Gizartearen gorabeherak, egoera soziolinguistikoa eta beste, gogoan hartzekoak dira euskarazko ereduak gora ez egite horretan, jakina.

D ereduaren gaurko egoera zein den xehatu eta sumatu dituzten gabeziak eta erdiespenak ere azpimarratu dituzte. Baina, batez ere aurrera begira zer behar duen murgiltze ereduak ikastetxean eta hortik kanpo argitu digute, eskola ez baita hezkuntzako eragile bakarra, inondik inora.

Eleaniztasunaren kudeaketaz, ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko proiektuez, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna hobetzeko egitasmoez ari zaizkigu Nafarroako Hezkuntzako Departamentuko teknikariak eta ikastetxeetako irakasleak. Ikastolek arlo horietan egindako bidea zein izan den entzuteko parada ere izan genuen jardunaldian; ez dugu, ordea, liburu honetan jaso.

Ekimen horietako asko abiatu berriak edo dira, eta, gainera, ikastetxe bakar batzuetan baino ez dira martxan jarri; hortaz, ondorioak luzera begira eta hedatuagoak direnean ikusiko ditugu, baina bidea hasi egin da, eta ikasleei ekimenok erakargarriak zaizkiela, behinik behin. Hezkuntzako eragileek, bai ikastetxeetakoek, eta bai

aisialdikoek ere, ikasleen gustuko jarduerak egitearen garrantziaz ohartarazi gaituzte, horrelakoek, besteak beste, ikasleen motibazioan eragina dute eta.

Eskolatik kanpo ere gero eta jarduera gehiago dago adin desberdineko haurrei, familiei eta gurasoei begira egiten direnak. Haur eta gazteei euskaraz aritzeko guneak eskaintzeaz gain, elkarrekin euskaraz aritzeko ohitura ere sortzen dute, eta euskarari karrika eta parkeetan ikusgarritasuna ematen.

Orokorrean, eskolako partaide guztiak (ikasle, irakasle, langile, guraso eta familiak) sustatzeaz ari dira gure hizlariok jardunaldian, eta inguru hurbilarekin, auzoarekin edo herriarekin inplikazioa bilatzeaz, eskola ez baita gizartean uharte bakartua. Ikastetxeak, aisialdiko eragileak eta familiak norabide berean aritzea ezinbestekoa da, elkarrekin jardunez, haur eta gazteek euskara nonahiko eta edozertarako hizkuntza har dezaten eta eskolako hizkuntza hutsa izan ez dadin, orain, oso maiz, gertatzen den bezala. Horrela erregistro ezberdinetan ezagutza eta gaitasuna erdietsiko dute, eta erabilerarako aukerak eskainiko dizkiegu.

Sagrario Aleman
Sustapen batzordeko burua

ERANSKINA

Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean, 2022an, *Euskara Nafarroako bezkuntzan: egoera eta aukera berriak* liburua argitaratu zuten. Bertan, Euskaltzaindiaren XXVI. Jagon Jardunaldiko edukiak bildu ziren. Bigarren edizio osatu honetan, eranskin gisa, Rafael Blanco Arbek idatzitako artikulua gehitu da.

A EREDUA: NAHIAK, EZINAK ETA AUKERAK. BEGIRADA BAT FORU ERKIDEGOTIK

Rafael Blanco Arbe
Bigarren Hezkuntzako irakaslea

I. Aurkezpena: historia apur bat

Euskaltzaindiaren egitasmoen bateragilea den Ibon Usarralderen gonbiteari jarraikiz, ia 35 urtean zehar A ereduan metatu dudan neure esperientziaren eta gogoe-taren berri emanen dut artikulua honetan.

1987ko irailean lotu nintzaion Altsasuko Institutuan (arteana Aralarako Mikel Donea izena zuena, egun Altsasu BHI deritzo) BBBko lehen eta bigarren mailan Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasteari. Bigarren urtea zuen irakasgaiak modu arautu eta ofizialean zentro horretan, eta A nahiz D ereduan aritu nintzen. 2004az geroztik Zangozako IES Sierra de Leyre institutuan ari naiz, soilik A ereduan. Nire lan-esperientzia gai honi dagokionez, Unibertsitaterako Sarbide Probetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolan (EOIDNA) bete ditudan bateragile ardurekin osatzen da.

1980ko hamarraldian iristen hasi zen Nafarroako Hezkuntza sistemara Euskara irakasgaia, bai Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, bai Batxilergo Balioaniztun Bateratura. Hasmentan eskola eta institutu gutxi batzuetara heldu zen; lehendik eskolaz kanpoko jardun gisa irakasten zen ikasleen nahierara, eta handik urte gutxitara modu arautuan.

Euskal Erkidegoan urte batzuk lehenagotik txertatua zen —jakintzagai gisa edo gelako hizkuntza gisa— irakaskuntza sistemari modu ofizialean, A, B eta D ereduen bitartez eta nahitaezko irakasgaia zelarik.

Nafarroa Garaian, 1988an Euskararen Irakaskuntzaren Dekretua argitaratu zen. Bertan hizkuntza eremuaren arabera banaketa zehaztu zen Euskararen edo Euskararen bidezko irakaskuntza.

Nabarmentzekoa da dekretu horrek Euskararen nahitaezotasuna ekarri zuela eremu *euskaldunean* (A, B eta D ereduen bidez), eta gainerako bietan, hots, *mistoan* nahiz *ez-euskaldunean*, borondatezotasun ezaugarria ezarri zion, hau da, eremu geografiko handiengan eta jendeztatuenetan euskaraz edo Euskara ikastea hautazkoa izan zedila erabaki zen. Egun ere halaxe da.

Gogora dezadan, garai hartan ikasle guztien ehuneko ttikia ari zela D ereduan Nafarroan, eta A eredia osatzen ari zen, baina euskal irakaskuntzaren hedapenaren

aroa zen, eta urterik urtera D nahiz A eredueta ikasleen kopuruak emendatzera egin zuen poliki-poliki.

Egun bitxitzat hartuko genuke egoera hura, baina egia da hasiera hartan hainbat euskaldun zaharrek A ereduaren bidez ikasten zutela Euskara Leitza, Altsasu edo Oronoz-Mugairiko institutueta. Horiek horrela, Arbizu, Areso, Urdiain, Erratzu edota Goizuetako ikasle andanak gaztelaniaz egiten zuten batxilergoa, Euskara izaki haiendako hiru orduko irakasgaia.

Horren ondorioz, talde berean elkar zitezkeen herriko euskara oso ongi zekitenak, erdipurdi zekitenak, ezagutza ttikia zutenak... Garai hartan A ereduko berariako materialak oso urriak ziren, eta Baietz, Bakarka, IK Arenak gehi irakasleek prestatzen zituzten ariketak eta testuak baliatzen zituzten. ETBk ekoitzi eta telebistaz hedatu edota VHS bidez ikusitako *Bai Horixe* saila, kasu, abangoardia didaktikoa izan zen ikusentzunezkoetan.

Ber gisan, aipa dezadan urte gutxitan euskaldun ikasle ia-ia guztiak D eredura iragan zirela.

A eredu berez 80ko hamarraldian abiatu zen eta, 90ko hamarraldian koskortu eta hedatu zen nabarmenki nafar lurralde osoan zehar, alegia, Cortestik Berara, Vianatik Izabara, Olatzagutiatik Zarrakatzelura edo Castejondik Luzaidaraino. Artea —egun ez bezala— D eredu ezin zen sare publikoan eremu *ez-euskaldunean* eskaini.

Tenore hartan Euskara Sailaren ekimenez, A eredu eskaini eta eraman zen Nafar Erdialdeko eta Erriberako ia zentro guztietara, beti ere hautazko irakasgai gisa, baina hizkuntza eredu izaerarekin. Arduradun bati entzun nionez, zentro gutxi batzuetan hasierako harrera ez zen batere txukuna izan zuzendaritzaren partez eta mesfidantzaz jaso zuten eskaintza. Hastapenean gurasoei informazioa ukatu edo ezkutatu zien eskolarik ere izan zen, zuzendariak hala erabakita, baina, oztopoak oztopo, zentro publiko gehien-gehienetara ailegatu zen eredu. Itunpekoek denaz bezainbatean, Iruñerriko askotan, eta Tafallan ere sartu zen. Tuterakoetan, nik dakidalarik, ez.

Hortaz, Euskara modu arautuan zen Nafarroa Garaian barrena, alderik alde, inguru euskalduenetatik eskualde erdalduenetaraino. Nolanahi ere den, kritikak ez ziren falta izan, eta ez ziren bakarrik euskararekin mesfidati zirengandik etorri; euskalgintzatik ere ahots zenbait altxatu zen, A eredu D ereduaren «kontraprogramazioa» zela argudiatuz, eta, egiari zor, tokiaren arabera hausnarketa horrek funtsik bazeukan, nolerebait. Ez baita gauza bera A eredu Garraldan, Olatzagutian eta Zubirin, edo Mendabian, Ablitassen eta Valtieran.

2. Egitateak: nahiak eta ezinak

Euskara ikasgaia finkatzen hasia dugu, beraz, eta lot gakizkion orain A ereduaren bidezko emanari. Esan bezala, arautua dago, curriculum eta programazioak osatu dira, eta 1992ko ekainean Unibertsitaterako Sarbide Probetara iritsi da, D ereduak eta A ereduak azterketa desberdin bana dutelarik.

A ereduari ari diren ikasle gehienek, Euskara hautazko gisa daukate, Iruñerriko, Erdialdeko eta Erriberako ikasleak baitira. Eremu *euskaldunean* apurka-apurka A eredu gutxitzen hasia da, gurasoek D ereduaren aldeko hautua egin dutelako.

Matrikula-datuek diote, Lehen Hezkuntzara etortzean Foru Erkidegoko ikasleen %20 inguru A eredura eskolaratzen dela, gorabehera batzuekin, urte zenbaitetan ehuneko hori dezente igon edo pitin bat jaitsi delarik. Nabarmendu behar da, kopuru hori Lehen Hezkuntzatik aitzina beti jaisten dela bi arrazoirengatik, hots, salbuespenengatik eta ziklo aldaketengatik.

Salbuespenei dagokienez esan behar dugu, eta azpimarratu, ikasleek zernahi mailatan baldintzapeko eskubidea dutela hizkuntza eredia uzteko, G eredura pasatu eta beste hautazko bat hartzeko. Nola gauzatzen da iraganbide edo salbuespen-eskubide hori? Eskualde *misto* eta *ez-euskaldunaz* ariko naiz ondoko lerrootan, eremu euskalduneko barrutian G ereduan ezin baita ikaslerik matrikulatu.

Bada, eta funtsean, salbuespena lor daiteke, ikasleak arazo pedagogikiko nabarmenak dituen irakasgai honetan, Euskararen ikaste prozesuan zailtasun handia duenean, alegia. Prozesua egikaritzeko, irakasleak txostena osatu behar du, tutoreari, orientatzaileari eta zuzendariari informazioa helarazte aldera. Informazio horren arabera, ikasleari salbuespena emanen zaio ala ez.

Aintzat hartu behar dugu Lehen Hezkuntzan gurasoak direla hizkuntza ereduaren hautatzaileak eta, ez dakite seme-alabek nolako bidea egingen duten ziklo horretan zehar eta aise edo nekez jarraikiko dioten irakasgaiaren eskakizunari. Egia da, zenbait ikasle oso nekez egiten dutela aurrera eta salbuespena erdiesten dutela, irakasgai *samurrago* batera igaroz.

Lehen Hezkuntza amaiturik, ikasleek berriz DBHko lehen mailako hautazko irakasgai aukeratu behar dute. Institutuaren arabera eskaintza zabala edo ttikia izanen dute. Frantsesa izaten da aukeretako bat, eta, horretaz gainera, zentro bakoitzak bere proposamenak ditu: Sormen literarioa, Xakea, Plastika, Oinarrizko Matematika... , edota bestelako batzuk.

Zailtasuna dela edo beste gai baterako zaletasuna dela bide, ikasle kopuru batek Euskara ikasteari uzten dio. Lehen mailako hautuak DBHko lau mailetakoa hautazko irakasgaien aukerak hertsia (A eredia atxikiz gero, Euskara ikasiko baitu lau ikasturteetan) edo ireki (irakasgaiak aldatu egiten baitira) egiten ditu.

Lehen Hezkuntza amaitzerakoan egin behar da DBH-Ieko matrikula eta orduan ikasleak izaten dira aukeraren nondik norakoa gurasoei adierazten dietenak, hala ere, badira seme edo alabaren nahiaren gainetik jarri eta A ereduaren aldeko hautua egin duten gurasoak, eta, hortaz, gerta liteke ikasle gutxi batzuk gogoz kontra A ereduari gelditzea. Hari horretatik tiraka esan behar dut, A eredia utzi duten batzuek euskara oso zaila dela diotela, baina hori bizipen guztiz pertsonala dut, eta ezin dut, bada, pertzepzio hedatua denentz esan.

Kontu bera gertatzen da DBH bukatutakoan. Oraingoan, hainbat ikasle uni-berbitsitatean edo etorkizunean ikasi nahi dutena aintzat harturik, beste irakasgai batzuk hartzen dituzte Euskara bazter utzirik. «Dezente ikasi beharreko gaia» dela adierazten dute batzuek, eta unibertsitate sartzeko probaren beldurraz, irakasgai samurrago bat hartzearen hautua egiten dute, edo egin nahi duten karrerari begira egokia den beste irakasgai bat hobesten dute. Azken horien artean, ez dira falta euskara geroago ikasiko dutela aipatzen dutenak ere...

Beraz, ziklotik ziklora galtzen ditu ikasleak A ereduak, eta ez da erraza galbide horri aurre egitea.

Gatozen orain A ereduaren nahietara eta helburuetara.

3. Zein du xede A ereduak?

Curriculumari beha, A ereduak D ereduaren antzeko helburuak dituela irudi lezake, *gainak* apalduz, edo gutxienekoak behehituz.

Hona helburu oinarrizko batzuk, denak ez aipatzearren:

- Ahozko zein idatzizko mezuen oinarrizko ideiak antzematea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuak sortzea, gutxieneko kohesioaz eta koheren-tziaz.
- Osagai fonetiko, lexiko eta sintaktikoak zuzen erabiltzea.
- Ikaskuntzaren prozesuan autonomia garatzea eta prozesu horretaz gogoeta egitea.
- Hizkuntza bat ikasteak dakartzan onurez ohartzea.
- Teknologia berrien erabileran aurrera egitea.
- Euskal kulturaren osagai batzuen berri izatea, musika, kirol, pertsonaia, festa edota ohiturei dagokienez.
- Euskara erabiltzeko motibazioa lantzea; irakurmena eta idazmena hazkunde pertsonalaren osagaitzat hartzea...

Hauexek dokumentu ofizialetako edukietako batzuk. Hezkuntza edo Euskara Saileko arduradun baten bati ondoko hau entzun diogu: «A ereduaren bitartez ikas-lea euskarara hurbiltzeko edo euskararekin kontaktuan jartzeko tresna bat izatea lortu behar da».

Ez da gutxi. Neure iritziz, modu batean edo bestean esanik, xede honen ildoan aurrerapauso sendoak eginen bagenitu, txukun antza arituko ginateke. Tartean daude irakaskuntza arautuak ezartzen dituen iraganbideak: notak, oharrak, txostenak, Urrutiko Hizkuntza Eskolan izena eman edo ez —DBHra iritsiz gero—, Unibertsitaterako Sarbide Probak egin —Batxilergoko 2.era iritsiz gero—...

Lehen Hezkuntzan lau ordu, DBHn hiru eta Batxilergoan lau. Noraino irits dai-tezke ikasleak, noraino hurbil ditzakegu gure ikasleak euskararen mundura, zenbate-rainoko loturan euskararekin jarri?

Bestelako nahi eta xede akademikoak ere aditu ditugu, esaterako, DBHko 4. maila amaitzean BI Lehenengo Hizkuntza Eskakizuneko mailaren jabe izan beharko luketela ikasle guztiek A ereduari. Nik neronek zalantza handia egiten dut nahikari horren inguruan.

D ereduaz ere horrelako eskakizunak aditzen ditugu noizean behin. DBHko 4. maila amaitzean, ikasle orok B2 Bigarren Hizkuntza Eskakizuneko mailaren jabe izan beharko luke, eta Batxilergoan barrena Hirugarren Hizkuntza Eskaki-zuna, hau da, C1ekoaren heina lortzea liteke helburua. Eta egia da ikasle mordox-kak aipatu mailak erdiesten dituela urte horietan, baina nago, *guztiak* gailur hartaraino iristea ezinezkoa dela egun. Eta uste horretantxe nago, beste hezkun-tza-xede askotan legez, jendarteak soil-soilik irakaskuntza sistemaren bizkar uzten duelako euskara bereganatzearen eta egoki erabiltzearen ardura, eta hola oso nekez erdietsiko dugu ikasleok euskara aberats, egoki eta zuzenaren jabe izatea (B2, C1), hizkuntzaren alderako harremana ikastetxean hasi eta bukatzen bada. Egoera horretaz argi eta garbi ohartzen gara B2 nahiz C1eko ahozko probetan: euskararen

gramatikan ikasleek ezagutza pasibo ona daukate, baina euskaraz mintzatzean, ageri-agerikoa da, erabiltze faltarengatik zein hizkuntza herdoildu eta mugatua duten zenbait ikaslek.

A eredura begiak itzuliz, nire uste apalean, ikasle guztiei DBHko zikloa amaitzean BLEkoaren heina eskatzea ez da gauzagarria egun. Badira, zer esanik ez, DBHko 4. mailan BLEko titulua eskuratzen dutenak, edota Batxilergo I. mailan, eta ez dira gutxi, baina oro har ikasle on samarren kasua da, edo D ereduan urteak emandako ikasleena. Bidenabar esan dezadan, D eredutik A eredura iraganiko ikasle batzuek CI Hizkuntza Eskakizuna gainditu dutela, baina oso kasu bakanak dira.

5. Etorkizuna: aukerak

Akademikoki helburuak pentsatzerakoan, edukiak ongi doitu behar direla onartzen badugu, motibazioaren lanketa dugu ezinbestean jorratu beharreko alorra. Jakina, irakaspen prozesu orori ebaluazio edo neurbide bat darraio, eta anitzez errazago da ezagutzak ebaluatzea motibazioak baino.

Ez oso aspaldi José María Sánchez Carrión *Txepetxek* jarri gintuen zinezko ildoan. Hizkuntza bizi baten bereganatze-prozesuan hiru guneren arteko zirkuitua osatu behar da, eta gune horiek elkar elikatu behar dute. «Ezagutza ↔ motibazioa ↔ erabilpena» dira zirkuitu horretako hiru erpinak eta gure ikasbidean hirurotan indar egitea beharrezkoa da: alegia, ezagutzan hankamotz bagabiltza, motibazio nahiz erabilpenean ere herrenka ibiliko gara; orobat motibazioaren *kutxa* zuloz betea badugu, oso nekez egingen dugu aitzina gainerako biotan.

Gorago iradoki bezala, motibazioa neurtzean eta ebaluatzean arazo larriak eta aburu lausoak izan ditzakegu, baina guztiz aintzat hartzeko irizpidea dela deritzot.

DBHko zikloa bukatutakoan, «Nor-nori-nork» eta «Nor-nork» aditz paradigmatikak, modu indikatibokoak, ezagutzea garrantzitsua da, baita *bitz-kutxa* oparoa osatzea, deklinatzen jakitea, oinarritzko testuak ulertu eta ekoiztea. Alabaina, Durangoko Azokan, Ituren-Zubietako inauterian, Done Mikel Aralarko santutegian, edo maskarada baten —gure kultura guneetako batzuk aipatzearen— inoiz-inoiz izana ere esanguratsua iruditzen zait. Euskal musikaren ezagutza koxkorra izatea ere egokia litzateke. Oteiza, Sarasate, Ziga, edo bertsolarien berri izatea...

6. Azken hausnarketa

Nik dakidala, ahalegin hori egin egiten da ikastetxeetan bi norabideotan, hortik erabilpenaren hazia sortuko delakoan noizbait. Azken urteotan Musikariak Ikastetxeetan programa martxan jarri da A ereduan nahiz D ereduan, eta, neure uste apalean, oso ekimen emankorra da euskararekin harreman ttikia dutenen interesa pizteko.

Hori bezalaxeak, beste hainbat pizgarri etor daitezke ikasleen artean motibazioa areagotzeko.

Hiru edo lau ordu dira astero, inguru batzuetan euskarak babes eta presentzia handiagoa du, beste batzuetan apalagoa; herri batzuetan arrotz samarra da hainbat bizilagunendako.

Urteak igaro eta, A ereduko ikasle dezente «Belarriprest» ikusten ditut, «Aho-bizi» aleak ere badira, euskararekin nolabaiteko atxikimendua dutenak, B2 edo C1 hizkuntza eskakizunak erdietsi dutenak, makurxeago edo zuzenago baina seme-alabei ere euskaraz mintzo zaizkienak, euskaraz irakurtzen dutenak...

Hari fin eta mehe, euri ttikia da A eredu euskararen transmisioan eta emarian. Halaber, bere puska ekar dezakeena. Euskal mundurantz doan bidean, ikasleak *pole position* eraginkorrean uzteko helburuz bideratu behar ditugu ahalegin eta saiakerak. «Ezagutza ↔ motibazioa ↔ erabilpena» zirkuitoa osatu.

Berriki mustu da Iruñean Laba euskaltzale gazteen espazio berria. Euskara bitarte eta helmuga, proposamen emankor eta sortzaileak ekartzera datoz gazteok; aurkezpen bideoetan argi diote ez direla hutsetik abiatu. Lehendik lur azpian zebilen *magma* sentitu, energia hori batu eta euskalgintzaren hazkundean baliatu nahi dute.

A eredu ere, bere xumean, bada *magma* horren osagai. Jarraiki dezala izaten eta ontsalaz emaria ugaritu.

